

puntua

Lurraren ongizatea,
200 herrialderen
esku

Luistxo Fernandezi
elkarriketa,
'Sustatu'-ri buruz



LAN ESPARRUA EUSKALDUNTZEKO URTEETAN EGINDAKO LANARI AITORTZA

**EUSKARAREN
NAZIOARTEKO EGUNA**
ORRIALDE BEREZIAK / 21

Taldeko fabriketan euskara normalizatzen aitzindari da Fagor Taldea;
2021eko Abbadia saria jasoko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik / 2

Fagor Taldeko Euskara Batzordea,
Fagor Arrasate lantegiaren
aurrealdean, atzo eguerdian.

XABIER URZELAI

**Pandemiako kutsatu
kopururik handiena
izan da eguaztenean:
107 positibo egun
bakarrean / 4**

SINADURAK

	PEDRO GARITANO / 38		HORAZIO ARGARATE / 43
	BERNARDO KORTABARRÍA / 8		ANDER ETXEBERRIA / 56
	JOHANNA SANCHEZ / 11		

2MÓ
229€
progresibo erreflexuen
aurkako lenteekin



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Euskararen normalizazioan egindako lana aitortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Abbadia saria emango dio Fagor Taldeari. Urtero banatzen da Euskararen Egunaren bueltan, baina aurtén, aurreikuspenen arabera, urtarrilera arte itxaron beharko da.

Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariak azaldu du euskararen erabilera "biziberritzen, gizarteratzen eta hedatzen" duten pertsonen eta taldeen aitortza egin nahi duela Antton Abbadia sariak. "Epaimahaiaren ustez, Fagor Taldearen ibilbideak eta gaur egun bizi duen errealtateak argi uzten du erreferentzia dela, euskararen arloan egin duen lanagatik, egiten ari denarengatik eta aurrera begira ere adierazten duen konpromisoarengatik", adierazi du.

Fagor Talde osoko langileen %85ek dakite euskaraz, eta erabilera %55ekoa dela diote azken datuek. Hala ere, hori ez da egun batetik bestera lortu. Leire Okarantza Fagor Taldeko Euskara Batzordeko buruak azaldu duenez, "urrats asko" egin dituzte egoera horretara iristeko.

Hastapenak, 70eko hamarkadan

Okarantzak azaldutakoaren arabera, kooperatiben hastapenetan, 70eko hamarkadan, "erabat erdalduna" zen lan eremua: "Langileen artean bailarako euskaldun zahar asko egon arren, laneko testuingurua ez zen baxter euskalduna. Horixe izan zen aldaketarako abiapuntua".

Lehenengo ekimenak euskara ikasteko gau-eskolak izan ziren; Fagor Taldeko langileak boluntario aritu ziren euskara irakasten eta ikasten. "Motibazioa zegoen. Euskararen erabilera lan mundura ekartzeko borondatea itzela zen", gehitu du Leire Okarantzak.

Urte batzuen buruan, baina, beste pauso bat emateko beharra zegoela sumatu zuten Fagorren. "Euskara normalizatzeak antolaketa eta sistematizazio bat eskatzen zuela konturatu ginen. Kanpoko laguntza, aholkularitza, behar genuen", azaldu du Euskara Batzordeko buruak. Hala, 1997an, Emun enpresarekin hitzarmenak sinatu zituzten, euskara planak "modu profesionalagoan" egiteko.



Fagor Taldeko Euskara Batzordeko kideak Fagor Arrasateko lantegiaren kanpoaldean, atzo, eguna. XABIER URZELAI

Abbadia saria Fagor Taldeari

Debagoieneko kooperatibak aitzindariak izan ziren lan eremuan euskararen normalizazioaren bidean urratsak egiten. Eta gaur egun ere euskara planak dituzten erakunde gehienak bailaran daude. Oraingoan, Fagor Taldearen lana saritu dute

Emun urte hartan bertan sortu zen, Arrasaten; lan esparrua euskalduntzeko kooperatiba gisa aurkeztu zuen bere burua. Fagor Taldearekin akordioa sinatu eta hurrengo urtean, 1998an, lehenengo euskara plana abiatu zen bertan. Hamar urteren buruan taldearen baitako zortzi kooperatibetan jarri ziren martxan euskara planak.

Ezagutzatik erabilerara

Eresti Oiarbide Emuneko aholkulariak azaldu du lehenengo urteetan lau ildotan egin zutela lan: euskararen ezagutzan, erabileran, jarduteko motibazioan eta euskara erakundean integraztean. Edozelan ere, oraintsu "jauzi kualitatiboa" egin dutela

70EKO HAMARKADAN EUSKARA IKASTEKO GAU-ESKOLAK ABIATU ZITUZTEN FAGORREN BOLUNTARIOEK

azaldu du Oiarbidek: "Lau ardatz horietatik helburu zehatzago eta anbizio handiagokoetara igaro da Fagor Taldea. Gainera, bosgarren ardatz bat ere gehitu da: iraunkortasuna".

Leire Okarantzak zehaztu ditu bukatu berri duten plan estrategikoak barnebiltzen dituenak. "Euskararen normalizazioan jarraitzeko lan-ildoak zehaztu berri ditugu 2021-2024 epealdirako", adierazi du.

Euskararen ulermenaren unibertsalizazioa da lehenengo helburua; hau da, langile guztiek euskara ulertzea. "Erabiltzeko gai ez izan arren denak euskara ulertzeko gai bagara, erabilerrako aukera asko zabaltzen da", dio Okarantzak.

Bestetik, hizkuntza mapak osatuko dituzte: "Kooperatibetan, eremuz eremu, departamentu eta batzorde guztietan mapak egingo ditugu, hizkuntzaren egoera zein den aztertzeko". Hala, *arnasguneak* –euskaraz hitz egiten den eremua–, *arnasgune*

izan daitezkeenak, *ulerguneak* –euskararen ulermena bermatuta dagoen eremua– eta *ulergune* ez direnak identifikatu nahi dituzte, ondoren, esparru bakoitzean "egoerara egokitutako neurriak" jarri ahal izateko. Hirugarren ildoak, berriz, euskararen funtzioa zehazteari egiten dio erreferentzia. Kontuan hartzekoa da Fagor Taldeak nazioartean egiten duela lan, eta, euskaraz gain, beste hizkuntza batzuk ere izan behar dituela kooperatibetan txertatuta. "Hizkuntza bakoitzak bere funtzioa izango du, eta zehaztu egin behar da ea euskarak zein espazio eta zein funtzio izango dituen gure eguneroko jardunean", argitu du batzordeburuak.

EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLANAK DITUZTEN ERAKUNDE GEHIENAK BAILARAN DAUDE

Bukatzeko, azken bi ildoak aurrez aipatutako iraunkortasunari eta elkarlanari lotutakoak dira: "Barrura nahiz kanpora begira, askotariko eragileekin lanean jarraitu nahi dugu. Oso emankorra da bide hori".

Elkarlana, bidea egiteko

Esan bezala, 1997an hasi ziren elkarlanean Fagor Taldea eta Emun, eta bidean "asko ikasi dutela" onartu dute biek. Oiarbidek esan du Emunek euskararen normalizaziorako bidean lagundu diola Fagorri, baina Fagorrek ere "asko eman diola" Emuni: "Fagorrek aukera eman digu arlo sozioekonomikoan probak egiteko, metodologia garatzeko, bideak esploratzeko... Taldeko kooperatiba guztiekin egin dugu lan, eta oso aberasgarria izan da guretzat ere". Nolanahi ere, Emuneko aholkulariak nabarmendu du sorreratik egin dutela lan handia Fagorreko langileek: "Hastapenetan ere lan handia egiten zen euskararen alorrean, baina, momentu batean, gu bidelagun izatea aukeratu zuten, jardun hori profesionalizatzeko aldera". Okarantzak, bide beretik, adierazi du egungo egoerara iristeko hainbat bidelagun izan dituztela: Emun, Mondragon Taldeko kooperatibak, euskaltegiak, erakunde publikoak... Halere, prozesuan boluntario izan direnen "ahalegina eta lana" azpimarratu nahi izan ditu: "Erronka handi honen aurrean konpromiso handia erakutsi dute norbanakoek eta baita Fagor Taldea osatzen duten kooperatibek ere".

Bailara konpromisoduna

Datuen arabera, euskal erakundeen %1ek bakarrik dituzte euskara planak abian, eta %1 hori osatzen duten gehiengo kooperatibak dira. Horri lotuta, gauza jakina da euskal kooperatiben gehiengo Debagoiengan daudela, eta, hortaz, ez da harritzekoa euskara planak dituzten erakunde gehienak ere bailara honetan egotea. "Zalantzarik gabe, Debagoiena erreferentia dela uste dugu. Euskara planak dituzten erakunde gehienak bailara honetan daude, eta horrek beste enpresa batzuentzat erakusle izateko balio du", berretsi du Oiarbidek. Halaber, Okarantzak ez du uste hori kasualitatea denik. "Koo-



Euskara ikasteko gau-eskoletako irudia. FAGOR TALDEA



Hainbat langile, iaz, Euskaraldirako ateratako argazkian. FAGOR TALDEA



Fagor Taldeko Euskara Batzordeko kideek bigarren topaketa egin zuten Arantzazun, 2006ko urrian. FAGOR TALDEA

peratibak gara gu, eta gure sorreratik eduki dugu gizarteko erronkei erantzuteko bokazioa", argitu du. Hala, iradoki du taldearen izaera ere badela lortutako emaitzaren giltzetako bat. Emuneko kideak ere hala uste du: "Fagor bezalako erakunde batek horrelako apustua egitea izugarria da. Guk ere ez dugu uste kasualitatea denik kooperatiba izatea eta ezta bailara honetakoa izatea ere".

Erronka lan esparruan

Euskara indartzeari dagokionez, azken urteetan ahalegin handia egin da hezkuntzan. Haurrek eta gazteek euskaraz ikastea eta jardutea izan da euskaigintzaren bueltako dinamiken eta eragileen xedea, baina orain, beste eremu batean jarri dira begirada guztiak: lan esparruan.

Izan ere, Fagor Taldeko Euskara Batzordeko Leire Okarantzak esan duenez, ezagutza teorikoa izan arren euskara erabiltzea ez bada, "ez da lortuko" hizkuntza normalizatzea: "Ikas-tetxeetan ikasi egingo dute, baina, ondoren, lan esparruan ez bada erabiltzen, gazteek ez diote zentzurik hartuko euskararen erabilerari".

Oiarbidek ere ondo daki zein izan den azken urteetako joera: "Behin eta berriz errepikatu da euskararen normalizaziorako apustua hezkuntzan egin behar zela. Egia da bere fruituak eman dituela; pertsona euskaldun gehiago daude. Baina orain,

erronka alor sozioekonomikoan dagoela uste dugu". Emuneko aholkulariak azaldu du bizitzan "ordu asko" egiten direla lanean, eta, hori kontuan izanda, enpresei dagokiela hezkuntzan egingandako bideari "jarraipena ematea". "Euskara normalizatzeko ezin-

bestekoa da lan eremua. Euskaraz ikasi dutenei euskaraz lan egiteko aukera erabatekoa eman behar zaie", gehitu du.

Esandakoari jarraiki, Garbiñe Mendizabal Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariak ere hor jartzen du fokua: "40 urte

daramatzagu hezkuntzaren eremuan ikasleak euskalduntzen: eskolan hasi eta unibertsitate-raino. Eta ez da ulertzekoa pertsona horiek lan mundura salto egiten dutenean euskaraz ez egitea". Halaber, adierazi du "naturala" izan beharko litzatekeela lan munduan ere "jakinduria hori aprobetxatzea", eta, indarrak batuta, horretan eragin nahi dutela azaldu du: "Hori da apustua orain".

Beste lau sari ere banatu dira bailaran

Duela 25 urte sortu zuen Foru Aldundiak Anton Abbadia saria, eta ordutik Debagoieneko bost eragile, proiektu eta norbanakok jaso dute aitortza euskararen normalizazioaren bidean egindako lanagatik.

Azken Abbadia sari hau Fagor Taldeari emango diote, baina lehenengoa ere bailaran banatu zen: 1996an, Arantzazuko Egutegia saritu zuten. Hurrengo urtean, 1997an, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteari eman zioten saria. Eta bost urte geroago, 2002an, Oñatiko Juan Zelaia enpresaburua saritu zuten. Zelaia Cegasa, Tuboplast eta Hidronor enpresen presidente izan zen, besteak beste. Hurrengo urtean, 2003an,



Elayko lantaldea Abbadia sariarekin Foru Aldundian, 2003an. ELAY

Elay Taldearen lanak jaso zuen Foru Aldundiaren aintzatespena. Sarituen zerrendan ikusten denez, Elay eta Fagor taldeak dira momentura arte saritu dituzten erakunde industrial

bakarrak. Garbiñe Mendizabalek onartu du ez dela ohikoa izaten saria enpresei ematea, baina garrantzitsutzat jo du bi taldeek euskararen normalizazioaren alde egiten duten lana.

Lanean jarraitzeko gogoz

Gizartean bezala, Fagor Taldeko kooperatibetan ere erabilerak da erronkarik handiena, baina "apurka-apurka" aurrera egingo dutela dio Oiarbidek: "Ezagutza maila handia dago: formakuntza planak egiten dira, kontratazioetan euskara lehenesten da... Hala ere, ezin gara erlaxatu. Erraza da atzerapausoak egitea, eta denok jabetzen gara arriskuaz".


Abbadia saria "pozik" jaso duten arren, Fagor Taldean garbi dute oraindik asko dagoela egiteko. "Honek ez du esan nahi dagoeneko Fagor Taldeak lortu duenik euskara normalizatzea. Oraindik ez gara helmugara iritsi", argitu du Okarantzak.



KORONABIRUSA

Baieztatutako positibo metatuak Debagoienean

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	175	65	3.863	%17,49	1.086
Bergara	74	46	2.057	%13,68	798
Oñati	52	38	1.834	%15,99	784
Eskoriatza	47	11	598	%14,57	1.413
Aretxabaleta	34	15	1.050	%14,83	692
Antzuola	12	30	391	%17,94	1.927
Aramaio	7	2	254	%17,16	608
Elgeta	2	2	95	%8,40	353
Gatzaga	0	0	16	%6,40	0
DEBAGOIENA	403	209	10.158	%15,67	944

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Pandemiako daturik okerrena erregistratu da bailaran aste honetan

107 positibo baieztatu ziren eguaztenean eskualdean; inoiz egun bakarrean atzemandako zenbateko handiena. Orotara, aste osoan zehar, 403 kasu atzeman dira, eta pandemia hasi zenetik 10.158 debagoiendar harrapatu ditu gaitzak.

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Positiboak bikoiztu egin dira aste honetan ere: azaroaren 18tik 24ra bitartean 209 kasu baieztatu ziren, eta oraingoan, 25etik abenduaren 1era, 403.

Goia jo du pandemiak bailaran; izan ere, inoiz egun bakarrean erregistratutako positibo kopuru handiena baieztatu zen eguaztenean: 107 kasu. Pandemia hasi zenetik hiru aldiz gainditu da eguneko 100 kasuen langa: iazko azaroan bi aldiz -12an eta 20an- eta azkena, eguazten honetan.

Horrek intzidentzia-tasan ere erabateko eragina izan du; 1.000ra gerturatzen ari da Debagoieneko tasa. Zehatzago esanda, astebetean 510etik 944ra igo da zifra. Hego Euskal Herriko lurraldeekin alderatuta, Bizkaia-

ren (340), Arabaren (514) eta Nafarroaren (637) gainetik dago eskualdea, baina Gipuzkoaren azpitik (966) dago; halere, Debagoienaren eta Gipuzkoaren arteko aldea murrizten ari da astetik atera.

Bestetik, azpimarratzekoa da 10.000 kutsatuen langa gainditu dela aste honetan; zehazki, pandemia hasi zenetik 10.158 debagoiendar kutsatu dira.

OSPITALEETAKO EGOERA DEBAGOIENENKO OSPITALEAN ERE PRESIOA IGARRI DA

Zortzi pertsona daude ingratuta koronabirusaren eraginez; aurreko astean baino hiru gehia-

go. Okupazioak geroz eta azkarrago egiten du gora erietxeetan, eta horren adibide dira azken asteko EAEko datuak: 179tik 207ra igo dira plantako ospitaleratzeak eta 36tik 55era ZIUkoak.

ADINEKOEN EGOITZAK SAN JUAN DE DIOSEN ARTATUKO DITUZTE EGOITZETAKOAK

Arrasateko San Juan de Dios zentroan hemeretzi plaza ireki dituzte Gipuzkoako egoitzetan kutsatuta dauden adinekoak artatzeko. Orain arte horretarako egon den Eibarko Ospitaleko zerbitzua indartu egin nahi du Aldundiak; izan ere, positibo berriak atzeman dira lurraldeko

egoitzetan. Azken datuen arabera, baina, Debagoieneko adinekoen egoitzetan ez dago COVID-19 kasurik.

TXERTAKETA-KANPAINA 346.000 LAGUNEK HARTU DUTE HIRUGARREN DOSIA

Osakidetza errefortzu dosia ematen hasi da 60 eta 69 urte bitartekoei. Dagoeneko adin-tarte horretan dauden 1.163.533 lagunetatik 60.141ek jaso dute hirugarren dosia.

Bestalde, txertaketa datu orokorreki dagokienez, 12 urtetik gorako herritarren %90,7k amaitu dute txertaketa zikloa EAEn -1.795.332 herritar-, eta %91,7 dira gutxienez dosi bat jaso dutenak -1.813.722 lagun-.

Orain arte bezala, 20-29 eta 30-39 urte bitarteko txertaketa da geldoen doana.

HEGOAFRIKAKO ALDAERA FAGOR ARRASATEKO HAMAR LANGILE HEGOAFRIKAN DAUDE

Hegoafrikan atzeman duten koronabirusaren aldaera berriak kezka eragin du nazioartean, eta sarrera-irteerak mugatu dituzte han. Fagor Arrasateko hamar langile -horietatik zazpi,

debagoiendarrak- han daude azaroaren 8a ezker. Aldaketa handirik ez bada, datozen egunetan etxera itzultzeko aukera izango dutela uste dute.

OSASUN NEURRIAK JAURLARITZA, OSASUN NEURRIAK ZORROZTEAREN ALDE

Pandemiaren bilakaera ikusita, Jaurlaritzak osasun neurriak zorroztea erabaki du. Horretarako lehenengo urratsa atzo sinatutako osasun larrialdiaren dekretua aktibatzea da; horrek ematen baitu arau zehatzagoak ezartzeko marko juridikoa. Gaur, egubakoitza, 16:30ean bilduko da Labi instituzionala.

Bestetik, asteon onartu da COVID ziurtagiri digitala-ren erabilera. 150etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietako zenbait jardueratan eskatzea zen Jaurlaritzaren helburua; zehazki, 50 pertsonatik gorako jatetxeetan zein diskoteketan edota musika tabernetan. Edonola ere, Iñigo Urkullu lehendakariak ez du baztertzeten eremu gehiagotu ere ziurtagiria aurkeztu behar izatea. Paperean edo formatu digitalean erakutsi beharko da, eta establezimenduen jabeen ardura izango da bezeroek dokumentua dutela ziurtatzea.

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA

Eusko Jaurlaritzak, Bingen Zupiria bozeramailearen bitartez, martitzenean iragarri zuen 2 milioi euroko dirulaguntza emango diola Debagoieneko Mankomunitateari, industria hondakin ez-arriskutsuak jasotzeko Epeleko (Angiozar) zabortegia berriro ireki ahal izateko. Mankomunitateko presidenteorde Garazi Larreak prentsa ohar bidez GOIENARI adierazi dio "aldebakarrez" hartu duela erabakia Eusko Jaurlaritzak, "Mankomunitatearekin desadostasunarekin".

Larreak dio otsailetik diharduela Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan, "Epeleko hondakin industrialen isurtegia berrirekitzeko aukera eta horretarako baldintzak lantzen". Mankomunitateko ordezkariak dio Zaldibarko gertakariaren ondoren, eta eskualdeko "industriaren beharrei erantzuteko" asmoz, Debagoieneko Mankomunitateak beti jarri duela mahaiaren gainean "Epeleko isurtegia berrirekitzeko" aukera. Baina gehitu du: "Betiere, kudeaketa eredua, finantzaketa eta ingurumen eta baldintza teknikoen gaineko berme batzuk betez gero".

Mankomunitateak eta Eusko Jaurlaritzak urtean zehar izan dituzten harremanetan, Mankomunitateak proposatu du hitzarmen batekin bideratzea Epele irekitzeko finantzaketa eta baldintzak jasotzeko markoa. Jaurlaritzak, ordea, zailtasunak ikusi dizkio hitzarmen izaerari.

Zabortegia irekitzeko obra

Gauzak horrela, baldintza batzuk jarri zizkion azaroaren 12ko datarekin bidalitako idazkian Mankomunitateak Jaurlaritzari. Horien artean, dirulaguntza, Epeleko zabortegia berrirekitzeko obra finantzatzera bideratzea eta ez aurreikustea zabortegia handitzea. Zehazki, zabortegiko hirugarren gelaxka irekitzeko obran finkatzea dirulaguntza hori. Kopurua ere zehazten zen: 1.226.224 euro. Era berean, etorkizunean, berriz ere aktibitate faltagatik bideragarritasunik ez balego, zabortegiaren itxiera bideratzea edota hirugarren gelaxka betetzean, bideragarritasuna berraztertzea eta balizko erabateko itxiera proposatzea.



Epeleko hondakinak batzeko gunea. Itxitako zabortegiaz gain, konposta egiteko planta ere badago bertan. IMANOL BELOKI

Bi milioi euroko laguntza Epele berriro irekitzeko

Industria hondakinak jasotzeko azpiegitura premia dela-eta, Eusko Jaurlaritzak bi milioi euroko laguntza iragarri du Epele egokitu eta berriro irekitzeko. Debagoieneko Mankomunitateak dio eurekin adostu barik hartu duela erabakia Jaurlaritzak

Adostasun barik

Mankomunitateko lehendakariordeak dio martitzenean Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak iragarritako Ingurumen Sailaren erabakia ez dela adostua izan. Are gehiago, dio Mankomunitatearentzat "baldintza batzuk onartezinak" zirela adierazi zitzaizela Jaurlaritzako Ingurumen Sailari duela aste batzuk.

Debagoieneko Mankomunitateko eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko ordezkariak martitzenean bertan batzartu ziren Gasteizen kontu honen gainean adostasuna lortzeko. Garazi Larreak dio Ingurumen Sailak "aldebakarrez hartutako erabakiaren gainean desadostasun horiek azaldu" zirela batza-

"ERABAKIA ALDEBAKARREZ HARTU DUTE, GUREKIN ADOSTU BARIK"

GARAZI LARREA, MANKOMUNITATEA

rrean eta "marko adostu bat lantzeko beharra" adierazi ziola Debagoieneko Mankomunitateak Ingurumen Sailari.

Batzarra egiten ari zirela egin zuen publiko Jaurlaritzaren bozeramaileak goizean Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia. Bingen Zupiriak iragarri zuen bi milioiko dirulaguntza Epeleko zabortegia berriro irekitzeko. Zupiriaren hitzetan, Zaldibarko zein Mutiloako instalazioak itxi ostean "industria jardueretatik datozen hondakin ez-arriskutsuen zabortegien mapan sortutako gabeziei aurre egiteko" onartu da diru-laguntza. Adierazi zenez, "Euskadin dagoen beharra-ri erantzuna emango liokeen gune bat gaitu nahi da" Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegia berriz irekita.

2018a ezkerro itxita

Epeleko hondakin inerteen zabortegia 1993an ireki eta 2018an itxi zen. Egoera berrira egokitzeko obrak egitea beharrezkoa

zela-eta, proiektua ere egin zuten, baina bideragarritasuna aintzat hartuta obrak ez egitea eta zabortegia ixtea erabaki zen. Ordutik, 2019ko martxoaren 26a arte barne kontuetarako erabili zen. Gerora etorri zen Zaldibarko hondamendia, 2020ko otsailean, eta nabarmen geratu zen industria hondakinak hartzeko azpiegituren premia.

Aurtengo urtarrilean eman zuen Arantza Tapia sailburuak Hondakinaren Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren zirriborroaren berri. Planaren arabera, Jaurlaritzak ez zuen aurreikusten planta berririk egitea; bai, ordea, eginda daudenak handitzeko edo berregokitzeko beharra; adibidez, Epelekoa.

"BEHAR BATI ERANTZUNA EMANGO LIOKEEN GUNE BAT GAITU NAHI DA"

BINGEN ZUPIRIA, JAURLARITZA

Haurrentzako jostailuak batzeko dei egin dute

Gurutze Gorriak jostailuak banatuko dizkie zailtasun egoeran dauden eskualdeko umeei

E.A.L. ARRASATE

Kalteberatasun egoeran dauden eskualdeko 245 umerentzako jostailu berriak jasotzeko ekimen solidarioa jarri du abian aurten ere Debagoieneko Gurutze Gorriak. Izan ere, haurrek "aisialdirako, jolaserako eta jarduera artistiko eta kulturaletan parte hartzeko eskubidea" dute.

Kanpaina hau Jostailu Hezizailearen izeneko proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektu horren helburua da 0 eta 12 urte bitarteko haurren jolas-eskubidea bermatzea, "bai eta jolasak eta jostailuak hezkuntzarako eta balioak transmititzeko tresna gisa duten garrantziaz eta garapen ebolutiboan duten eraginaz sentsibilizatzea" ere.

Eroskin eta Elorregin

Jostailu berriak jaso nahi dituzte ekimen horren bitartez. Zergatik? Hona azalpena: "Ekitatez eta diskriminaziorik barik, haur guztiek jostailu berri bat izan dezaten". Bestetik, segurtasunagatik. Ezin delako bermatu jostailua jatorrizko bilgarritik atera ostean %100 segurua denik. Horrez gain, aurreko edizioetan egiaztatu dute bildutako bigarren eskuko jostailuen %10 baino ezin direla entregatu, batzuek jada ez baitute beren funtzioa betetzen.

Kanpaina horrekin, herritarrek animatu gura dituzte Gurutze Gorriaren kontu-korrontearen bidez dohaintza egitera, Laboral Kutxaren ES22 3035 0001 51 0010018156 kontu korronte zenbakiaren bidez, kontzeptuan *Jostailua* hitza adieraziz. Hala, jostailu berriak biltzeko eta jostailu-txekeak saltzeko guneak izango dira bi toki hauetan: Arrasateko Hiper Eroskin, abenduaren 3an, 4an eta 11n, eta Debagoieneko Gurutze Gorrian -Elorregi auzoa 5, Bergara-. Epemuga: abenduak 11.



Erldian, Adur Ramirez de Alda azalpenak ematen; ezkerrean, Jokin Unamuno; eta eskuman, Jon Irizar kazetaria. MIREIA BIKUÑA

Altsasukoek bizitakoaren berri eman dute Oñatin

Altsasuko auziagatik auzipetutako gazteek solasaldiak egiten dihardute hainbat herritan, eta Debagoieneko geldialdia herenegun egin zuten, Oñatiko Santa Ana antzokian. Jasotako elkartasun uholdea eskertzea da jendaurreko agerraldien xedea

Hasier Larrea OÑATI

2016ko urriaren 15eko gertakariengatik zortzi gazte auzipetu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, eta horietako bi, Adur Ramirez de Alda eta Jokin Unamuno, Oñatin izan dira asteon, azken bost urteotan bizi izandako ibilbidea kontatzen.

"Babes harrigarria"

Azkenaldian, jendaurreko agerraldiak egiten dabiltza, besteak beste, "jendeak guri aurpegia jartzeko eta gaur egun errepre-sioa jasaten ari den jendearen kasuak ezagutarazteko". Motibo nagusia, ordea, herritar anoni-moengandik jasotako elkartasuna eskertzea izan da: "Gure aldeko borrokan arlo politiko zein sozial ugaritako jendea inplikatu da, eta zeharo harritu gaitu horrek, orokorrean ez delako jende askorik mugitzen, baina kasu honetan bai".

Jon Irizar kazetariak gidatuta, solasaldian zehar, 2018ko epaiketa entzutetsua ekarri dute

gogora. Akusatuen aulkian eseri ziren zortzi gazteetatik zazpi sartu zituzten espetxean, Ramirez de Alda eta Unamuno barne. Prozesu hori etsipenez bizi izan zutela aipatu du Unamunok: "Behartuta sartu gintuzten kartzelan eta ezin ginen atera; hori gutxi ez, eta 50 urteko zigor eskaria jaso genuen... Ez sinisteko modukoa izan da dena".

Horren aurrean, Espainiako justiziari aurre egin beste biderik ez zutela adierazi du: "Badakigu espetxearen funtzioa jendea suntsitzea eta militanteak desaktibatzen saiatzea dela. Guk ez genuen nahi haien helburu horiek betetzea, herritar askoren babesarekin aurre egin diegu, eta, azkenean, hemen gaude".

"JENDEAREN BABESAK ASKO LAGUNDU DIGU PROZESU HONI AURRE EGITERAKOAN"

Hirugarren graduan

Asteazkenean Santa Anan berba egin zuten bi gazteei 2020ko uztaillean baimendu zieten kartzelako hirugarren gradua, bederatzita eta zortzi urteko kartzela-zigorren laurdena bete berri-tan. Hala, Zaballako espetxean egotetik baimendutako irtenaldiak egitera pasa ziren.

Gaur egun, hirugarren graduan jarraitzen dute zortzi auzipetue-tako seik, eta bik baino ez dute amaitu kondena osorik: "Baldintzapeko askatasuna eskatu dugu, epe barruan gaudelako, eta erantzunaren zain gaude; horrez gain, Estrasburgoko bidea ere badaukagu, alegazioa jarri dugulako; ea tramitea onartzen duten itxaroten gabiltza".

Askatasuna, 2024an

Tunelaren bukaera ikusten hasi diren galdetuta, Altsasuko gazteek adierazi dute sententzia bukatzerakoan izango dela hori: 2024ko maiatzaren 8an, hain zuzen ere.



Eneko Atxa, errejeta bat prestatzen, Azurmendi jatetxean. MUNDUKIDE

Mundukidek Eneko Atxarekin abiatu du kanpaina berria

Dirua biltzeko '#MundukoErrezetarikOnena' ekimena aurkeztu du Azurmendi jatetxeko sukaldariburuak

H.L. DEBAGOIENA

Mugimendu kooperatiboaren babesarekin sortutako Mundukide GKEk hegoaldeko herrialdeekin lankidetzaz sendotzeko kanpaina jarri du martxan berriki, abendua amaitu arte iraungo duena. Ohi baino esparru gehiagotara heltzeko, Eneko Atxa punta-puntako sukaldariak egin ditu enbaxadore lanak: "Bai negozio-ereduan eta baita balioetan konpromiso handia erakusten du, eta horregatik jo dugu berarengana", adierazi du Urri Urizarrek, Mundukideko komunikazio arduradunak.

Sentsibilizazioa helburu

Abagune hori baliatuta, urte bukaerako diru bilketa kanpaina irrezeta itxura eman diote, "laguntzeko gosea eta aho zapo-erik onenarekin geratzeko go-goa duten pertsona guztiak" gonbidatuz parte hartzera. Ho-

rretarako, dirua biltzeko atal bat prestatu dute *mundukide.org* webgunean, ekarpena egin nahi dutenek Internet bidez modu seguru eta errazean egin ahal izan dezaten, txartel, Bizum edo banku transferentzia bidez. Kanpaina parte hartzen dutenek beren dohaintza desgrabatu ahal izango dute, gainera, zerga ziurtagirirako datuak betez. Oraingoz ekimena "erantzun ona" jasotzen dabilela aipatu du Urizarrek, "askori deigarria" iru-ditu zaiela iritzita.

22 urteko lankidetzaz

Egun, Mozambiken, Etio-pian, Ekuadorren, Kolonbian eta Brasil-jarduten du gobernu kanpoko erakundeak, nekazaritza eta abeltzaintzaren bitartez fa-milien garapen sozioekonomi-koari laguntza emanaz: "Helburua pertsonen autonomiaz lan egiteko tresnak ematea da".

Langabezia-tasaren beherakada eten egin da azaroan

Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) Gipuzkoako azaroko langabezia-datuak kaleratu ditu asteon. Bailarako langabezia-tasa, Aramaiokoa kontuan hartu gabe, %8,37koa da, gaur-gaurkoz: populazio aktiboa osatzen duten 29.984 pertsonen artean, 2.509 daude lanik gabe. Hala, abuztuko datuen (%8,40) antzeko mailan kokatu

da Debagoiena, irailean (%8,32) eta urrian (%8,23) izandako beherakaden ostean.

Herriz herri, Arrasate da langabezia-tasa handiena duena (%11,30); atzetik jarraitzen diote Eskoriatzak (%8,25), Bergarak (%7,36), Oñatik (%6,59), Aretxabaletak (%6,57), Antzuolak (%5,25), Elgetak (%4,04) eta Leintz Gatzagak (%3,33).

Azaroko datuak urte hasiera-koak baino hobeak dira, urtar-irilean %8,91n baitzegoen Debagoieneko langabezia-tasa.

Pediatrarik ez Antzuolako haurrentzat

ENARA AGIRRE

ANTZUOLA

Aspaldian pediatria zerbitzua eskasa zela pentsatzen nuen arren, azken bi urte eta erdi hauetan okerrera egin izanak bultzatzen nau idatzi hau egitera.

Badira bi urte eta erdi lehenengo erreklamazio formala idatzi nuela Antzuolako anbulatorioan; tamalez, gaur erreklamatzeko dudana baino zerbait hobea izan arren orduko egoera: Antzuolara astean behin arratsalde partean etortzen zen pediatria anbulatoriora. Soilik errebisioak egitera.

Larrialdiren batean, Bergarako anbulatoriora edo Arrasateko urgentzietara mugitu beharrarekin, umeak aldean hartuta: izan 40ko sukarrarekin, izan botaka... Edozein modutan. Maiatz inguruan hasi eta irailera arte, asteazkenetan ere ez zen etortzen pediatrarik Antzuolara: ez omen zegoen ordezkorik, udako oporrak zirela-eta Bergarako zerbitzua lehenesten zutela eta abar.

Erantzuna: "Eskerrik asko zure erreklamazioagatik. Ahal duguna egiten dugu".

Ordutik, bi urte pasata, berriz gure umearen errebisioa, eta orduan, "Antzuolan ez dago pediatrarik" izan zen erantzun zidana telefonoz beste aldean zegoen langileak. Benetan? Nahi banuen probatzeko denbora batera berriz deitzen, ea zerbait aldatzen zen. Eta horixe egin nuen behin eta berriz. Udaletxera joan, eta alkateak, bere esku zegoena martxan jarriko zuela. Beronek jasotako erantzuna, irailaren 15ean jarriko zela berriz martxan zerbitzua Antzuolan. Azaroaren 25a izanik, gure umearen errebisio txandarik ez Antzuolan. Ez dago pediatrarik, momentuz. Nahi badugu, Bergaran.

Lehen egoera eskasa zela, eta orain? Inork esango al digu zer egin dezakegun Antzuola bezalako herri txikietan bizi garenok? Ez al dituzte, ba, gure

umeek herri handiagoetako umeen eginbehar eta eskubide berak? Egoera aitzakia hartuta, dena libre? Eta, nola ez, beti bezala, zaurgarrienek kontrara.

Gure umeak denon umeak dira, eta, etorkizun hobea nahi baldin badugu, orain hobea lortu beharko dugu. Gutxieneko batzuk ere ez baldin baditugu, nola?

Nik Eliza maite dut

ANDONI URIBEETXEBERRIA

ARRASATE

Aurreko asteetan Asier Elorzak eta Ion Molinak idatzitakoei nire ekarpentxoak egin nahi nieke.

Asierrek esaten duenari kasu eginez, ulertzen dut ez dela izan bere asmoa inor iraintzea. Eta berak gauza polit bat esaten du: "Eta argi geratu dadila ez daukadala ezer goikoaren kontra". Ulertzen dut ez duela ezer Jainko Ama-Aitaren kontra. Eta horrek asko poztu nau. Gaur, Jesusek Asierren gutunak irakurriko balitu, zer erantzungo ote lioke? Gauza bat badakit, maitasun handiz erantzungo liokeela, eta pozik berarekin bazkaltzera gonbidatuko lukeela.

Asierrek esaten duen guztia hor dago, orban asko eta justifikatu ezina justifikatzerik ez dago. Baina Eliza hori baino askoz gehiago da. Eta edertasun asko, maitasunetik egindako eta maitasunezko ekintza ugari ere ikusi dezakegu. Eta niri Elizak lagundu dit altxorra bilatzen; lokatz eta bilgarriz estalia egon arren, altxorra aurkitu dut, altxor preziatua.

Eta orduan, nik Eliza maite dut. Horrek ez du esan nahi gauza asko ez ditudanik kritikatzeko, eta benetan minez, gainera, eta zaila egiten zait askotan, baina garbi daukat Eliza maitatu egin behar dudala, eta, ezer aldatu nahi badut edo berritu, lehenengo, ezagutu eta maitatu egin behar dudala. Nolabaiteko begirada ezkor eta kritika huts gehiegi ikusten ditut Elizari buruz, daukaten objektibitatea ukatu gabe. Nik bestelako Eliza eredu

bat nahi nuke. Baina indar asko daude kontra. Bestelako Eliza hori barrutik berritzea dugu eginkizun, eta maitasunez egitekoa. Uste dut Jesusek horrela nahi duela. Nik gaur Elizari pare bat gauza eskatuko nioke: bat, izan dadila ni bezain narras bat kabitzeko modukoa –nik, zintzoa banintz, izango nuke lekua Elizan?–; eta bigarrena, atera nazala nire narras egoera horretatik pixkanaka eta jaso nazala beste duintasun batera. Asier, zure salaketa zure estiloan baliotsua izan daiteke, eta, eraikitzaile bihurtu nahi baduzu, jarrai lanean egoera aldatzeko. Goikoak maite zaitu eta ez dizu hutsik egingo. Ama-Aita zain duzu.

Eskerrik asko, Naiara Muguruza!

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Bilbon erizain bezala pertsona askoren bizitza goxatu duzu, eta denbora atera boluntario jarduteko beste ospitale batzuetan.

Aurten, Castello de la Planako Unibertsitate Ospitalean laguntzen ibili zara COVID gaixo bati. Juan Francisco Marti larri ingresatu zuten uztailaren 21ean; bere egoera okerrera zihoan, eta erabaki zaila hartu zuen: beste terapia mota bat probatu nahi zuen, bere bizitza salbatzeko azken esfortzu batean, baina zailena gero etorri zen, ospitaleko arduradunek ezetz esan zuten eta. Gaixoaren emaztea, Vanessa Bachero, Francisco de Borja Gomez abokatuarekin harremanetan jarri zen, lehenbailehen auzitara eramateko. ZIUUn zeukan senarra, oso makal, eta ezin zuen beste ospitale batera eraman; lortu zuten epailearen baimena, baina ospitaleak ez zien sartzen uzten. Hala, poliziaren laguntzarekin lortu zuten sartzea, baina ospitaleak ez zien laguntasunik ematen ez, profesional aldetik ezta material aldetik ere. Kanpotik ekarri behar izan zuten dena familiak nahi zuen terapia

burutzeko; pentsatu, une batez, familia hori sufritzen ari zen kalbarioa, eta, artean, ospitaleko arduradunak megafoniatik bultzatzen familiaren kontrako manifestazioak jasan beharra edukitzea.

Oztopoak oztopo, Juan Carlos Perez Olmedok bere terapia egitea lortu zuen boluntario talde baten laguntzarekin; horien artean, gure Naiara: ZIUtik irailaren 3an irten zen eta irailaren 14an etxeratu zen hilzorian zegoen gaixoa.

Uste duzue osasun publiko aldetik baten batek kontuan hartuko duela gertaera hau beste gaixo batzuei helarazteko?

Entzun gaitzatela

IBON LEIBAR BELASTEGI

BERGARA

Aintzane Oiarbidek aurreko asteko GOIENAn idatzi zuena irakurrita, badirudi erasora datorrela bere arte onenekin; intoxikazioarekin eta desinformazioarekin, alegia. Kakaztu dezagun giroa bozka batzuen truke; hortxe bere lema.

Bere zutabea ez du aipatzen Eusko Jaurlaritzaren babes osoarekin etorri dela Bergarara Valogreenen proiektua; hala adierazi zuen telebistan Arantza Tapia sailburuak berak. Ez du aipatzen ezta, Bergaran bizi den EAJko kide moduan, zein jarrera duen errauskailuaren inguruan. Jaurlaritzako bere alderdikideek bezala babesten al du proiektua? Ingurumenean eta osasunean kalteak ekar ditzakeela jakinda ere? Planta hori Larramendin jartzen badute lanpostu asko Bergaratik joan daitezkeela ere badakigu. Zer dio horren aurrean? Nik, esaterako, ez dut nahi horrelako plantarik Bergaran. Berak? Ez dakigu.

Bergarako Udalak bere lanak egin ditu, argi laga du errauskailua Larramendin ezartzeko baldintzak ez direla betetzen. Eusko Jaurlaritza da orain hitz egin behar duena. Zer egingo du aurkeztu diren alegazioen aurrean? Proiektua bertan behera lagako du? Edo,

ingurumeneko eta Bergarako hirigintza araudiei salto eginez, aurrera egiten saiatuko da?

Bergararrok ez dugu behar giroa gaiztotuko duen piromanorik. Informazio ona eta eztabaida serioa da nahi duguna. Eta entzun gaitzatela. Utz dezatela alderdikeria eta bergararroi entzun gaitzatela Eusko Jaurlaritzako eta EAJko buruek.

Larramendiko erraustegiaz

IDOIA LARRAÑAGA DE LA PRESA

BERGARAKO HERRI HEZITZAILEAREN

IZENEAN

BERGARA

Azken hilabeteetan bolo-bolo dabilen gaia da Larramendin jarri nahi duten erraustegia. Eta ez da gutxiagorako, Bergarari eta bergararroi zuzenean eragingo baitigu honek, baita inguruko herri zein herritarrei ere.

Gu arduratuta genbiltzan –eta gaude–, gai oso korapilatsua iruditzen zitzaigun eta informazioa falta zitzaigun talde bezala kontra agertzeko. Hala ere, bagenekien ez zela gure susmo txarretatik asko urruntzen zen egoera, eta azaroaren 10ean Udalak egin zuen bilera irekian zein azaroaren 22rako auzotarrek antolatatu zuten mahai-inguruan gure susmoak berrestu besterik ez da egin.

Herri Hezitzaile taldeak herritar ororen ongizate, autonomia eta garapen globala bilatzen ditu, eta Larramendiko plantak zuzenean eta modu ezkorrean eragingo duela ziur egonik, erraustegiaren kontrako jarrera argi utzi nahi dugu. Osasunaren ikuspegitik ez direlako bermeak betetzen, Bergara eta ingurua kutsatzeko bidea delako, aurkeztutako txostenetan eta emandako azalpenetan informazioa falta delako... Larramendiko plantari ez!

Hemendik aurrera, eta orain arte bezala, ahal dugun heinean herrian antolatzen diren ekintzetara gehituko gara. Eta herritar oro berdina egitera animatzen dugu.



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Eolikoak Irimogainen

Izenburua ez da gustu txarreko broma, e! Duela aste batzuk, bi neska gazte proiektu berezi bat aurkeztera etorri ziren udaletxera. Energia berritzagarrien arloan lanean ari den Capital Energy enpresaren izenean etorri ziren. Azaldu zigutenez, gehienbat, eguzki-energian eta energia eolikoan ari den enpresa da beraiena. Txikian jardun mundu mailan eragiteko! Hori ei da beraien enpresaren nortasun-agiria. Aurkezpen atsegin eta gozo horren ondoren, danbatekoa: "Irimogainen bi aerosorgailu jarri nahi ditugu, bat Antzuolako lurretan eta bestea Urretxuko lurretan". Jakin-minez eta asaldatuta egotearen itxura egin barik: "Non?". "Antzuolari dagokiona lehen tontorrean. Kokapen zehatza bidaliko dizuegu!". "Eta zelakoak izango lirateke?". "Hamalau metroko erradioko plataforma eta 120 metroko altuera".

Eta horrela jarraitu zuten, proiektuaren xehetasunen berri ematen. Tontor guztiak eolikoz beteko ez dituzten arren, nik adierazi nien ez zitzaidala batere gustatzen asmoa, ez nukeela horrelako egitura erraldoi bat ikusi nahiko Irimogainen, eta behin proiektua erregistratu eta aurkezten zutenean geure ahalegin guztia egingo genuela benetan gauzatu ez zedin.

FIGURA BERRIAREKIN, JAURLARITZAK GAITASUNA DU GUNE BABESTU IZAERARI KASURIK EZ EGITEKO

Horren arabera, Jaurlaritzak ahalmena hartzen du edozein azpiegitura, ingurumen-hobekuntza dela erabakitzen badu, IPGPko izendatzeko. Horrek zer esan nahi duen? Ba, guk, antzuolarrok, geure planeamenduan, adibidez, gaitasuna dugula Irimo gune babestua izendatzeko, baina figura berriarekin Jaurlaritzak gaitasuna duela babes horri kasurik ez egiteko. Doazela haizea hartzera!

Oraindik ez da iritsi momentu hori, baina hara non Eusko Jaurlaritza une honetan Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua idazten ari den, eta hor, Lurralde Antolamenduari dagokionez, legea aldatu eta figura berri bat sortu nahi duen: Interes Publiko Goreneko Proiektuak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Ilunabarra

JUNE FERNANDEZ
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Aitortu behar dut mutil hori ez dudala inoiz gustuko izan. Eztiegia, adeitsuuegia, sentiberegia agertzen da beti, berdintasunaren alde gizonaren rola antzezten egongo balitz bezala. Berarekin lan egin duen feminista batek nire susmoak baieztatu dizkit; kontatu dit haren idazkaria izango balitz bezala tratatu duela askotan. Beti hitz goxoekin, baina botere jarrera nabarmenekin. Behin, indarkeria matxisten inguruko jardunaldi batzuetan egin genuen topo; mutil hura zen hizlarien artean gizon

bakarra. Tratu txar emaileak artatzearen inguruko mintzaldia eskaini zuen, eta esango nuke bere diskurtso epelean erasotzaileekiko biktimekiko baino enpatia handiagoa igartzen zela. Ondoren, hizlari zein antolatzaile guztiok elkarrekin bazkaltzera joan ginen. [...] Tartean, gaztea nintzen ni, horrelako kongresuetan hasiberria, eta ohore handia iruditu zitzaidan eskarmentu handiko emakume haiekin mahaiairen bueltan luze hitz egiteko aukera izatea. Gizona, ordea, aspertzen hasia egongo zen, postreak eskatzear geundenean mahaitik altxatu eta zera bota zigulako, betiko doinu melenga horrekin:

"Barkatuko didazue, arren, baina nik joan beharra daukat... ilunabarra begietsi nahi dut eta". Aho bete hortz geratu ginen. Geroztik, genero berdintasunaren alorrean lan egiten duten gizon andanarekin egin dut topo. Askok eta asko konprometituak, zintzoak eta umilak iruditu zaizkit. Baina beste batzuen jarrerak mutil horren ateraldia ekarri didate gogora. Hitz gutxitan esateko, iruditzen zait nork bere pribilegioak onartzearen bide arantzatsuen adierazlea etika feminista izan behar dela, ez estetika kursia. Eskerrak aspaldi ikasi dugun ardiz jantzitako otsoak identifikatzen.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereziibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua


BERBAGAI

"Ibright makina erosi dugu Movember kanpainari esker"

AMAIA ZABALA LETONA BIOLOGIAN DOKTOREA ETA CIC BIOGUNEKO IKERLARIA

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE Movemberreko kideek asteburuan amaitu zuten kanpaina. Eskertuta agertu da ikerketetan diharduen Amaia Zabala (Arrasate, 1976). **Zelan ikusi duzu aurtengo kanpaina?**

Oso ondo joan dela esango nuke. Urtetik urtera geroz eta jende gehiago inplikitzen da, gizartea mailan ere geroz eta gehiago ezagutzen da, eta hori oso garrantzitsua da. Oinarritzko zientzia oso ezezaguna da oraindik, eta asko eskertzen dugu guztien ekarpena. Gure lana urpekari baten irudiarekin aldera daiteke, edo iceberg batekin. Zientzia klinikoa itsasontzia da, eta gu azpian gaude, eta behean lan handia dago. Ikusaraztea garrantzitsua da, erakundeek ere gure proiektuak sostenga ditzaten. **Une honetan zertan diharduzu lanean?** Gure laborategian prostata-minbizian egiten dugu lan. Hiru arlo nagusi ditugu:



Amaia Zabala Letona ikerlari arrasatearra CIC Bioguneko laborategian. JOSU BILBAO

metastasia, zelulen arteko mikroanbientearen azterketa eta metabolismoa. Nik azken horretan dihardut. Aztertzen dut zertan diren bereziak prostata-minbiziaren zelulak, tratamendu hobek

edukitzeko eta bilatzeko diana terapeutiko berriak. **Sendatze-tasa onak ditu minbizi horrek, ezta?** Heriotza-tasa %15-20 da. Minbizi horretan oso garrantzitsuak dira

prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra. Gaixotasuna lehen estadioetan atzematen bada, pronostikoa ona da. Ebakuntza eta erradioterapia egiten dira, eta kasu gehienak ondo joaten dira. Kasuen %15-20 horietan minbizia berriz agertzen da. Hor badaude tratamendu batzuk, baina kasu horiek dira osatzeko konplikazio gehiago dituztenak. Baina berriz diot, pronostiko oso ona du prostata-minbiziak. **Zein faktorek eragiten dute gehien?**

Adina faktore garrantzitsua da. Bizi ohitura osasuntsuak ere bai. Urteak dira prostata-minbiziarekin eta loditasunarekin lotutako ikerketa proiektu bat martxan dugula. Ikusi dugu zelan lodiak diren gaixoak, operatu eta gero, aukera gehiago duten minbizia berriz agertzeko, eta modu erasokorrangoan, gainera. Bizi ohitura osasuntsuak –dieta, jarduera fisikoa... – oso garrantzitsuak dira. **Ikerketa proiektu asko daude martxan?** Gure laborategia nahiko handia da, eta hemen badaude ikerketa proiektu asko, baina dena egiteko dagoen dirua, gure ustez, ez da nahikoa. Zergatik? Kontzientzia falta

dagoelako eta ez delako nahiko diru bideratzen oinarritzko zientziara. Herrialde batzuetatik beste batzuetara alde handiak daude aurrekontuak egiterakoan, eta I+D edo ikerketa zientziara bideratzen diren diru-lerroetan. Zientzialari asko, esaterako, Ameriketako Estatu Batuetara joaten dira. Oraindik falta da, baina gure arloan eta orain gu ondo gaude. **Laborategirako makina berria erosi duzue Movember mugimenduari esker, ezta?** Horrela da. Ibright makina bat erosi dugu. Oso sentsiblea da proteinak ikusteko, eta gure egunerokoan asko errazten digu lana. Hilabete honetan erosi dugu, eta laborategian asko erabiltzen dugu. Mondravemberreko pegatina jarriko diogu. **Zer esango zenieke kanpaina horrekin bat egin duten guztiei?** Mila esker! Jarduera asko egiten dituzte, eta urtetik urtera gehiago, gainera. Bestetik, geroz eta jende gehiagorengana iristen dira, eta hori ere oso garrantzitsua da. Mondravemberreko jendea hasi zen. Orain, Bergarako eta Oñatiko jendea ere batu da, eta uste dut Elorrioren ere sortu dela taldetxoa. Beraz, eskerrik asko denei!

ITURRI ONETIK

Idoia Asurmendi, Gabonetako kontzertuan

Bergarako Gabonetako Kontzertua prestatzen ari dira Orfeoia eta Aritzeta abesbatza eta Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa. Bakoitza bere aldetik aritu ohi dira eta, amaieran, batera. Aurten, ordea, amaierako *Hator hator* eta *Adeste fideles* nola egin aztertzen ari dira. Bai ziurta daiteke Orkestra Sinfonikoak gonbidatu berezia izango duela: Idoia Asurmendi kantari aramaioarra, bere *Viejo refranero* ospetsuarekin. Abenduaren 18an, Udal Pilotalekuan.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-11-27

Eskoriatzako umeek bat Pupu eta Lorerekin

Azaroarekin batera klasiko bihurtu da Eskoriatzan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen etorrera. Aurten ere, joan zen astebururako zeuden iragarrita. Baina bertan behera geratu zen, pailazoen azken orduko gorabeherak tarteko. *Zorionak Marimotots!* eta *Kuikui* –azken lana– dituzte esku artean pailazo euskaldun famatuek. 2010ko hartan, *Ongi etorri Pupu eta Lore* estreinatu zuten lepo bete zen frontoian.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Azken agurra Panpi Ladutxe pilotariari

Eguaztenean zendu zen Azkaineko pilotari handia:

@XabierEuzkitze: "Panpi Ladutxe hil da, pilotaren historia luzean izan den izarrik handienetako bat. Bakean beza atsedean. Ez haugu ahantziko, adiskide".

@aupazabala: "Pilota munduak kolpe gogorra hartu du: Panpi Ladutxe trinketeko eta ezkerparetako pilotari handi izandakoa hil da. Agur eta ohore Panpi!".

@unaisarri: "Ipar Euskal Herrian sekula izandako pertsonaia garrantzitsuenetako batek utzi gaitu: pilotaria, bertsolaria, kantaria, aktorea. Mila esker".



Udal ordezkariak, Ibai-arte ordezkariekin eta Zahara Galan eta Borja Gomez musikariekin, Herriko Plazan. E.A.

Abenduan ere Arrasaten kontsumitzea sustatzeko

Arrasateko Udalak eta Ibai-arte merkatarien elkarteak elkarlanean hilabete osoko egitaraua antolatu dute, arrasatearrek herrian kontsumitzea sustatzeaz gain kaleak bizirik mantentzeko helburuarekin. "Bultzada eman nahi diogu herriari", dio alkateak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken urteetan, hainbat urtez jarri izan dute izotz pista, baita txirrista erraldoia ere. "Iaz, pandemiaren ondorioz, ezin izan genuen ezer jarri, eta aurten Ibai-arte merkatarien elkartearekin elkarlanean egitarau bat osatzea erabaki dugu", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak. "Osasun egoera ona ez den arren, egitaraua aurrera eraman ahal izango dugula uste dugu, segurtasun neurri guztiak zorrotz mantenduta. Gure herriak eta tokiko merkatariek bultzada bat behar dute eta egitarau honek gure kaleak alaituko ditu. Izan ere, gura duguna da arrasatearrek herrian kontsumitzea".

Bea Etxabe Ibai-arte presidentea zera gaineratu du: "Espero dugu herritarren gustuko egitaraua izatea". Halaber, "oso pozik" azaldu da elkarlanerako aukera izateagatik, "Udalarekin zein herriko musikariekin".

Zahara Galan hilaren 20an

Zahara Galan eta Borja Gomez izango dira etxeko musikariak. "Konfinamenduan hasi ginen martxan, eta gure abestiak joko ditugu. Jada hiru abesti propio grabatu ditugu estudioan, eta gogotsu gaude kontzerturako", dio Galanek. Modu akustikoan ariko dira, hilaren 20an, plazan.

Abenduaren 4tik 30erako egitaraua

Hainbat ekintza antolatu dituzte Arrasateko Udalak eta Ibai-arte elkarlanean abendu osorako:

Abenduak 4 eta 5

- **11:30-14:00 eta 17:30-20:00** Biteri plazan, jolas parkea: puzgarri erako txirrista, puzgarri jauzilaria, bola zoroak eta abentura zirkuitua tirolinarekin.

Abenduak 11

- **12:00-14:00** Herriko kaleetan, Zirkun Zirkoa: malabaristak, akrobatikak, orekariak eta abar.
- **19:00** Herriko kaleetan, *A-TA-KA* ikuskizuna. "Zerua beren koreografiarekin eraldatzen eta argitzen duten izaki hegalarien ikuskizuna".

Abenduak 11 eta 12

- **11:30-14:00 eta 17:30-20:00** Biteri plazan, jolas parkea: puzgarri jauzilaria, *Army* oztopo pista, sistema interaktiboa...

Abenduak 17

- **19:00** Arbolapetan, William Rodriguezen emanaldia, modu akustikoan –Arrasate Blues jaialdian aritutakoa da–.

Abenduak 19

- **11:30-14:00 eta 17:30-20:00** Biteri plazan, jolas parkea: puzgarri erako txirrista, puzgarri jauzilaria, *jumping*-a...

Abenduak 20

- **19:15** Herriko Plazan, Zahara Galan eta Borja Gomez –musika akustikoa–. Ondoren, Gabonetako 50 otarren banaketa.

Abenduak 28, 29 eta 30

- **11:30-14:00 eta 17:30-20:00** Biteri plazan: eski simulagailua, abentura zirkuitua tirolinarekin...

Bihar, zapatua, jarriko dute martxan TAO sistema herrian

Bi hilabeteko probaldia jarriko dute martxan, eta, hain zuzen ere, epealdi horretan ez dute isunik jarriko

Ainhoa Arana ARRASATE

Bihartik aurrera martxan izango da TAO zerbitzu berria, bi hilabeteko probaldiarekin. Helburua herritarrek zerbitzu berria ezagutzea, bere egitea eta aparkaleku motak lokalizatzea izango da. Epealdi hori sisteman beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko baliatuko dute. Gainera, OTako langile zerbitzua ere bihartik aurrera jarriko da abian, eta herritarren zalantzak argituko dituzte.

Bestalde, gaurtik egongo da martxan aparkatzea baimenduko duen aplikazioa, *Arinpark*.

Horri esker, erabiltzaileak makinara hurbildu gabe ordain dezake, eta gero, epea pasatzen zaionean, dagoen tokitik luzatu dezake. Horrez gain, ez da beharrezkoa txartela autoan uztea.

"Aurrera jarraituko dugu"

TAO sistemaren aurka batu dituzten 3.782 sinaduren gainean galdetuta, Udal Gobernuak dio aurrera jarraituko dutela. "Errespetatzen ditugu sinadurak, baina aurrera egingo dugu, eta, sistema martxan jarri ahala, egin beharreko moldaketak egingo ditugu".



TAO arruntaren seinalea Otorra Lizentziaduna kalean. E.A.

Erakusleihenaz gain, Leiho eta Balkoi Lehiaketa ere bai aurten

Establezimenduen abenduaren 12a baino lehen eman behar dute izena; herritarrek, hilaren 19a baino lehen

E.A. ARRASATE

Establezimenduen erakusleihenak abenduaren 13tik urtarrilaren 6ra arte egon beharko dute apainduta, gutxienez. Ohiko establezimenduez gain, gainerako komertzio guztiei parte hartzeko gonbita egin die Arrasateko Udalak, "bereziki zerbitzuei eta ostalariei". Halaber, erakusleihenak ez dituzten komertzioen kasuan, barneko apainketa hartuko du kontuan epaimahaiak. Herritarrek abenduaren 13tik 19ra bitartean eman ahaliko dute botoa, Herritarren Saria eta

Haur eta Gazteen Saria erabakitzeko.

Sariei dagokienez, lehenengoa 600 eurokoa izango da; bigarrena, 400 eurokoa; hirugarrena, 300 eurokoa; laugarrena, 200 eurokoa; Herritarren Saria, 300 eurokoa; eta Haur eta Gazteen Saria, 300 eurokoa –plaka bat ere emango diete guztiei–. Balkoi eta Leiho Lehiaketan 300 euroko sari nagusi bat egongo da.

Establezimenduen zein herritarrek BAZen eta *Arrasate.eus*-en eman beharko dute izena bi lehiaketetan parte hartzeko.

Zebra-bide adimenduna, Gipuzkoako lehenengoa

Udal Gobernuak adierazi duenez, elkarren artean konektatutako hamabi argi-plaka jarriko dituzte Uarkape frontoiaren eta Kulturateren arteko zebra-bidean, Otalora Lizentziaduna kalean; halako zebra-biderik ez dago Gipuzkoan, lehenengoa izango da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalean jarriko duten zebra-bide adimendunak "bide-segurtasuna indartzea" izango du helburu, Udal Gobernuak azpimarratu duenez. Elkarren artean konektatuta egongo diren hamabi argi-plaka jarriko dituzte zebra-bidean, eta sentsoreekin aktibatuko dira oinezkoek errepeidea gurutzatzen dutenean.

Aipatutakoaz gain, beste hamar zebra-bideren argiztapena hobetu nahi du Udal Gobernuak agintaldi honetan: "Zirkulaziorik handieneko eremuetan, jende asko biltzen duten merkataritzako eta aisialdiko ekipamendu edo establezimenduen hurbiltasunagatik". Hasteko, esan moduan, Otalora Lizentziaduna kalean jarriko dute pasabide adimenduna; Kulturate eta Uarkape artekoan, zehazki. Victoriano Fuentesek, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotziak, zera adierazi du: "Ze-

bra-bideen argiztapena hobetzeko ekintza batzuk garatzen ari gara eta hainbat zebra-bidetan argiztapena indartzea planifikatu dugu".

"Askoz seguruagoa" da

Lurrean jarriko dituzten hamabi plakek led argiteria sistematikoa seinaleak izango dituzte. Gainera, zinegotziaren esanetan, zebra-bide horiek ohikoak baino askoz ere seguruagoak dira eta "asko" murrizten dute istripu kopurua; batez ere, oinezkoak harrapatzeko arriskua. "Oinezkoentzako herri seguru bilakatzeko bidean beste pauso bat izango da hau".

8.479 euroko inbertsioa

Arrasateko Udalak Interlight enpresari esleitu dizkio lan horiek, eta esan du "argiztapen bereziak instalatzen esperientzia duen" enpresa dela. Hala, 8.479,856 euroko inbertsioa egingo du Udalak -BEZik gabe-.



Victoriano Fuentes zinegotzia, argi-plakak jarriko dituzten zebra-bidean. A.U.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Erabakitzeko eskubidea!

Urtebete igaro da 2020ko Gabonak eta COVID-19aren pandemia aipatzen zituen artikulua bat idatzi nuenetik. Urte hartan, txertaketa masiboekin -eta ez hain masiboekin-, bazirudien kontrolatutako gaia genuela, baina ez; hiru, lau, bost eta seigarren olaturaino heldu gara. Eta leku berean jarraitzen dugu: Gabonak bertan eta kutsatuak gora. Egia da, orain, txertoa hartu dutenak askoz gehiago direla, baina ez dira denak, eta zerbait egin beharko da, gure ospitaleetako egoerak gero eta okerrago baitaude, gero eta jende gehiago baitago ospitaleratuta. Eta ospitaleratuta dauden gehienak oraindik ez daude txertatuta, ze kasualitate. Guztiok ditugu eskubideak eta betebeharrak, baina non geratzen da ez kutsatzeko eskubidea -txertatu gabeek lau aldiz gehiago kutsatzen dute- ez txertatzeko eskubidearen aurrean? Zer egin dezakegu egoera hori aldatzeko? Gabonetan, zein familiak ez du nahi senideekin eta ingurukoekin ospatzea? Izan gaitezen arduratsuak.

Dena den, eta egiten duguna egiten dugula, Eguberri zoriontsuak eta urte berri oparoa opa dizkizuet.

Gabonetako 50 otarreren zozketa



Zozketan parte hartzeko, atera argazki bat erosketa-tiketari eta bidali 688 73 41 49 ra



Sari banaketa:
Abenduaren 20an Herriko Plazan. 19:00



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON



Enaketa, argia eta, bizi onak

ELKARTEA **GOBERNO VASCO**

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak, 25 urte

Hiesaren Aurkako Nazioarteko Egunean ospatu zuten 25. urteurrena, hilaren 1ean. Hain zuzen, Biteri plazan karpa bat jarri zuten, eta, herritarrek sexualitatearen inguruan informatzeaz gain, haurrentzako eta helduentzako ekintzak antolatu zituzten

Ainhoa Arana ARRASATE

Abenduaren 1a Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, urtero legez, Arrasateko Sexologia Zerbitzuko kideak kalera irten dira, herritarrek gai horren inguruan informatu guran. Aurtengoa berezia izan da, zerbitzu horrek 25 urte baititu. Urtero ekitaldi xume bat antolatzen dute Biteri plazan egun horretan, eta aurtan, herritarrentzako mezu argia idatzi dute: *Zenbat dakizu sexualitateari buruz?*

Azken 25 urteetan gauzak asko aldatu badira ere oraindik sexualitatearen inguruan tabu bat dagoela adierazi du Aritz Resinesek, Arrasateko Sexologia Zerbitzuko arduradunak. Aurtan, urteurrenaren baitan, gazteen-tzako eta helduentzako ekintzak, jolasak, erronkak eta sariak prestatu dituzte, eta horietako bat sexualitatearen inguruko inkesta bat izan da. Herritarren jakintza maila ikusi nahi dute, eta, Resinesek adierazi duenez, gazteek helduek baino hobeto erantzun ditzakete galderak. Gai honen inguruan gizartetik jasotzen den begirada oso motza eta estua dela dio Arrasateko Sexologia Zerbitzuko arduradunak, eta horrek sufrimendu asko eragiten duela. Gai oso serioa da sexualitatearena, eta, gaur egun, oraindik, txantxak edo iruzkin harroputzak egiteko erabiltzen da. Geografia ere aintzat hartu behar da pertsonaren izaeran, eta, Resinesek nabarmendu duenez, Euskal Herrian lotsatiagoak gara, alde horretatik. Arrasateko Sexologia Zerbitzuko ateak herritarrentzat zabalik daudela azpimarratu dute, laguntzeko prest daudela beti, eta hara joaten herritarrek ez direla damutuko. Aste honetan Dorleta Kortazarrek *Igo autobusera* saioan azaldu duenez, sexualitatearen inguruko informazioa helaraztea, gaixotasunen aurkako prebentzioa, heziketa



Sexologia Zerbitzuko kideak Biteriko karpan. IMANOL BELOKI

"SEXUALITATEA GAZTETATIK LANDU BEHAR DA JAIOTZETIK BAITAUKAGU BEHARRA"

sexuala eta identitate anitzak plazaratzea dira zerbitzuaren helburu nagusiak.

Aldarrikapenak

Gizarteak Sexologia Zerbitzura joateko bultzada bat behar du, eta Arrasateko Sexologia Zerbitzukoek argi daukate: pertsona orok bere bidea egin eta jarraitu behar du. "Duela urte batzuetako ereduak jarraituz gero, denok izan beharko genuke heterosexualak, denok ezkondu beharko genuke edo guraso izan beharko genuke, eta ez da beharrezkoa". Gizarteak hori egitera bultzatu izan du, baina gaur egun hau ere aldatzen doa, eta nork bere bidea hartu behar duela diote. Aurtengo ikasturtean berebiziko esfortzua egin dute ikastetxeetako elkarlana bultzatzeko; hau da, ikastetxeetan sexualitatearen inguruko gaiak

behar diren bezala landu ditzaten: "DBHko eta batxilergoko ikasleekin modu oso puntualan landu izan dituzten gaiak dira, baina aurtan Udaletik ere konurtatu dira askoz gazteagotatik hasi behar dugula gai hauen inguruan eragiten, beharra jaiotzen garenetik daukagula, eta hori indartu nahi da. Poliki-poliki ikasleekin lan egiteko adinaren muga jaisten ari da eta ikasturte honetan lehen hezkuntzaraino jaitsi da".

Bulegoko zerbitzua astelehen goizetan 10:00etatik 13:00etara eta ostegun arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara bitartean izan ohi da, baina, alde aurretik hitzordua eskatzen bada, ordutegi horretatik kanpo ere eman dezakete zerbitzua. Horrez gain, Arrasateko Sexologia Zerbitzuarekin harremanetan jarri nahi izanez gero bide asko daudela azpimarratu du Resinesek: "Bulegoaz gain, Whatsapp zenbakia, posta elektronikoa, sare sozialak eta telefono zenbaki bat daukagu". Gazte Bulegoaren gainean egon arren, zerbitzu orokorra da, adin guztietako herritarrei bideratutakoa, eta doakoa, gainera.



Arrasateko ikasleak Kulturateko erakusketan. GOIENA

Bukatu da azaro osoan izan den Ez Donk Amaitu ekimena

Balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek eta eskerrak eman dizkiete ekimena posible egin dutenei

Ainhoa Arana ARRASATE

Urriaren 28an jarri zuten mar-txa Ez Donk Amaitu ekimena eta aste honetan eman diote amaiera. Punka oinarri hartuta, 1980ko hamarkadako Arrasate-ra bidaia eskaini dute antolatzaileek, eta egitarauak arrakastaria izan da. "Harrigarria izan da jendearen erantzun baikorra", adierazi dute antolatzaileek; izan ere, erakusketak interes handia sortu du Arrasaten eta bailaran.

500 pertsona inguru pasatu dira Biona taberna zenetik bi asteburutan, eta Kulturateko

erakusketatik 200 ikasle inguru. Bertaratutako guztiek harritu dituen zerbait aurkitu dutela diote. Bestalde, kontzertuek, dokumentalek eta mahai-inguruek ere harrera paregabea izan dutela nabarmendu dute.

Oso eskertuta

Ez Donk Amaitu ekimenekoek eskerrak eman nahi dizkiete Udaleko Kultura Sailari, Udall Bibliotekako langileei, materiala batzen edo espazioa erabiltzen lagundu dieten eragileei eta baita kamisetak erosten finantzaketan lagundu dietenei ere.

Gabonetako 50 otarre zozkatuko ditu Ibai-arte elkarteak

Abenduaren 20an banatuko dituzte otarreak, eta arratsaldeko zazpitan hasiko den ekitaldia

Ainhoa Arana ARRASATE

Kalitatezko produktuekin osatutako otarreak izango dira, eta aurtan, Aspaceko erabiltzaileek egindako saskietan banatuko dituzte produktuak. Tradizio onen aldekoak direla diote elkarteak kideek, baita merkataritza solidarioa eta jasangarrien aldekoak; horregatik, hain zuzen ere, egin dute lan Aspacerekin.

Otarreak Sustrai Fruta Dendak osatuko ditu, eta, besteak beste, anana natural bat, Fruitess Font errege-sagarra, Nafarroako artisau-pikillo estra eta Antonio

Anaut polboroiak izango ditu. Parte hartzeko bi bide egongo dira: lehena, herrian bertan Arrasate txartelarekin erosketak egin, erosketa-txartelari argazkia atera eta 688 73 41 49 Whatsapp zenbakira bidali; bigarrena, sare sozialen bitartez. Ibai-arteak Instagram eta Facebook kontuetan zozketaren inguruko argitalpena partekatu dute. Kontu horiek jarraitu behar dira, zozketako argitalpena sare sozialetan partekatu eta *Gabonetako otzara bat nahi dut* idatzi behar da iruzkinetan.

Maila berriari ondo hartu dio neurria Mondratek

Arrasateko taldeak maila nazionalen jokatu dituen hamaika partiduetatik sei irabazi egin ditu. Pozik daude orain artekoarekin, nahiz eta akats batzuk garesti ordaindu dituzten. Santurtzi hartuko dute bihar, gotorleku bilakatu den Musakolako kantuan

Xabier Urzelai ARRASATE

Hamaika jardunaldi nahikoa dira kategoria berriari tenperatura hartzeko, eta Mondratek ondo gaintu du aurreneko azterketa; lehen itzulia amaitzeko sei jardunaldi geratzen dira. Otxandianoren mutilek sendo jarraitzen dute, bereziki Musakolan, eta beheko postuengatik urduritu beharrean goiko postuengatik lehiatzeko moduko taldea daukatela erakutsi dute; oraingoz. "Kanpoan hobetu egin behar dugu, hori da egiteko dugun gauzetako bat", dio taldeko jokalaririk Igor Murgoitio.

Eta ez zaio arrazoirik falta: lortu dituzten sei garaipenetatik bost etxean izan dira: "Deno gertatzen zaigu gauza bera: indarrak horren parekatuta dauden maila honetan etxean erosoago sentitzen garela, eta ez da soilik harmailetan zaleak alde edo kontrari izaten direlako. Duela bi urteko denboraldiaren antza hartzen dabil hau, eta iaz ere oso partidu gutxi galdu genituen etxean". Aurrean ibili gura duenak, baina, etxeko puntuekin ez du nahikoa: "Kanpoan ere ezuste bat edo beste emateko puntuan egon gara, baina oso zaila da. Hori da hobetu behar dugun gauzetako bat".

Santurtzi, bihar, etxean

Zapatuan (17:00) konfort-gunean izango dira, saiklapeneko azken postuetan dauden santurtziarren bisita izango dute Musakolan: "Irabazteko partidua da, ez dago aitzakiarik. Baina ez da askorik behar partidua txarto hasteko, akatsen bat egiteko... Horregatik, nahiz eta atzealdean dagoen taldea den, errespetu osoz joan behar dugu partidura, eta psikologikoki prestatuta. Garbi dago dauden tokian egoteko zerbait ari direla txarto egiten [Partidu bakarra irabazi dute], baina halako partidua arriskuak izaten dira".



Mondrateko kideak, lehia hasi aurretik, artxibo irudian. GOIENA

"Ikusi dugu kontrarioek ez dituztela akatsak barkatzen"

IGOR MURGOITIO MONDRATEKO JOKALARIA

Kategoria berrian jokatu dituzten hamaika jardunaldi hauetan egindakoarekin pozik daude Mondrateko kideak. Iritsi berriak dira, eta, hala ere, zazpigarren daude saiklapen orokorrean —hamazazpi talde dira, guztira—. Gorago egoteko merituak ere egin dituzte, baina ikasgai gogorrak izan dituzte.

Zer moduz ari zarete?

Ondo, pozik gaude. Lortu dugu gazteen eta beteranoen artean oreka izatea eta orain arteko partidu guztietan lehiakorrak izan gara, baita galdu dugun horietan ere.

Hori garrantzitsua da, galduta ere ginetik pasa diren sentsazioak ez izatea...

Partidu bakarrean igarri nuen kontrarioa gu baino dezente hobe zela bai fisikoki eta baita taktikoki ere. Antiguoko



GOIENA

izan zen, baina ez daude gu baino askoz gorago saiklapenean. **Izan ere, goiko horien kontra irabazteko puntuan egon zarete sarritan.** Gernika mendean hartu genuen, lider dagoen Afantxoren kontra 0-2 irabazten hasi ginen... Baina ikusi dugu hemen kontrarioek ez dutela akats txikiak ere barkatzen. Aurten gauza asko egin behar dira ondo partidu bat irabazteko.

Etxean indartsu dagoen MUK Venta de Baños hartuko du etzi

Arrasatearrak kanpoan ari dira barkatzen, baina Iturripen nagusitasun handiagoa erakusten dabilta

X.U. ARRASATE

Etetik kanpora jokaturako azken bi jardunaldietan galdu eta gero —Nissan Grupo de Santiago (101-88) eta LBC Cocinas.com (98-65) taldeen kontra—, Mondragon Unibertsitateak garaipena behar du aurrealdeko postuen lehian jarraitu ahal izateko. Etxean indartsu daude Eneko Mataren mutilak, partidu bakarra galdu dute; izan ere, Easoren kontra lehenengo jardunaldian izandako porrota (79-86) istripua baino ez zen izan. Kontrarioa, Benta de Baños, etxean irabaztetik dator, baina ez da ligako talde indartsuena, ezta gutxiago ere. Iturripen neurtuko dituzte indarrak, domekan (18:30).

Emakumezkoek, atsedena

Emakumezkoen bigarren mailan, aurreko zortzi jardunaldiak irabazi eta gero, Mondragon Uni-



Balanzategi, saskiratzea egiten. GOIENA

bertsitateko neskek ligako lehenengo partidua galdu zuten joan den domekan (69-79). Halako porrotak ahazteko lehenbailehen jokatzeko izaten da onena, baina astebetez atsedena hartu beharko dute, oraingo asteburuan zubia dute eta.

Eskubaloikoek Neguko Campusa egingo du aurten ere

Arrasate Eskubaloien Elkarteak zabaldu dute Neguko Campuseko izen-ematea. Lehenengo txanda abenduaren 27tik 30era egingo dute eta bigarrena urtarriaren, 3tik 5era, 10:00etatik 13:00etara. 2008tik 2013ra bitartean jaiotakoei zuzenduta dago. Informazio gehiago, aeb@arrasateeskubaloi.eus helbidean edota 619 67 26 96 zenbakian.



Irudian, Udako Campusa. GOIENA

Izena eman daiteke jada Ointxe!-ko campusean

Ointxe!-k Gabonetako campusa antolatu du 2006etik 2013ra bitartean jaiotakoendako. Bi txanda egingo dituzte: abenduaren 27tik 31ra eta urtarriaren 3tik 5era. Lehenengo txandan izena emateko 60 euro ordaindu beharko dituzte; bigarren txandarako, 50 euro. Izena emateko, idatzi kirolzu-zendaria@ointxe.eus helbidera.

Atsedena errugbiko eta eskubaloiko taldeendako

Abenduaren 12ko asteburuan Mugarri Ingouren eta Fagor Industrialen arteko derbia izango da Iturripen, eta, partidu hori prestatzeko, taldeek bi aste izango dituzte, asteburuan zubiaz gozatu ahal izango dutelako. Egoera berean daude, errugbian, Kanpanzar Arrasateko senior mailako mutilak, eta baita emakumezkoen taldea ere.

Euri-jasen pare jarriko dira akordeoi doinuak

Bihartik astelehenera egingo den Arrasate Hiria Nazioarteko Txapelketan punta-puntako sei soinu-jole arituko dira, Gipuzkoako Lehiaketan 28 eta Gipuzkoako Jaialdian 146. Antolatzaileek gogoz hartu dute iaz egin ezin izan zuten ekitaldia

Hasier Larrea ARRASATE

Dagoeneko 27 aldiz egin dute Hauspoz elkarteak antolatzen duen Arrasateko Akordeoi Lehiaketa; esperientzia handia izanagatik, 28.a aurrera ateratzeko zailtasunekin topo egin dute enkontruaren sustatzaileek, baina, hala eta guztiz ere, gogotsu heldu diote egitekoari. "Iazkoa bertan behera geratzearen albiste penaz jaso genuen; horregatik, oso garrantzitsua zen guretzat aurten lehiaketa berriz ere antolatzea", adierazi du Maria Zubimendik, Hauspoz elkarteko kideak.

Oholtza ginean zein kanpoan

Egiteko horretan ez dira bakarrik egon, Arrasateko Udalaren, Arizmendi ikastolaren eta herriko elkarte gastronomikoen taldearen –SUDC– babesa izan baitute une oro. Beraiei eta "herrian egoten den giroari" egotzi dio Zubimendik kanpoko zein tokiko akordeoi-joleek Arrasatera etortzeko izan ohi duten prestutasuna: "Lehiaketa honek baditu bi desberdintasun: bata, maila ikaragarriko musikariak etortzen direla; eta bestea, sortzen den epeltasuna".

Izan ere, partaideek elkar eza-gutzeko aukera izaten dute ohol-tzatik kanpo, elkarte gastronomikoetan otorduak egin eta euskal kultura ezagutzeko tarteak izaten dutelako: "Horrek atentzioa ematen die; agian, Euskal Herriatik kanpo ez dutelako halakorik egiten".

Pandemiaren arrastoa

Aurtengo aldiak ez du herri-kutsu hori galduko, baina osagai batzuk faltako zaizkio; nazioarteko partaide gehiago, esaterako. Hasiera batean, hamar musikari ziren Nazioarteko Txapelketan lehiatzekoak, baina, azkenean, sei izango dira: Bielorrusiako, Santanderko eta Txinako bana eta Poloniako hiru.

Horrez gain, ikusleen artean distantziak errespetatzea eta maskara jartzea derrigorrezkoa izango da: "Badakigu ezin dugula egoera ehuneko ehunetan kontrolatu, baina protokoloa, gutxienez, zainduko dugu".

Zubimendik gogoratu du lehiaketak ikusteko ez dela sarrerarik aurrez eskatu behar; bai, ordea, sari banaketarako. Amaierako gala hori astelehenean, 19:00etan hasita, izango da, Amaia antzokian.

Musikariak protagonista

Esan bezala, hango eta hementxo soinu-joleen elkargunea izango da Arrasate, hiru multzo nagusitan sailkatutako txapelketan.

Gipuzkoako sariketari dagokionez, haur mailakoek, gazte mailakoek eta seniorrek hartuko dute parte hiru egunez,

AMAIA ANTZOKIA, KULTURATE ETA FERIXALEKUA IZANGO DIRA JAIALDIAREN AGERTOKIAK



Radu Ratoi, 2019ko irabazlea, Amaia antzokian. GOIENA

bai Amaia antzokian eta baita Kulturaten ere.

Gipuzkoako jaialdia, berriz, bi areto horietan eta Arizmendi ikastolan, Ferixalekuan, izango da. Gazteenek izango dute azken hilabeteetan ikasitako piezak aurkezteko aukera.

Eta sona handiena duen lehiaketako partaideak, nazioartekoak, hain zuzen, Amaia antzokian arituko dira aurrez aurre. Horiek epaitzen arituko da Iñaki Alberdi aditua, Japoniatik, Norvegiatik, Finlandiatik eta Serbiatik etorriko diren epaileekin batera.

Antolatzaileek nabarmendu dute harrobiko soinu-joleentzat hitzordu garrantzitsua izaten dela udazkeneko hau, baita emakumeak gero eta gehiago animatzen direla ere: "Lehia nagusiko sei musikarietatik hiru dira emakumezkoak".

Arrasate Hiria borobiltzeko, azkenik, 2019an txapela jantzi zuen Radu Ratoi moldaviarrak hiru kontzertu emango ditu: lehena, bihar bertan Kulturaten; bigarrena, domekan Aretxabaletako Arkupe aretoan; eta, azkenik, astelehenean Aita Menni ospitalean.

"Euskal txertoaren aurkikuntza kontatzen du 'Serendipia'-k"

IBAN DEL CAMPO ZINEMA ZUZENDARIA

Euskal Zine Bileran saritu berri dute haren film laburra

H.L. ARRASATE

Zineuskadiren *Itxitik* deialdiari esker zuzendu eta ekoiztu du Iban Del Campok (Arrasate, 1971) *Serendipia*; 2020ko abenduan grabatu ostean, banaketa fasean dago orain murgilduta.

Lekeition Urrezko Antzarra irabazi izana harrera ona izaten ari den seinale izango da, ezta?

Zalantzarik gabe. Epaileek istorioaren koherentzia nabarmendu dute, eta hori, grabaketa beti kaosa izaten dela kontuan hartuta, oso pozgarria da.

Zer kontatzen du *Serendipia*-k?

Euskal txertoa aurkitzen duen biologo baten ikerketa-prozesua. Amancay Gaztañagak gorpuzten duen zientzialariak bere metodo propioak baliatzen ditu; izan ere, izenburuak esan nahi du zerbaiten bila joan eta beste zerbaitekin topo egitea. Paraleloki, zuzendari hori gertatzen zaigu, sarri, grabatzera joaten garenean.

Filma ikusi dutenek ze iritzi partekatu dute?

Ez genion ikusleari dena eginda eman nahi, interpretazio librea sustatu nahi genuen. Uste dut hori lortu dugula, denetik esan digutelako; batzuek zientzia fikzioarekin lotzen dute, beste batzuek umorearekin... Polita da hori, harritu egiten zaituztelako irakurketek. Denak dira interesgarriak, eta esan gabe doa behin pelikula eginda ikuslearen jabetzara pasatzen dela.

Noiz eta non egongo da ikusteko aukera aurrerantzean?



Del Campo, grabaketan. LIMBUS FILMAK

Zapatu honetan bertan Durangoko Azokan aurkeztuko dugu, Irudienan, 13:00etan. Jende desberdinarengana hurbiltzeko parada emango digu hitzordu horrek. Bestalde, martxotik aurrera EITBn jarriko dute ikusgai, baita webgunean ere, pandemia heldu zenetik bi urte beteko direlako orduan.

Pandemiaren testuinguruarekin zeharo lotuta baitago proiektua...

Konfinamenduan Eusko Jaurlaritzak laguntza berezi batzuk argitaratu zituen ikus-entzunezko sektoreari begira. Zazpi film labor finantzatu zituen; tartean, *Serendipia*.

Normalean, zuzendari, baina oraingoan ekoizle ere izan zara. Zer moduz?

Neure buruarekin eztabaidatu behar izan dut, baina errazagoa izan zait ze plano grabatu dezakedan eta zer ez erabakitzea.

Hari-orkestraren emanaldia gaur San Frantzisko elizan

Joan den asteburuan bezala, asteburu honetan ere Arrasate Musikaleko kideen oholtza bilakatuko da Seber Altubeko elizaren aldea. Gaur, 20:00etan hasita, musika eskolako hari-orkestra sinfonikoak emango du kontzertua, Iker Olazabalen gidaritzapean. Hala, bost pieza zuzenean entzuteko moduan izango dira herritarrak.

Hurrengo Kooltur Ekintzaren hitzordua, Arimaren eskutik

Paule Bilbao musikaria buru duen hirukoteak *Biluztasunez jantzita* eta *Metamorphosis* lanak kaleratu ditu 2019an formazioa osatu zutenetik. Shoegazearen, post-rockaren eta post-punkaren bueltan aritzen dira, Ama Say taldeko bateria-jole izandako Gontzal Bilbaoren erritmoari jarraituz. Hilaren 9an, 22:00etan, gaztetxean joko dute.

Euskarak arnas berria izateko lanean dihardute

Euskararen Eguna ospatzeko kalera irtengo dira gaur eskolako umeak eta erretiratuak. 'Herria kantuz' ekimena egingo dute goizean zehar. Horrez gain, 'Miñan' liburuaren aurkezpena eta antzerki emanaldia antolatu dituzte abendurako

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Euskararen Nazioarteko Eguna da gaur, barikua. Udaleko Euskara Sailak eta herriko zenbait eragilek hainbat ekintza antolatu dituzte gaurko eguna ospatzeko. Eskolan, esaterako, Euskararen Eguna ospatuko dute: goizean zehar, *Herria kantuz* ekimena egingo dute eskolako umeek, Alaiak erretiratuaren elkarteko abesbatzarekin eta Egu-neko Zentroko nagusiekin. *Aramaixoko koplak*, *Guk euskaraz zuk zergatik ez*, *Haurrek ikas zazue* eta *Iarandu iya* abestiak abestuko dituzte. 11:00etan izango da ekitaldia, herriko plazan eta goiko tabernen inguruan. Horrez gain, egunean zehar, euskara suspertzeko leloak asmatu eta idatzizko dituzte leihoe-tan zintzilikatzeko. Arratsaldean, eskolako patioan, *Ahoa bizi belarria prest* eta *Euskaraz bizi nahi dut* abestiak kantatu eta dantzatzeko dituzte.

Liburu aurkezpena

Euskararen Eguneko ekitaldiak antolatzerakoan *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena izan dute kontuan Euskara Sailekoek. "Ekimen hori kontuan hartuta eguaztenean egin zen *Jolas molaz* maratoia antolatu genuen", azaldu du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak. Bai nagusiek eta baita umeek ere euskarazko mahai jolasak ezagutzeko tailerra izan zen.

Ongizate Sailekoekin elkarlanean, migratzaileak eta euskaldunak ardatz dituen *Miñan* liburuaren aurkezpena antolatu dute. Abenduaren 9an izango da, eguna, 19:00etan, kultura etxean. Edukiera bete arte sartu ahal izango da jendea, eta Osasun Sailak ezarritako neurriak eta baldintzak bete beharko dira. Amets Arzallus bertsolaria eta idazlea Aramaion izango da *Miñan* liburuaren aurkezten eta liburuaren inguruan solasean.



Balde eta Arzallus, *Miñan* liburuarekin; Arzallus Aramaion izango da. GOIENA

'Euskara lanabes, aro berrira'

Aramaioiko udalbatzak *Euskara lanabes, aro berrira* adierazpena onartu zuen azaroko ohiko osoko bilkuran. Erabilera eremu berri eta ez formaletan ere "euskarak arnas berri" izan behar duela aldarrikatzen du adierazpenak. "Pandemiaren aurretiko tokira, edo hobera iristeko itxaropenean, ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu, ezta euskara ere", dio, eta jarraitzen du: "Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez-formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena".

Antzerkia: 'Eta kittorik ez!'

"Urtero antolatzen ditugun ekitaldiak aurten ere izango ditugu: besteak beste, antzerkia eta bikoizketa lehiaketa", dio Mondragonek. Hala, abenduaren 18an, zapatua, *Eta kittorik ez!* antzerkia egingo dute, 19:30ean. Ane Gebara eta Josune Velez de Mendizabal dira aktoreak. Bi ahizparen arteko istorioak eta sekretuak kontatuko dituzte.

Bikoizketa lehiaketa

Abenduaren 17an, barikua, bikoizketa lehiaketa egingo

dute: "Hirugarren aldiz egingo dugu. Umeei, nerabeei eta helduei zuzendutako lehiaketa da". Kultura etxean izango da, eta, orain arteko ekitaldiekin alderatuta, berrikuntza txiki batzuk izango ditu; izan ere, ikus-entzunezko pasarteetan aukera zabalagoa egongo da. Gainera, eskolako umeek Iurgi Etxebarriarekin bikoizketa tailerra egingo dute abenduaren 14an eta 15ean.

Mondragonek nabarmendu du ekitaldiok indarrak hartu nahi dituztela hurrengo urteko Euskaraldirako.

Udal eraikinen garbiketa esleitu dute hurrengo bi urteetarako

Indarkeria matxistaren aurkako mozioa eta lurralde antolamenduari buruzkoa ere onartu zuten egunean

A.E.G. ARAMAIO

Eguenean, azaroko ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak. Besteak beste, udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena onartu zuten. Lehiaketara bi enpresa aurkeztu ziren; hala, Udalbatzak Samsic enpresari esleitu dio zerbitzua, hurrengo bi urteetarako. Kontratuaren prezioa izango da 65.741,76 euro urteko, gehi %21eko BEZari dagozkion 13.805,77 euro: hau da, guztira, 79.547,53 euro urteko. Epealdia urtebete gehiago luzatzeko aukera egongo da.

Mozioak

Indarkeria matxistaren aurkako adierazpena ere onartu zuten. EH Bilduk Udaleko teknikariak idatzitakoa aurkeztu zuen, eta EAJk Eudelena. Eta EH Bildurena onartu zuten, aldeko sei botorekin eta bi abstentziorekin.

Hartutako konpromisoak dira: Udalak antolatutako ekintzetan genero ikuspegia txertatzea; indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzen eta detektatzen dituzten zerbitzuen arreta eta koordinazioa hobetzea; eraildako edo bizirik irten diren emakumeak aitortzeko memoria historikoko ekintzak sustatzea; eta herritarrek eta, bereziki, gazteak sentsibilizatze lanarekin jarraitzea.

Interes publiko goreneko proiektuen erregulazioari dagokionez EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuten, aldeko sei botorekin eta kontrako birekin. Ondorengo adierazi dute: lurralde antolamenduari buruzko interes publiko goreneko proiektuaren aurka daude; Eudeli eskatzen diote udalen udal-interesa defendatzeko; eta mozioa Legebiltzarri eta Eudeli bidaltzea.

Bertan behera utzitako emanaldiak, bihar eta etzi

Joan den astean egitekoak ziren *Haziaraba in the mapping* ekimeneko hainbat ekitaldi bertan behera geratu ziren eguraldi iragarpenagatik. Hori horrela, zapatuan eta domekan egingo dituzte: bihar, zapatua, *Kulunka* musika emanaldia egingo dute, 18:00etan; eta domekan, *Leihoak* ikuskizuna, 18:00etan. Kultura etxean izango dira ikuskizunak.

Erretiratuaren eskutik karta txapelketak egingo dituzte

Alaiak erretiratuaren elkartek briska eta mus txapelketak antolatu ditu datorren asterako. Parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da elkartean bertan, eta izen-ematea doakoa izango da. Briska txapelketa abenduaren 9an egingo dute, eguna, 17:00etan; eta, mus txapelketa abenduaren 10ean izango da, barikua, 17:00etan baita.

Nahia Garcia, txapeldun

Nahia Garcia Bidaburu ziklista aramaioarrak Bizkaiko ziklo-kros txapelketa irabazi zuen azaroaren 21ean Lezaman. Elorrioko Flotament taldearekin lehiatzen da aramaioarra, kadete mailan. Hala, bere kategoriako onena izan zen Garcia. Ibilbideari hiru itzuli egin zizkion, 32.57ko denboran. Bigarrenari bi minutu baino gehiago atera zizkion.



NAHIA GARCIA

Aurrekontu proposamena inbertsio garrantzitsuekin

Udal Gobernuak hamahiru milioi euroko aurrekontua aurkeztu du datorren urterako, 2021ekoa baino %3,6 handiagoa, eta inbertsioetara 3.446.000 euro bideratuko ditu; abenduaren 21ean egingo duten osoko bilkuran onartzea da asmoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleta Udal Gobernuak 13.060.000 euroko aurrekontu proiektua aurkeztu du datorren urterako; 2021ekoa baino %3,6 handiagoa. Hain zuzen, igoera hori Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik dator, batez ere, 5.400.000 euro jasoko ditu-eta hortik –aurten baino 631.500 euro gehiago–. Inbertsioetara 3.446.000 euro bideratuko dituzte, "egitasmo estrategikoei jarraitzeko", baita herritarren "ongizatea bermatzeko" ere. Hala adierazi dute Udal Gobernu taldeko kideek, eta asmoa da abenduaren 21ean onartzea 2022ko udal aurrekontua.

Unai Elkoro alkateak azaldu du 2021ekoen jarraipena izango direla: "Hainbat proiektuk izango dute jarraipena, administrazio arazoek atzeratu egin dituztelako". Era berean, pozik agertu da inbertsioetara bideratutako diruarekin, ia hiru milioi eta erdi, eta gaineratu du 2021ean kontratatutako 2,7 milioi euroko kreditua ere ez dutela erabili: "Bost milioi euro pasatxoko inbertsio maila geratuko da; daukagun aurrekonturako, kopuru garrantzitsua da". Gainera, kiroldegiko zorra ordaintzen bukatuko dute abenduan, eta 2022a zor barik hasi.

Santakurtzeko lanak, urtarrilean

Hirigintza Sailak jasoko ditu inbertsiorik garrantzitsuenak, eta horien artean daude Santakurtz kaleko saneamendu eta hornidura lanak: "Lanen zuzendaritza zein lanak esleitu dira eta urtarrilean hasiko dituzte. Urte askoko inbertsioa da, eta 2022rako milioi bat euro gorde dira", azaldu du Hirigintza zinegotzi Xabi Otxoa. Horrez gain, beste lan batzuk ere aurreikusitako dituzte: Lausitta auzoko saneamendu lanen proiektua idaztea –150.000 euro–; komentu inguruko txukuntze lanen proiektua idaztea –50.000 euro–; obra txi-



Xabi Otxoa, Koldo Zubillaga, Karmele Uribarri eta Unai Elkoro. MIRARI ALTUBE

SANTAKURTZ KALEKO SANEAMENDU LANETARAKO MILIOI BAT EURO GORDEKO DITUZTE

kietako urbanizazioak –100.000 euro–; eta Andra Mari auzoko kantxa iragazgaiztea eta berritzea –500.000 euro–.

Kirol Sailak ere inbertsio garrantzitsua izango du; izan ere, Ibarako futbol zelaiko belar artifiziala aldatzeko 200.000 euro bideratuko dituzte. Kiroldegi aurreko berdegunerako erabile-ra aukeratzeko partaidetza prozesua jarri gura dute abian urtarrilean –55.000 euro–, eta adinekoek ariketa fisikoa egiteko gunea egiteko asmoa ere badute –20.000 euro–.

Kulturaren kasuan, Arkupeko klimatizazio sistema berritu egingo dute –90.000 euro–. Horrez gain, jaietako partida indartu egingo dute –60.000 eurotik 190.000 eurora igota–, Arkupeko kultur programazioarena ere bai –68.000tik 80.000 eurora–, eta kaleko animazioarena –45.000tik

60.000 eurora–. Bestetik, euskara sustatzeko proiektuarekin jarraitu gura dute: "Gazteen artean euskara sustatu gura dugu kirolaren bitartez", azaldu du Euskara zinegotzi Koldo Zubillagak.

Gizarte Zerbitzuak, "gora"

Gizarte Zerbitzuen Sailak, ostera, 869.441 euroko aurrekontua izango du. "2016tik, Udal Gobernuan gaudenetik, Gizarte Zerbitzuen aurrekontuak ia %40ko igoera izan du. Politikaren erdigunean pertsona egotea da gure helburua, eta, bereziki, hauskorrek direnen beharrei erantzuten joan gara", azaldu du Gizartegintzako zinegotzi Karmele Uribarrik. Programa sozialak mantendu egingo dituztela iragarri du, eta, behar izanez gero, handitu, esaterako, gizarte larrialdietarako laguntzak –70.000 euro– eta etxeko laguntza zerbitzua. Gainera, esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzua lizitatuko dute, kaleko hezkuntzako programarekin indartuta –132.000 euro–. Inbertsioen atalean, adinekoen gizarte zentro-rako 965.000 euro bideratu dituzte.

Gaurtik abian 'Argazkizkiak' eta 'Marrazkizkiak' lehiaketak

Argazkiak eta marrazkiak testu batekin lotu beharko dira, eta abenduaren 20rako aurkeztu

M.A. ARETXABALETA

Argazkizkiak lehiaketa bueltan da –2016an egin zen azkenengoz–, eta, oraingoan, umeei bideratutako *Marrazkizkiak*-ek lagunduta dator. Argazkiak eta testuak bateratzea helburu duen lehiaketa Loramendi euskara elkarteak antolatu du, beste behin, Udalaren laguntzarekin. Hainbat modalitate, izan arren gai bakarraren gaineko lanak eskatuko dira: *Zer da hemendik aurrerako denborari eskatu nahi diozuna?* Gaurtik abenduaren 20ra arte aurkez daitezke.

Hiru taldetan banatuta

Marrazkizkiak Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei zuzendutako diete; 6 eta 12 urte artekoek, hain zuzen ere. Eta *Argazkizkiak* modalitatean bi talde izango dira: 12 eta 18 urte artekoena eta 18 urtetik gorakoena. An-

tolatzaileek eskatu dituzte 30x20 zentimetroko tamaina duten argazkiak; marrazkien formatua eta estiloa, oster, libreak izango dira. Horiei atxikita joango den testuaren estiloa ere edozein izan daiteke: poesia, bertsoa, mikroipuina... Eta DIN-A4 tamainako orrian idatzita aurkeztu beharko da.

Udaletxe zaharrean

Lanak udaletxe zaharrera eroan beharko dira gutun-azal batean; barruan, egilearen datuek ere zehaztuta egon beharko dute: izena, abizena eta helbide elektronikoa.

Epaimahai batek aztertuko ditu jasotako lan guztiak, eta hainbat irizpideren arabera baloratu. Hiru taldetako onenek sariak jasoko dituzte, eta horretarako ekitaldia abenduaren 27an egingo dute.



M.A.

Lehen egunean 400 bonu salduta

Gabonetako bonuak eguaztenean jarri zituen salgai Udalak, 500, hain zuzen ere, eta, beste urte batzuetan legez, arrakasta handia izan dute; izan ere, egunean bertan 402 saldu zituzten. 20 euro ordaindu eta 30 jaso dituzte trukean, eta abenduaren 31ra arte izango dute aukera Aretxarte merkatarien elkarteko komertzioetan erabiltzeko.



Erakusketaren irekiera ekitaldian elkartutakoak Arkupen. MIRARI ALTUBE

Institutuaren 25 urteko ibilbidea, irudietan jasota

1996 eta 2021 artean ateratako ehun argazkitik gora jarri dituzte ikusgai Arkupeko aretoan, eta abenduaren 14a arte egongo da zabalik erakusketa; Kurtzebarri institututik pasatutako ikasleak, irakasleak, gurasoak zein langileak dira protagonista

Mirari Altube ARETXABALETA

Martitzenean zabaldu zuten 25 urteko ibilbidea jasotzen duen erakusketa, eta institutuko hainbat irakasle eta guraso elkartu ziren udal ordezkariarekin batera Arkupeko aretoan. Lehen bisitariak ikusmin handia erakutsi zuten eta argazkiak gertutik ikusi nahi izan zituzten. Aben-

duaren 14a arte egongo da zabalik erakusketa.

Ikasleak protagonista

Erretiratutako hainbat irakasle –Resu Abasolo, Iñaki Urreta, Carlos Uranga, Kontxi Ruiz de Zarate eta Pili Beitia– taldetxoak osatu eta urritik jardun dute argazkiak eskatzen, aukeratzen

eta sailkatzen. Argazki mordoak jaso dituzte, eta 115 inguru paperera pasatu; gainerakoak, 800 inguru, telebista bidez ikus daitezke Arkupen bertan. "Kostatu zaigu hasierako altxorak topatzea", zioen Abasolok.

Herriko Plazako eraikina eraberritu ondoren, 2003an joan ziren institutuko ikasleak ber-

tara; 1996tik ordura arte Lehen Hezkuntzakoekin batera egon ziren. Argazki horiek ere jaso dituzte. Protagonista nagusiak ikasleak dira, baina gurasoak, irakasleak eta gainerako langileak ere ez dira falta: "Gatzagarriak, eskoriatzarrik eta aretxabaletarrak batu ditu Kurtzebarri institutuak, eta argazkietan erakutsi dugu hori", zioen Abasolok.

Herriari bueltan eman

Juan Carlos Pascual *Pascu* zuzendariak zioen helburua herria-

ri eskerrak ematea dela: "Herri-tarrak izateko hezten ditugu gure ikasleak, eta herritarrei zor diegu garena. Horregatik, bueltan ematea nahi izan dugu jasotakoaren zati txiki bat bada ere. Erakusketaren helburua da Kurtzebarri BHI osatu dugun guztiei eskerrak ematea". Koldo Zubillaga zinegotziak, oster, babesagertu zion: "Kurtzebarri institutua oso garrantzitsua da, Aretxabaletan betetzen duen funtzioagatik. Eta erakundeetatik babesagertu ematea dagokigu".

Zelako oroitzapenak dituzu?



LARTAUN ITURBE
IKASLE OHIA

"Oso oroitzapen onak ditut, nahiz eta DBHn ordurako nork bere bidea topatzen hasi behar zuen. Eskoriatzarrekin nahastu ginen orduan, jende berria eta kontu berriak ezagutu, baina oso giro ona genuen; askorekin mantentzen dut harremana. Eraikin berria, oster, nik ez nuen ezagutu".



KONTXI RUIZ DE ZARATE
IRAKASLE OHIA

"Hogei urtetik gora pasatu nituen Kurtzebarri, eta oso polita izan da erakusketa antolatzeak hartutako lana, kontu asko bizi izan ditugulako argazkiei begira: une bereziak, bertatik pasatutako irakasleak eta langileak... 25 urtean 1.454 ikasle pasatu dira; bada zerbait, ezta?".

Euskadiko karate txapelketa jokatu da bihar kiroldegian

Senior mailako 80 kirolari inguru elkartuko dira eta kata eta kumite modalitateetan jardungo dute lehian

M.A. ARETXABALETA

Pandemiak atzeratutako txapelketa –martxoan ziren egitekoak– izango da bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian, eta punta-puntako karatekak elkartuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko 80 kirolari inguru izango dira tami gainean, guztiak senior mailakoak, eta, 10:00etan hasita, kumite zein kata modalitateetan lehiatuko dira.

UDAKo hiru ordezkari

Gipuzkoarrak "uste baino gutxiago" elkartuko direla adiera-



Odei Vazquez entrenatzen. UDA

zi dute antolatzaileek, baina Azkoitikoek, Pasaiaikoek eta Irungoek Ibarra izango direla berretsi dute, baita Debagoienekoak ere, eta horien artean UDAKo ordezkariak daude: Joana Perez eta Odei eta Oxel Vazquez anaia.

"Maila handiko lehiak ikusiko dira, probintzia bakoitzeko onenak elkartuko direlako", adierazi du Odei Vazquezek, UDAKo karateken entrenatzaileak; horregatik, karatea gustuko dutenak txapelketa bertatik bertara jarraitza gonbidatu ditu. Kata modalitateko norgehiagokekin ekingo diete; hau da, karate mugimenduak eginda. Eta ondoren, borrokekin jarraituko dute. Vazquez anaiek zein Perezek jardungo dute kumitean, eta azken horrek, katan ere bai.

Beñat Elkorobarrutia aretxabaletarra fitxatu du UDAK

Beñat Elkorobarrutia Lasa (Aretxabaleta, 2002) jokalaria gaztearen fitxaketa iragarri du astean UDAK. Kirol elkarteko harrobiko jokalaria da, nahiz eta kanpoan ibili den denbora luzean; Realean egin ditu zortzi bat urte, eta orain, Beasainen egon da, Hirugarren Mailan. UDAK etxera itzultzeko aukera eman dio, eta pozik onartu du hori: "Lagun asko ditut bertan, eta oso gustura nator".

Eskuin alboko atzelaria izan da Realean eta hegalean eta erdian ere jokatu izan du. Edozein postutan dela, lanerako gogoz dator: "Maila handiko taldea da, gaztea, eta oso ondo dabil. Ahal dudun guztian laguntza nator".

Radu Ratoi akordeoilariaren kontzertua domekan

Radu Ratoi akordeoilariak (Moldavia, 1988) kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 5ean, Arkupen (12:30). Nazioarteko Arrasate Hiria txapelketa irabazi zuen 2019an eta horren aurretik beste hainbat sari jaso ere bai; Moldaviako artistarik onenaren saria esaterako, 2018an.

Asteburuko Arkupeko egitarauarekin jarraituz, helduek *Way Down* filma izango dute –egubakoitzean (22:00), zapatua eta domekan (19:30) eta astelehenean (16:00)– eta umeei, *Ron da Error* –zapatua eta domekan (17:00)–. Hilaren 9an, oster, emakume kirolarien gaineko *Hijas de Cynisca* dokumentala emango dute (19:00).



Eskoriatzako Santa Ana auzoan Alberjazarren alboan dagoen Iturrizar iturria, txorrota berriarekin. IMANOL BELOKI

Iturrizar iturria, berreskuratuta

Santa Ana auzoan, Arbiñoste bidea hartzen den bidegurutzean dago Iturrizar iturria, Alberjazarren alboan. Zenbait urtez ur barik egon ostean, txorrota jarri diote, eta ura bideratu, inguruan egin dituzten beste zenbait lanekin batera

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko ondarea denboraren poderioz galdu ez dadin, eta hura berreskuratzeko asmoz, zenbait lan egiten aritu dira asteotan Eskoriatzako Alberjazarren alboan; hain zuzen ere, Iturrizar izenez ezagunagoa den iturriaren eremuan.

Eskoriatzako Udalak jakinarazi duenez, lanak amaitzean daude, baina ez dira Bidebarrietan inguruan egingo dituzte lan bakarrak izango. Hala adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak. "Aurtengo aurrekontuetan Bidebarrieta pasealekua txukuntzeko partida bat sartu genuen. Proiektua uztailean garatu eta irail bukaeran adjudikazioa martxan jarri genuen". Orokorrean, bidea sastrakaz garbitu eta, ahal den neurrian, hobetu

egin dute, asfaltatu gabe, harritxoekin bidea ondo jarritz: "Ez genuen nahi bere nortasuna galtzea. Hau da, ez genuen nahi beste hiriko bide bat egin, baizik eta naturan paseoak emateko bidea mantentzea". Horrez gain, Santa Anatik gora egiten duen aldapan Bidebarrieta bidea hesi bat jarriko dute eta bidean zehar ere hainbat banku jarriko dituzte. "Azkenean, Alberjazarren ondoan dagoen iturria garbitu eta txukundu egin dugu, eta berriro operatibo jarri, ez baitzuen urik. Ibilbideko beste aldean, Antontxuko eremua ere

'ITURRIZAR' 1712. URTEKOA DELA ADIERAZTEN DA ESKORIATZAKO OHAR MONOGRAFIKOETAN

garbitu dugu, eta beste iturri bat martxan jarri. Guztira, 18.800 euro inguru gastatu ditugu, eta lanak Eskoriatzako Ferreira enpresa egiten ari da".

'Trankil'-en oharretan jasota

Eskoriatzako ohar monografi-koetan, Joxe Aranburuzabala *Trankil*-ek Iturrizar iturriaren gainean esandakoak jasota geratu ziren: "Iturrizar iturria 1712. urtekoa da, eta Ormazartik zetorkion ur minerala. Iturriaren oinean dagoen harri handia Zaratatik ekarri zuten eta garraiatu zuen gizonari hamar erreal ordaindu zioten. Bi ur mota nahasten ziren bertan, eta 1789an arazoari irtenbide zuzena ematea erabaki zuten. Eskoriatzako zen Juan de Zubia maisuari eman zioten lanen ardura, baina 1803an arazo berbera sortu zen. 1789. urtean,



Duela 28 urte, iturriaren argazkia

Eskoriatza iruditan artxiboan jasotzen denez, 1993. urteko argazkia da goiko hori. Iturrizar iturria agertzen da bertan, elurra egin zuen egun batean; orduko, txorrota kenduta zegoen bertatik.



Zenbait urtez ur eta sakagailu barik

Iturrizar iturriak bi txorrota zituen: batek metal-ura ematen zuen eta besteak, haitz-ura. Bidebarrietan gora dagoen depositu batetik zetorkion ura, baina autobidea egin ondoren desagertu egin zen depositua. Horren ondorioz, Iturrizar ur barik geratu zen.

Alberjazarreko garbategia egiteko erabakia hartu zen, eta, akordioaren artean, oraingo parrokiaren planoetan zeuden sarrerako zazpi arkuetatik hartuta, Iturrizarren gaur egun dagoen harrizko arkua jartzea ere erabaki zuten". *Trankil*-en

BIDEBARRIETAN, ANTONTXU BIDEAN DAGOEN ITURRIA ERE MARTXAN JARRIKO DUTE

idatzietan jasotzen denez, "1779an Iturrizar gainean bolatokia zegoen", datu bitxi moduan.

Iturriak mantentzea

Iturrizarko iturriaz gain, herrian iturri ederrak daudela gaineratu du Saioa Altzua, Ibarraundi museoko langileak, eta horiek mantentzea ere ezinbestekoa dela azpimarratu: "Gomitxitxurri dugu, Atxorrotxerako bidean; Antontxu bidekoa, laster konponduko dutena; Uretzeko iturria... Ura bizitza da eta ura mantentzea garrantzitsua da".

'Energia-bonua', beharra duten familientzat

Hilaren 23an egindako azaroko ohiko osoko bilkuran, dirulaguntza deialdia onartu zuen Eskoriatzako udalbatzak, baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen eta familien energia-gastua finantzatzeko 2021eko eta 2022ko neguko hilabeteetan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Elektrizitatea, gasa edo bestelako erregaien hornidurari dagozkion fakturak ordaintzeko erabili beharko dira Eskoriatzako Udalak jendaurrean jarri dituen laguntzak. Diruz lagundu daitezkeen gastuak, beraz, kontsumo horiei dagozkienak izango dira, bai eta komunitate-gastuak ere, horiek berokuntza barne hartzen dutenean, 2021eko abenduaren 1etik 2022ko apirilaren 31ra bitartean.

30.000 euroko laguntza

Laguntzaren zenbatekoa gastu energetikoaren zenbateko justifikatua izango da, diruz lagundu daitezkeen aldian. Guztira, Udalak 30.000 euro bideratuko ditu programa horretara, eta kopuru hori handitu egin ahal izango da, beharrezkoa izanez gero. Laguntzaren zenbatekoa 30 eurokoa izango da hilean familia-unitate bakoitzerako; 150 eurokoa, gehie-

nez ere; eta, nolana ere, ezin da izan onuradunak benetan ordaindutako dirulaguntzaren xede diren gastuen zenbatekoa baino handiagoa.

Bete beharreko baldintzak

Deialdi horretara bildu ahal izango dira, besteak beste, honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: azken sei hilabeteetan Eskoriatzan etengabe errolatuta egotea, diruz lagundu daitezkeen gastu horietan parte hartu izana eta energia-gastuari aurre egiteko diru-sarrera edo baliabide nahikorik ez izatea. Eskatzaileek gastu horiei aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutela

GUZTIRA, 30.000 EUROKO PARTIDA BIDERATU DU UDALAK LAGUNTZA HORRETARAKO

ulertuko da familia-unitatearen urteko diru-sarrera osoak 15.682,68 eurotik beherakoak direnean kide bakarreko familientzat, 19.603,44 eurotik beherakoak bi kideko familientzat eta 21.171,78 eurotik beherakoak hiru kide edo gehiagoko familientzat.

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera duten edo kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin; betiere, gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Muga hori gaindituz gero, programa honen bidez eman beharreko dirulaguntzari gaindikina kenduko zaio. Gainerako baldintzak Udalaren webgunean kontsulta daitezke.

Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea abenduaren 1ean hasi eta hilaren 15ean amaituko da.

Espainiako txapelketan laugarren postuan geratu dira

Haizeder Arguiz eta Maialen Apraiz gimnasta eskoriatzarrek denboraldi borobila egin dute

I.B. ESKORIATZA

Eibarko Ipurua taldeko Eskoriatzako gimnastek denboraldi aparta egin dute tapiz gainean. Senior kategorian ari da Nahia Arguiz gimnasta eta Haizeder Arguiz eta Maialen Apraiz, berriaz, kadete mailakoak dira. Denboraldian zehar taldekideekin batera lortutako emaitzak apartak izan dira, baina azken txapelketan podiumetik pauso batera geratu dira txikienak.

Ipurua gimnasia taldeko kadete mailakoak Espainiako txapelketan izan dira, Valla-

doliden. Haizeder Arguiz eta Maialen Apraiz eskoriatzarrek taldekide dituzten Elene Ramirez, Naroa Alonso, Emile Zamakola, Nahia San Martin eta Elene Lazpita gimnastekin batera laugarren postua eskuratu dute, 19.150eko notarekin. Emaitza paregabea da, eta denboraldiko beste lehiaketetan lortutakoekin ere oso pozik agertu dira. Izan ere, lehen postuak lortu zituzte Gipuzkoako Txapelketan eta baita Izar Leku eta Gasteiz Hiria torneoetan.

OHARRAK

San Andres eguna

Abenduaren 5ean, domekan, San Andres eguna ospatuko da Erañako San Andres ermitan. Meza izango da 11:00etan, eta gero, salda prestatuko dute bertaratuentzat.

Durangozko Azoka

Domekan izango da irteera, eta Eskoriatzako gaztelekuko nerabeek gaur dute izena emateko azken eguna.

Artisautza azoka

Abenduaren 18ko eta 19ko asteburuan, Ibarraundin, zero kilometroko artisautza azoka egongo da. Postua jartzeko, 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu beharko da.

LEINTZ GATZAGA | 19



Loreontzi pertsonalizatuak saltzeko San Milixan azokan jarritako postua. I. SORIANO

Leintz Lotzen-ekoen loreontzi pertsonalizatuen loraldia

San Milixan azokan jarritako postuan 40 enkargutik gora jaso zituzten, eta horiek betetzen ari dira

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 14an Leintz Gatzagan egindako San Milixan azokan, hainbat loreontzi pertsonalizatu saldu zituzten Leintz Lotzen egitasmoko kideek pilotalekuan jarri zuten postuan. Hala ere, loreontziak saltzeaz batera, enkargu ugari ere egin zizkieten, eta egunotan tailerrean ari dira horiek prestatzen.

Gatz Bidea konpontzeko

"Herrigunean zehar sakabana-tuta jarri genituen loreontzi pertsonalizatuek arrakasta izan zuten, eta, jende asko erakar-

tzeaz batera, eskaerak izan genituen. Hori horrela, San Milixan eguneko azokan postua jartzea erabaki genuen, eta 40tik gora loreontzi pertsonalizatu egiteko eskaera egin ziguten gure postura gerturatu zirenek. Horiek banatzen ditugunean, lortutako diruarekin, Eskoriatza gatzagarekin lotzen duen Gatz Bidean konponketa lanak egiteko erabiliko dugu. Zatiren bat ondo jartzeko, hesiak konpontzeko edo berriak jartzeko...", adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Lotzen egitasmoko kideak.

GORA ETA BEHERA



AITOR AGIRIANO

Ura asfalto azpitik irteten

Egubakoitzean ateratako argazkia da goikoa. Gatzagako hondakinen gunearen alboko aparkalekuan, asfalto-petatxua dago, eta euri-jasarengatik ura irteten zen asfalto azpitik.



Ione Larrañaga, denbora irudikatzen duen muralaren aurrean. MAIDER ARREGI

Herriaren izaera, horma-irudietan margotuta

Ione Larrañagak eta Oier Peñagarikanok ia amaitzeaz dute aurten abiatu duten muralgintzaren proiektua. Ekimenak, guztira, bederatzi mural jasotzen ditu, eta dagoeneko sei margotuta daude eta falta direnak eguraldiaren menpe daude

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurten abiatutako muralgintza-proiektua azken txanpan dago. Ione Larrañagak eta Oier Peñagarikanok elkarlanean herriko hainbat txoko apaindu dituzte jada. Guztira, bederatzi lanek osatzen dute proiektua, eta horietatik zazpi eginda daude. Izan ere, noiz margotu eguraldiak aginduko du, eta horren menpe dagoela, besteak beste, Mairuaren Alardearen murala kontatu du Larrañaga ilustratzaileak. "Ideia da mural guztiak batuko dituen ibilbidea sortzea, eta mural horiei QR bidez multimedia informazioa eranstea. Behin muralak gertu daudenean egingo diegu herritarrei aurkezpena. Muralak elkarlanean egin dira: Andramanuelak emakume taldearekin eta herritarrek, besteak beste. Orain, Alardearen eta pilotaren gaineko horma-irudiak egitea falta zaigu, baina eguraldiaren menpe jarraitzen dugu. Pilotaren diseinua Oierrek egin du jada, baina badirudi

nahi baino gehiago luzatuko dela proiektua, eguraldiagatik".

Izan ere, Mairuaren Alardea islatuko duen irudia egiteko horma gertu dago. "Nahiko egoera kaxkarrean zegoen horma, eta, igeltseroak txukundu ostean, gertu utzi du. Dena definituta dago, baina hiru bat egun ateri eutsi behar dio eguraldiak margolana behar bezala egin dadin", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. Pilotaren margolana pilotalekuko atean egingo dute; Alardearena, aldiz, plazatik Olanerara bideko horman. Bestalde, Antiguako geltokiko markesinan taimaina txikiagoko murala egitea dela asmoa aurreratu du alkateak: "Jolasguneak egoki-

ALARDEAREN ETA PILOTAREN HORMA-IRUDIEK BOROBILDUKO DUTE PROIEKTUA

tzen hasten garenean egingo da Antiguakoa".

Guztion Alardea

Alardearen murala herritarrek batera margotzea dela asmoa dio Larrañagak, baina hori osasun egoerak ere baldintzatuko duela nabarmendu du. Alardearen Elkarteko kide Lander Dominguezek adierazi du Alardea herriarena dela, eta, elkarrekin margotuko bada, denek bere sentitzen dutelako dela: "Alardea herriarena da, eta, herritarrek egitea erabakitzen bada, herriak bere sentitzen dutelako da. Alardea ere horrela egiten da, denok elkar-tu eta ideia aurrera eramanda".

"Ez da pintatzea pintatzeagatik. Lotura bat egin nahi dugu gure izaerarekin, artea kalera atera eta herria txukun eta polit utzita. Gure herriaren izaera batzen duen irudikapena da. Feminismoa, euskaltzetasuna, pilota, senidetza", gaineratu du Kortabarria alkateak.

Eolikoak jartzeko egitasmoaren berri eman du Jaurlaritzak

Cilda Energy SLUK 12 MW-ko potentzia gordina duten bi aerosorgailu instalatzeko eskaera egin du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Trekutz parke eolikoa gauzatzeko hasierako administrazio-baimenaren eskaera egin duela jakinarazi du Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian. Hala, EAEn parke eoliken bidez energia eolikitik energia elektrikoa ekoizteko instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretua oinarri, Trekutz parke eolikorako aurretiaz aurkeztutako administrazio-baimenaren eskaera argitaratu du azaroaren 30ean.

Eskaera horren arabera, Cilda Energy SLU enpresak 12 MW-ko potentzia gordina duten bi aerosorgailu instalatzeko eskaera egin du. Urretxu eta Antzuolari eragingo lioke eskaerak. Hala,

hogei eguneko epean, interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehian eskabideak aurkeztu ditzakete.

Desadostasuna

"Bi aerosorgailu bakarrik dira, baina sekulako inpaktua dute. Oso altuak dira, eta zementu askokoak. Kokapen zehatzaren arabera, Irimogainen jarri nahi dituztela azaldu digute: bat Antzuolako lurretan eta bestea Urretxuko lurretan. Hamalau metroko erradioko plataformakoak eta 120 metro inguruko altuera dutenak. Ez zait egokia iruditzen aurkeztu diguten egitasmoa soilik tamainagatik; baita ere berriztagarria izanda ere ez delako jasangarria eta natura-ingurune bat hondatuko duelako; eta susmoa dudalako goitik behera inposatuko digutela", adierazi du alkateak.

Gure Eskuren 'Tripontzia' loteria eskuratu daiteke gaur

Gailurra zain dugu! lelopean, aurten ere iritsi da Gure Eskuren *Tripontzia* loteria. Hala, gaur, abenduak 3, Kalebarrenen, 18:30etik 20:00etara bitartean, salmentarako mahaia jarriko du Antzuolako Gure Eskuk. Abenduaren 10ean, berriz, Ogi Berri inguruan izango dira loteria saltzen Gure Eskuko kideak, 18:30etik 20:00etara.

Martuteneko presoendako arropa bilketa egingo dute

Espetxe Pastoralitzak Martuteneko presoek laguntzeko arropa bilketa egingo du abenduaren 18ra arte. Domeetana eta jaiegunetan parrokiara eta egunetako mezan Antiguara eraman daitezke. Hala, barruko arropak—gizon eta emakumeentzako—, txankletak, etxeko zapatilak, turroia, bainurako produktuak, tabakoa... batuko dituzte.

Urtarrilaren 8tik zabalik

Antzuolako gazte txokoa urtarrilaren 8an zabalduko dute. Gaztetxoek eurek zapatuan egindako parte-hartze saioan halaxe eskatu baitzuten. Osasun egoerak ahalbidetzen badu, beraz, zabaldu egingo dutela adierazi du Zumaia Elkoro koordinatzaileak. Bestalde, Oientzeroren jaitsieran parte hartzeko izen ematea ere zabalduko dutela aurreratu du.



ZUMAIA ELKORO



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Txikienen aurrean eredugarri

Hizkuntza ohituretan, haurren aurrean, helduok heldu izateko dei egin dute euskara elkarteek

Euskara epaitegietan

Debagoiendarrak munduan, euskaraz

Euskaraldia eta Korrika urtea

Hitanoa berreskuratzen



“LANA ere Euskararen alde”



Zer entzun, hura eredutzat hartu

'Haurren aurrean, helduok heldu' kanpainak gurasoen hizkuntza ohiturak izan ditu jomugan bi astez, jarrerak euskararen transmisioan duten garrantzitik abiatuta

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Ez da lehen aldia izan euskaren esparrua lantzen duten eragileek gurasoen hizkuntza ohiturei buruz hausnartzeko egitasmoa martxan jarri dutena, baina, agian, "aktibazioan" gehien sakondu dutena bai. Itxaro Artolak, AEDko kideak, ñabardura hori azpimarratu du *Aurrean helduok heldu* kanpainaren balorazioa egiteko orduan. Bi astez martxan egon den dinamika domeka honetan amaituko dela aintzat hartuta, oraindik goizegi da eman duenari

buruzko gogoeta sakona egiteko, baina berandu ere ez da azaroaren 22az geroztik jorratutako ekintzen berri emateko. Izan ere, herri bakoitzeko euskara elkarte nahiz zerbitzuek diseinatu dute euren eragin esparruan aplikatzeko saioak, eta, horretxegatik, modu ugarian eman diote forma egitasmoari.

Mahai-jolasak Aramaion

Arabako deialdiarekin bat eginez, Gorbeialdeko Kuadrillako herrietan proposatutako ekintzak hartu dituzte aintzat Aramaion.

Hala, *Jolas molaz* izeneko tailerrean parte hartzeko aitzakian batu ziren atzo arratsaldean ludotekan bertako erabiltzaileak. Rosa Mondragon Aramaioko Udaleko Euskara teknikariak adierazi du 3 eta 12 urte arteko zenbait gaztek parte hartu zutela euskarazko mahai-jolasak ezagutu eta probatzeko zitan, adinez nagusiak diren ardura-dunekin batera.

Oñatin, epe ertainerako plana

Oñatiko Euskara Zerbitzuak ikastetxeen bitartez egin du



Arrasateko Bedoñabe ikastetxearen aurrean ekintza ludikoa egiten. AED

sentsibilizazio kanpaina: "Guraso eta haur talde bat sortzeko saiakera egin dugu, gerora kanpaina honekin zerikusia duten antzeko ekintzei bide emateko", adierazi du Xabier Zabaletak, Oñatiko Euskara teknikariak.

Eskoriatzan, bideoa eta guzti

AZ Visual Mediakoen laguntzarekin grabatu dute *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenak Eskoriatzan ematen diharduena; *Izan eredu* bideoa kaleratu dute ikastetxeek, gurasoen eta hezitzaileen parte hartzearekin.

Ekintzak ia egunero

Bergaran eta Arrasaten txoko ugari jolastoki bilakatu dituzte euskara elkarteek. Jardunek martitzen, eguazten eta eguen arratsaldeak girotu ditu Mariaren Lagundian, Aranzadin eta San Martinen. Azken eskola horretako ekintzetan parte hartu du Nora Olabide gurasoak. Haren esanetan, "hasieran kostatzen zaien haurren erritmoari jarraitzea. Dena den, uste du euskara sarri erabiltzera ohituta ez dauden gurasoendako "tresna baliagarriak" direla dinami-

gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

ai arizmendi ikastola
Konfiantzaren pedagogia®

AMETSAK
Betetzeko Dardelako!

EUSKARALDIA

ekidegroup
EUSKARALDIArekin bat

www.ekide.es

Ingeniaritza + fabrikazioa

Kontrol tresnak

Ikusmen artifiziala



Haurrak eta gurasoak jolasean Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean. H.L.

zatzaileek proposatutako jolasak, "euskaraz modu naturalagoan" egiten dutela iritzita.

Arrasaten ere aktibo mantendu dute *Haurren aurrean helduok heldu* egitaraua, baina onartu dute eguraldiak ez dela lagundu nahi beste ekintza aurrera eramateko garaian: "Helduek jolasteko *Jolasen kuxta ibiltaria* geneukan pentsatuta kalera ateratzea, baina parte hartze urria izan du, euriagatik".

Oztopoak oztopo, atzo, eguna, Usaetxe plazako ludotekan egin

zituzten ekintza ludikoak; eta gaur arratsaldean, berriz, Biterin egingo dute Arrasate mailako azken ekitaldia. "Jai-giroa sortzeko asmoz egingo dugu, txokolate beroa dastatuz eta bertsoak denon artean abestuz", aurreratu du AEDko Itxaro Artolak.

Helduek hizkuntza ohituren inguruan hausnartzea lortu dutela iritzita, antzeko saiok segida izango dute, ziur, aurrerantzean: "Transmisioaren onerako, gaiak erdigunean jarraitu dezan".

Zertaz jabetu zarete bi aste hauetan?



AINHOA ERNABIDE
GURASOA

"Umeei eskatzen diegun hori bete beharko genuke"

"Halako ekintzak egin beharra dagoela uste dut, euskararen egoera ez delako batere ona. Guraso bezala ditugun arduren artean, asko kezkatuta gaude euskararen erabilerarekin. Komenigarria da gu eredu izatea, eta gure artean hitz egiten dugunean kontziente izatea haurren erreferente garena. Guk ere gure ohiturak zaindu behar ditugu, bai seme-alaben aurrean, baita eurak ez daudenean ere. Umeei eskatzen dieguna guk batzuetan ez dugu betetzen; hori aldatzea mesedegarria da".



KRISTINA POZO
GURASOA

"Umeein jolastean balioak erakusten dizkiegu"

"Umeei entzuten dutena jartzen dute praktikan. Haur euskaldunak 5-6 urterekin hasten dira gaztelerazko hitzak ikasten, telebistan edota mugikorretan jasotzen dutena barneratzen dutelako. Beraiekin euskaraz jolastuta eta baldintza eta arauak euskaraz ezarrita, aldiz, hizkuntza eta kultura bereganatzen dituzte. Gainera, umeei gustuko dute gurasoekin jolastea. Ondo pasatzen dugu elkarrekin. Hala ere, egia da batzuetan beraiek jolastu eta gurasook taldetxoak osatzen dugula eurengandik aparte".



ARGIÑE ALBERDI
GURASOA

"Gurasooi kostatu egiten zaigu hasieran jolasetara ohitzea"

"Halako modu ludiko baten bidez bi helburu betetzen ditugu: euskararen erabilera sustatzea eta gurasoen eta haurren arteko harremanak sendotzea. Guk euskaraz berba egiten dugunean edo hurrekin jolasten garenean, eurek ere euskara ikasten dute. Guk zenbat eta gehiago erabili, eurek orduan eta garrantzi handiagoa ematen diote. Jolasen dinamikan sartzea kosta egiten zaigu, batzuetan, baina, behin martxa hartuta, umeei bezain ondo pasatzen dugu. Une goxoak dira".



Goizper Group
Elkarlanean garatzen



Industria



Inbentzadura



Bioteknologia

Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofiaren parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.



www.goizper.com



Zulo beltza epaitegietan

Herritarrek eskubidea dute auziak euskaraz egin daitezen eskatzeko, baina, askotariko arrazoiak medio, noizean behin baino ez da halakorik gertatzen. Zuzenbidean esperientzia dutenek diote euskara "normalizaziotik urrun" dagoela epaitegietan

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Euskaraz egin zen lehen epaiketa bezala gogoratzen da Nekane San Miguel magistratu arrasatearrak 1993an Tolosan ebatzi zuena. *Tolosaldeko ataria*-n egin dioten elkarrizketan adierazi du "bidezkoa" zelako egin zela modu hartan: "Baserritar euskaldun peto bat epaitu behar nuen; aurrean nuenean, *nola zuzenduko natzai*o gaztelaniaz? galdetzen nion neroni. EAEn bi hizkuntza ofizial izanik, herritarrei horietako bat aukeran

emateko betebeharra dugu, eta, noski, pertsona jakin batek bere hizkuntzan lasai hitz egiteko aukera izanez gero, nire aldetik inoiz ez da arazorik egongo".

Edonola ere, kasu hura salbuespena izan zela nabarmendu du, epaitegietan gaztelera nagusitzen zelako: "Nik izapide ugari egiten nituen euskaraz, baina gaztelaniaz dokumentatzen ziren. Izan ere, transkripzioak funtzionarioek egiten zituzten, eta euskaldunak izaten ziren, baina alfabetatu gabeak".

Kasu hura aurrekari garrantzitsu bilaka zitekeen, baina ez zen horrela izan, hein handi batean, "epaiketa laburra" izan zelako. Izan ere, "modu anekdotikoan" gogoratzen du San Miguelek pertsona batek salaketa euskaraz jartzen dituen kasuak, edo itzultzailea eskatzea euskaraz egin ahal izateko.

Tresnak egon badaude

Urteen poderioz, ordea, euskara sustatzeko modelo batzuk sortu dira; Auzia Euskaraz, kasu. Jus-

tizia Administrazioako hainbat eragilek osatzen dute proiektua; besteak beste, abokatuek, prokuradoreek, epaitegietako langileek, fiskalek eta epaileek. EAeko edozein epaitegitan auzi bat hasieratik amaierara euskaraz izapidetzea du helburu, eta prozesu hori gauza dadin azpiegitura eraikitzea da bertako kideen erronka nagusia.

Gaur egun, epaitegietara euskaraz iristen diren espedienteak udalerrri euskaldunetatik baino ez dira iristen, "baina gero, gaztelaniara itzultzen da dena, epaileek gaztelaniaz ematen dute ebazpena, eta, ondoren, berriro itzultzen da euskarara sententzia", dio San Miguelek.

Hori horrela izatearen arrazoietakoa bat da botere judizialaren lege organikoak ez diela euskara maila minimorik eskatzen epaile, fiskal eta idazkari judizialei, arlo horretako transferentziarik ez dagoelako EAEn: "Baina Erkidegoko funtzionarioen kasuan badaude transferentziak; ondorioz, horiei euskara maila bat eskatzen zaie", aipatu du Xabier Balerdik, Auzia Euskaraz taldeko kideak.

Gabezia, hezkuntzatik

Zuzenbidea ikasten duten gazteak, duela zenbait hamarkada ez bezala, euskaraz alfabetatuta daude, eta unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteko aukera dute. "Baina gero, euskararen presentzia oso urria da, liburu eta lege mardulak gaztelera idatzita daudelako, eta, ondorioz, praktikan ere gaztelera irakasten delako, oro har", nabarmendu du Zuzenbide ikasketak dituen Inesa Ugaldetxek.

Gakoa, jarrera aldatzea

Egia da gero eta baliabide gehiago daudela justizia administrazioan euskara indartzeko, eta baliteke etorkizuneko zuzenbideko profesional euskaldunek joera aldatzeko saiakera egitea hemendik aurrera. Hala ere, ahalegin hori herritarrengandik ere irtetea komenigarria da, epaitegiekiko dagoen aurreiritzia aldatuta: "Epaitegia eremu zaila edo erasokorra suertatu daiteke; askorentzat urruneko lekua da, arrotza, eta, ondorioz, belurtuta joaten dira; ez nuke esango *arerioa* denik hitz egokiena, baina, batzuetan, hala

— GUREAN EUSKARAZ!

ikerlan RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

www.ikerlan.eu



Mondragon
Unibertsitatea

#euskarak
365egun

www.mondragon.edu





Bergarako epaitegian, auziperatu bat deklaritzen. GOIENA

sentitzen dugu", hausnartu du San Miguelek, eta fokua beldur horretan jarri behar dela gehitu du: "Guztiok dugu ardura edo erruren bat, eta errua duenak aldatzeko ahalmena du; errurik ez baduzu, beste batek izango

du errua, eta, orduan, horrek izango du ahalmen hori".

Intsumisoen eredua

Zenbait mugimenduk eta eragilek jarrera aktiboa erakutsi izan dute epaitegietan aldarrikapenak

egiterakoan; intsumisoek, esaterako. Baina joera hori ez da gizarte zibilean finkatu, gerora oso puntuak izan direlako epaiketarak euskaraz egiteko eskaerak. Badago, horrenbestez, norengandik ikasi.

"Epailearen esku gaude epaiketa bateko partaide guztiak"

ELENA LAKA ABOKATUA

Bergarako epaitegian zein hizkuntza da nagusi?

Langile gehienekin euskaraz aritu zaitezke, baina deklarazioak eta epaiketak egiterakoan zailagoa da, epaile, idazkari eta fiskalek ez daukatelako euskaraz jakiteko obligaziorik.

Egin al duzu epaiketarik euskaraz?

Baten bat bai, fiskalik egon ez denean, kontrako alderdia agertu ez denean, epaile euskalduna tokatu zaigunean eta bezeroa euskalduna denean.

Noren ardura da euskararen presentzia bermatzea epaitegietan?

Denok daukagu ardura, baina, jakina, prozesu judizial batean epaileak agintzen du, eta bere esku gaude alderdi guztiak. Men egin behar zaio hark esandakoari.



GOIENA

Euskaldunok badugu ohiturarik epaiketa euskaraz izatea eskatzeko?

Bai, baina militantzia gradu handia izan behar da horretarako, epaileek ikusten dutelako euskaraz aritzea elebidunaren gabezia bat dela, eta ez beraien elebakartasunaren eskasia bat.

Esperantzarik ba al duzu?

Justizia administrazioa Espainiaren menpe dagoen bitartean, zaila izango da aldaketak egitea.



Euskara da gure hizkuntza, berrikuntza gure bidea.



EUSKARALDIA

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.

www.erreka.com




ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTICS

Makinei euskaraz nola egiten den erakusten

'Common Voice' ekimenaren proiektuak ahots bidezko aginduak bideratzeko teknologiak garatzea eta hobetzea du helburu. Horretarako, ahots datu-basea osatzen dabilta: Bergaran 85 lagunek parte hartu zuten euskarazko esaldiak grabatzen

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Euskarazko ahots teknologiak garatzeko beste urrats bat egin zuten joan den azaroaren 13an Bergaran. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldien barruan, teknologiarekin euskaraz aritzeko auzolan digitala egin zuten Aroztegin, Librezaleak taldeak bultzatuta.

"Ahots bidezko aginduak bideratzeko teknologiak garatu eta hobetzeko ekimena izan zen", azaldu du auzolaneko bultzatzaile Estepan Plazaolak. "Grabazio pila bat behar izaten dira, askotariko ahotsak, adinari, generoari eta doinuari dagokionez", dio.



Azaroaren 13an, zapatua, egindako grabaketak. OIHANA ELORZA

85 bergarar

Bergarako auzolaneko 85 bergararrek parte hartu zuten. Pertsona bakoitzak, ordu laurden batean, euskarazko hainbat esaldi grabatu behar izan zituen. Librezale taldeak bultzatzen duen proiektua *Common Voice* izeneko ekimenaren baitakoa da. "Proiektu horren barruan, munduko hizkuntza mordo baten baitan garatzen ari dira teknologiak", azaldu du Plazaolak. Ordenagailuari adibide mordoa ematea da helburua, sistema adibide horien gainean ikasten jartzeko. "Horrek balio du, besteak beste, osoko bilkura baten esaten dena modu automatikoan azpigituluetan izateko, eta modu horretan pertsona gor batek bilkura jarraitu ahal izatea", nabarmendu du Plazaolak.

Mundu digitalak geroz eta presentzia handiagoa du egungo gizartean, eta horarako saltoa egiten ez duen hizkuntzak etorkizun beltza izango du. Hain zuzen, horregatik da garrantzitsua euskarak ere presentzia izatea *Common Voice* ekimenean, besteak beste.

Online egiteko aukera

Bergaran egindako auzolaneko 15 minutuz egon ziren parte hartzaileak grabazioak egiten, baina egin beharra bikoitza izan zen: batetik, ahotsa grabatzea; eta, bestetik, beste batzuen grabazioak baliozkotzea. Nabarmendu behar da lan horiek etxetik egiteko aukera dagoela, commonvoice.mozilla.org atarian.

Makinei pertsonen nola berba egiten duten erakustea da proiektuaren funtsa, eta ahots sistemak garatu ahal izateko ahots-datu mordoa behar dira. Horregatik, online egin daitekeen proiektuan parte hartzeko gonbidapena egin dute antolatzaileek. Atariak bi egin behar eskaintzen ditu: batetik, berba egitea; eta, bestetik, entzutea. Hau da, *Berba egin* botoiari sakatzuz gero, zure ahotsa emateko aukera duzu; eta *Entzun* botoiari emanez gero, gainontzekoen grabazioak baliozkotzeko aukera dago. Erabiltzaile batek grabazio bat ontzat ematen duenean, baliozko moduan agertuko da. Bi balioztapen behar ditu grabazio batek *Common Voice*-ren datu basera igo ahal izateko.

eskatu eskaini
EUSKARAZ




OÑATI
dabilen herria



BETIKOA, GERTUKOA.

OÑATIKO ESTABLEZIMENDUETAN
Egin tratua euskaraz
ZOZKETA
Parte hartu eta irabazi
100€-ko
balioa duen 6 sarietako bat.

2021eko azaroaren 25etik abenduaren 10era
bezeroa eta saltzailearen argazkia WhatsApp bidez
688 621 142 zenbakira bidali.
Zozketa abenduaren 13an egingo da.



Komunikazio estrategikoarekin
indartu zure marka
EUSKARATIK ETA EUSKARAZ



#KomunikazioaGertu

www.azk.eus

Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin,
maitemindu, jolastu,
gozatu, sentitu...
**zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara kutxabankeko harremanetarako.

Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus

Ama-hizkuntza mantentzen atzerrian

Debagoiendarren esperientziak ugariak dira atzerrian, baina, hizkuntzari erreparatuz, nola mantentzen dute euskara atzerrian? Zer egiten dute horretarako? Posible da beste hizkuntza baten bizi arren nork berea erabiltzeko tartea hartzea?

"Irakurtzeak asko laguntzen dit hizkuntza mantentzen"

LAURA LAKONTXA ALEMANIAN BIZI DEN OÑATIARRA



Laura Lakontxa oñatiarra Alemaniako Munich hiran bizi da duela 26 urte. Lau seme-alaba ditu, eta, bizitza egonkortuta, euskara presente dute bertan.

Bi kulturen aberastasuna

"Etxean senarrarekin alemanez eta seme-alabekin euskaraz hitz egiten dut. Ohitura dut euskaraz irakurtzeko, eta horrek laguntzen dit hizkuntza mantentzen, eta familiarekin ere sarri hitz egiten dut... Etxean bi kultura lantzen ditugu, eta aberasgarria da gure seme-alabak bi kulturen parte izatea".

"Alabari nire hizkuntza eta kultura transmititzen saiatzen naiz"

MIKEL MUÑOZ LONDRESEN BIZI DEN ESKORIATZARRA

Maitasunagatik Londresera bizitzera joatea erabaki zuen Muñozek 2016an. Pekcham auzoan bizi ostean, duela lau urtetik Wimbledon auzoan bizi da Mar neskalagunarekin eta Aitana alaba txikiarekin.

Kontaktua mantentzea

"Aldizkari digitalak, EITB eta Goiena ikusteko tartea hartzen

dut noizean behin. Horrekin batera, Euskal Herriko lagunekin kontaktua mantentzen dut, eta ezinbestekoa da hori euskaraz hitz egiteko eta, nolabait, hizkuntza maila mantentzeko. Hala ere, etxeko txikiari saiatzen naiz zerbait irakasten, gure hizkuntza eta kultura ere ezagutu ditzan...".

Bazenerkien?

Umeak elkarriketan parte hartzen daudenetan, helduen euskararen erabilera Antzuolan %77koa da.
Umerik tartean ez dagoenean, helduen euskararen erabilera Antzuolan %51koa da.

(2016ko datuak)



eki termik
efizientzia energetikoa www.ekitermik.com



INGENIARITZA



PROIEKTUAK eta OBRAK

GU ERE EUSKARAREKIN BAT!

EUSKARALDIA

365 EGUN

"Etxetik urrun egon arren, gure nortasunaren parte da euskara"

SARA NUÑEZ IRLANDAN BIZI DEN ARRASATEARRA

Skibbereen izeneko herrixka batean bizi da Sara Nuñez de Alonso arrasatearra, WestCorken, Irlandan, 2016a ezker. *Au pair* lan egitera bost hilabeterako joan zen, hasiera batean, eta bost urte bete berri ditu bertan. Irlandan ez duela kontaktu handirik izan euskararekin dio Nuñez de

Alonsok, euskal herritarrik ez duelako bertan ezagutu, eta bertan dituen lagunak irlandarrak, madrildarrak eta katalanak direlako, batez ere.

Haurrei kantak irakasten

"Irlandan ez dut aukera askorik izan euskaraz hitz egiteko. Hala ere, mantentzen saiatzen naiz,

bestelako bideetatik. Kuadrillakoekin hitz egitean euskaraz egiten dut, euskarazko musika entzuten dut eta bikoteak euskarazko hitzak eta esaldiak erakusten dizkiot. *Au pair* bi urtez aritu ostean, irakaskuntzan hasi nintzen, eta, gaur egun, haur eskola batean egiten dut lan, irlandera ikasiz eta irakatsiz. Hala ere, haurrei irakasten dizkiet euskarazko hitzak eta baita abestiak ere. Arrotza da beraientzat, bitxia, hizkuntza xelebrea zenbaitentzat, baina gogoz eta gustura ikasten dituzte kantak.

Euskara, nortasunaren parte

Horrekin batera, azpimarratuko nuke etxetik urrun bizi naizen arren euskara gure nortasunaren parte dela, eta, etorkizunean haurrak izaten badituzte, atzerrian, euskara presente izango dutela, zalantza gabe. Oso argi dut hori; nire amamaren hizkuntza izanda, nire gurasoek ez dute ikasi, eta nik hori utzi nahi diet nire ondorengoei".



"Euskarazko lanen eguna egiten dugu, hainbat ariketarekin"

ARRITXU BARRUSO ARUBAN BIZI DEN BERGARARRA

Herbehereetako Erresumaren menpe dagoen Karibeko Aruba uhartean bizi da gaur egun Arritxu Barruso, senarrarekin eta bi seme-alabekin.

Testu-liburuekin lagunduz

"Senarrak ingelesez hitz egiten die haurrei umetatik, eta euskaraz eta gazteleraz ere egiten diegu. Aruban bost

hizkuntzarekin ari dira eskolan; dakitenez gain, herbeheretarrez eta papiamentoz, bertako hizkuntza. Hala ere, euren lehen hizkuntza euskara da eta astean behin euskarazko lanen eguna egiten dugu. Euskarazko testu-liburu batzuk ekarri nituen, eta idazkera eta irakurketa lantzen ditugu".




Ekimena QR kodea
(ISO urteko konpromisoa
eta kanikidetasun)



60 URTEZ EUSKARARI BIDEA EGINEZ



Hasier Larrea DEBAGOIENA

Datorren urteari itxaropenez begiratzen dio euskal komunitateak. Pandemiak euskarari ere ez baitio onurarik ekarri, hein handi batean, hizkuntza normalizatzeko ekitaldi jendetsuak ezin izan direlako aurrera eramane. Korrikaren kasua izan da hori, aurtengo udaberrian egitea zelako asmoa, 2019ko ekitaldiaren ostean. Beste dinamika batzuk, ordea, garatu ahal izan dira; iazko Euskaraldia kasu. Hala ere, Euskaltzaleen Topaguneko antolatzaileek frogatu dute osasun egoerak zeharo baldintzatu zuela ariketa soziala. Ondorioz, ez zioten nahi besteko zukurik atera, eta arantza hori ateratzeko baliatuko dute datorren urtea.

Korrika, "egoerara moldatuta"

Bi urtean behin antolatu izan da, 1980tik, AEKren eskutik jaioetako egitasmoa, 1982an 1983an egindakoak salbu. 2021ean tokatzen zen 22. aldia martxan jartzea, baina historian lehen aldiz atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek: "Pandemiaren transmisioa ahalik eta gehien



2019ko Korrika bailaratik igaro zeneko une bat. GOIENA

2022. urtea, "euskaltzaleena"

Martxoaren 31tik apirilaren 10era da egitekoa Korrika, eta azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskaraldia. 'Hitza' eta 'ekintza' jarri dituzte jomugan bi ekitaldiek

kontrolatzeko". Erabaki "latz" haren berri eman zutenean "baldintza aproposetan" egin gura zutela adierazi zuen Asier Amondo Korrikako arduradunak. Hala, 2022ko udaberria data egokia izan zitekeela ondorioztatu zuten.

Orduko asmoa, oraingoa bezala, "denok desiratzen dugun Korrika" egitea zen. Momentuko osasun egoerak zeresan handia izango du ekitaldiaren nolakotasunean. Horren harira, Arrasateko AEK euskaltegiko zuzendari eta irakasle Oskar Elizburuk aurreratu du "ohiko Korrika ezin bada egin, baldintzatua" egingo dela, eta "egon daitezkeen eszenatoki posible guztiak aztertzen" dihardutela gaineratu du.

Amurriotik Donostiara

Esanak esan, 22. ekitaldiaren leloa argitaratu dute dagoeneko: *Hitzekin*. Hilaren 17an Donostiako San Telmo museoan egindako agerraldian eman zuten horren berri: "Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, hiztun



EUSKARALDIA

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN


EROSKI
 ARRASATE
 Musakola z/g ARRASATE,
 Tel.: 943 71 10 30



cold forming specialists

Euskaraldiarekin bat!



2022ko Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia, Iruñeko Zentral aretoan. IDOIA ZABALETA / FOKU

proaktiboak behar ditu, konbenzimendutik ekintzara, praktikara, jauzi egingo dutenak".

Horrez gain, martxoaren 30ean Amurrión hasi eta apirilaren 10ean Donostian amaituko dela aurreratu zuten, guztira 2.500 kilometroko ibilbidea osatuz. Ohi bezala, Euskal Herriko herri gehienetatik igaroko da Korrika: "Datozen egunetan joango gara ibilbidearen nondik nora-koak jakinarazten".

Bestalde, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izango dira datorren urteko omenduak,

"beren ibilbidean adierazi duten konpromiso eta ekinagatik".

Babesteko moduak

Datorren aldirako ere modu askotan parte hartzeko aukera ireki du AEK-k, ekitaldian bertan korrika egiteaz gain. Antolaketan lagundu nahi duenak herri mailako Korrika batzordeetan parte har dezake; ekarpen ekonomikoa ere egin daiteke, Korrika laguntzaile bihurtuz edo online dendan petoa erosiz –informazio gehiagorako, sartu *korrika.eus* atarian–; eta,

enpresa edo saltokien kasuan, berriz, kilometroak eskuratu ditzakete, Korrikaren bulegoetara joanda.

Euskaraldia, hirugarrenez

Euskaraldiarekin jarraituz, hurrengo hitzorduaren berri azaroaren 20an eman zuten, Iruñeko Zentral aretoan. Hala, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da hirugarren ariketa sozial masiboa.

Iruñeko agerraldian Euskaraldiko, Euskaltzaleen Topaguneko, Nafarroako Gobernu,

Euskal Hiriguneko Elkargoko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak hartu zuten hitza. Adierazi zuten hizkuntza ohiturak aldatzeko sortutako ekimenak "proposamen berriak" egingo dizkietela partaideei, orain arte egindakoak mantenduta: "Aho-bizi eta *belarriprest* rolei eutsiko diegu, eta, era berean, bigarren edizioan berrikuntza nabarmena izan ziren ariguneak finkatuko ditugu". Izan ere, pandemiaren eraginez ezin izan zuten nahi beste entitatetara heldu 2020an, eta hurrengo urtea espero dute izango dela bigarren edizio horretan probatutako ildo hori zabaldu eta sakontzeko urtea.

Egungo irakurketa eginda, Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidenteak gaur egun euskararen egoera "larria" dela gogoratu du: "Zaintza eta bultzada iraunkor eta indartsuak behar ditu euskarak, bere aldeko jarrerak indartzeko, ezagutza unibertsalizatzeko eta erabilera handitzeko". Euskara ulertzen duten haur eta gazteak; familietan, eskoletan edo euskaltegietan euskara ikasi dutenak gero eta

gehiago direla aintzat hartuta, "herritarrak euskararen alde egotetik erabilera aktibatzen tenorea" iritsi dela nabarmendu du Amonarrizek.

Idea horri egiten dio keinu, hain zuzen, *Hitzetx ekitoko garaia* leloak. Sustatzaileen esanetan, "harreman sozialak mugatuta egon dira hilabeteetan, eta hizkuntza ohituren aldaketan jauzi berri bat emateko hitza eta ekintza uztartzeko beharra azpimarratu nahi izan da leloaren bidez". Hori horrela, hitzaren bidez "eragiteko deia" egin nahi diete herritar eta entitateei, "hitza baita hizkuntza ohiturak aldatu eta inertzia apurtzeko tresna nagusia".

Herri batzordeak

Eta aurreko deialdietan bezala, datorren urtekoan ere herri batzordeak izango dira Euskaraldia herri herri martxan jarriko duten motorrak. Pixkanaka hasiko dira batzen 2022an, eta urte osoa izango dute iaz pila-tutako esperientzia gizartearen baitako esparru askotan praktikan jarri eta hizkuntza ohituretan aldaketa eragiteko.



Gualbi


aholkularitza


**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!






Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

Hitanoaren olatua iritsi da

Bertsotan, lagunekin poteoan, erosketak egiterakoan... zergatik ez dugu hitanoa erabiliko? 'Appa hi!' aplikazioari esker asko dira hitanoa erabiltzen hasi direnak



Hitanoa ikasteko Appa hi! aplikazioa. GOIENA

Maidar Arregi DEBAGOIENA

Bost astean -35 egun- Oñatiko hitanoa ikastea posible da *Appa hi!* aplikazioaren eskutik. Dagoeneko 300dik gora lagunek jaitsi dute. Badihardugu Euskara Elkartek CodeSyntax enpresarekin elkarlanean Oñatiko Udalarendako garatu duen aplikazioa da.

"2019an, *Ingo Xonau!* proiektuaren baitan abiatu genuen hitanoa indarberritzeko ekimena Oñatin bereziki emakumeei zuzenduta, nokari, zegoen egitasmoa. 50 urtetik beherako

emakumezko oñatiarren artean galzorian zegoela ikusi genuen, eta nokarik ez zela erabiltzen. Mutilena, toka, aldiz, bizirik zegoen eta erabiltzen zen", azaldu du Badiharduguko langile eta aplikazioaren sustatzaile Idoia Etxeberriak.

Ikasi hitanoa 35 egunean

Hitanoa ikasteko *app*-ak egunero-egunero pilula bat eskaintzen die erabiltzaileei: "Informazio jakin bat, azalpenak, marrazkiak edota bideoen bat eskaintzen ditu aplikazioak. Ondoren, gal-

dera-erantzunekin partida jokatzeke aukera dago. Galdera ondo erantzunez gero, hurrengo egunerako pilula aktibatzen da. Hala, denak ondo erantzunez gero, 35 egunean hika ikasteko aukera dago. Bideo adibideen artean, 2019an noka diharduten Oñatiko emakumeei egindako elkarrizketak daude -gizonezkoen bat edo beste ere agertzen da bideoetan-. Herritarrek agertzen dira, eta horrek erakargarriago egiten du hitano-jokoa". Ezin aipatu gabe utzi balio erantsia Mirari Sagarzazuk eginda-

ko ilustrazio lanek ematen dietela ariketa horiei.

Oñatitik Euskal Herrira

Oñatiko hitanoa ikasteko aplikazioak beste salto bat emango duela ere iragarri du Idoia Etxeberriak: "Baturako bertsioa egiteko asmoa daukagu. Data zehatzik ez daukagu, baina datorren urterako saltoa emango dugu".

Etxeberriak gaineratu du "neurri batean" erreferentzia bilakatu dela Oñatiko ekimena hitanoa sustatzen ari direnen

artean. "Durangaldeko AEK-k guk Oñatiko hika bultzatzeko poltsikorako atera genuen liburuxkaren bertsioa kaleratu du. Usurbilen ere gure liburuxkaren beste bertsio bat kaleratu berri dute, eta badirudi badagoela hitanoaren aldeko olatua".

Oñatiko Hikaldiak negurako kantua ere badauka. Atzoko Ogixa taldeko Arantzazu Sagarzazuk eta Maite Aizpuruak sortutakoa da. Oso kantu alaia da, eta harrera beroa izan duena. "Hikaldiaren baitan emandako kontzerturako eta hika poteo-



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

Agirrebidea 2, Bergara (Gipuzkoa)
info@maltuna.eus
943 89 92 70 - 943 89 92 71





EUSKARALDIA

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com





Guk ere euskaraz!!



Artetxe, Iguaran, Lizaso eta Mendiluze hika bertso-saioan. GOIENA

rako sortu duten kantu itsaskor-
ra eta polita da", dio Etxeberriak.

Gaur-gaurkoz, Android siste-
marako soilik dago *Appa hi!*
aplikazioa garatuta, baina asmoa
da laster Iphonerako ere gertu
egotea. "Apple etxearen baimen
kontu batzuk medio oraindik ez
dago gertu Iphonerako aplikazioa,
baina asmoa da ahalik eta az-
karren eskuragarri izatea. Gai-
neratu nahi nuke aplikazioa
jaistea doakoa dela eta erabil-
tzaileek ez dutela zertan hika
jakin jokoaz gozatzeko. Gainera,
ez da soilik gazteendako; izan

ere, adin tarte zabala ere dabil
gaur egun teknologia berriekin,
eta guztiendako da egokia".

Hitanoa berreskuratu

Elgetan ere hirugarrenez anto-
latu dute hitanoa berreskuratu
eta bultzatzeko ikastaroa. Juan
Martin Elexpuruk, ikastaroko
irakasleak, hitanoaren transmi-
sioak zertan huts egin duen
azaldu du: "Badira hitanoaren
erabilera galtzear egotearen
zenbait arrazoi. Baina kontuan
izan behar dugu euskara bera
ia galtzear ere egon dela. Horre-

gatik, hika bigarren mailara
igaro zen. Hala, transmisioan
asko galdu da, eta gurasoek ez
diote seme-alabei irakatsi. Eus-
kaldun berri asko ere sortu da,
eta horiei ere ez zaie hitanoa
irakatsi eta transmititu".

Zorionez, baina, egun gizartean
badagoela hitanoa ikasteko go-
goa eta nahia azaldu du: "Hikak
asko ematen du. Lagun arteko
eta konfiantzazko giro beroa
sortzen du. Etxera iritsi eta za-
patilak jartzea bezalaxe da: ger-
tutasunaren isla da; halaber,
borrokan ere hika erabiltzen
da. Hikak halako berbeta bero
bat ematen du".

Erabilera okerra

Maiz, orde, hitanoa ez da ondo
erabiltzen; gehientsuenetan, ez
beti, belaunaldi gazteen artean.
Baina zer da hobe, hika gaiz-
ki erabiltzea edo ez erabiltzea?

HITANOAK KONFIANTZA, LAGUNTASUN ETA BEROTASUN GIROA SORTZEN DU

Zalantzarik gabe, erabiltzearen
aldeko hautua egin du Juan
Martin Elexpuruk: "Hizkuntza
bat erabili egin behar da; beraz,
hitanoa beldurrik gabe egin
behar dugu; baita zuka ere.
Denak erabiltzearen aldekoa
naiz. Alboan lagunen batek zu-
zentzen bagaitu, ondo, baina
erabili, erabili egin behar dugu
hitanoa".

Elexpuruk gaineratu du *Appa
hi!* moduko ekimenek hitanoa
gizarteratu eta gerturatu egiten
dutela. "Nik uste dut Euskal
Herri osoa aintzat hartuta Oña-
tik azken urteetan lan ederra
egin duela herri euskara bul-
tztatzen, eta lan gehien egin duen
herria izan dela. Hika ere, tes-
tuinguru horren barruan eta
Idoia Etxeberriak sustatutako
app-ari esker bultzatu dute.
Aplikazio oso erabilgarria da,
eta, gaur egun ia dena telefo-
noaren bitartez egiten denez,
ekimen aparta dela deritzot".

Elgetako Udaleko Euskara
zinegotzi Ane Bilbao hika-lagu-
na da. Hitanoa erabiltzen duen
arren, kontatu du erraztasunez
hitz egiten ikasteko parte har-
tu duela ikastaroan: "Falta zaiz-

kidan ohitura batzuk hartzeko
baliagarria zait ikastaroa; hala,
gertukoak hika egitera bultzat-
zeko aitzakia ere bada. Etxean,
gurasoei zein anaia eta lehen-
gusuei entzun diet hika egiten;
hala ere, niri ez didaten irakatsi
eta ez da transmisio hori gertatu".

Hitanoa bertsoan

Askorako, eta jende asko era-
karriaz, gainera, Arrasaten
nahiz Oñatin hika bertso-saioak
antolatu dituzte.

Oñatiko gaztelekua, esatera-
ko, bete egin zen Miren Artetxe,
Oihana Iguaran, Sebastian Li-
zaso eta Aitor Mendiluzerekin
egindako hika bertso-saioa jarraitzeko. Mirari Sagarzazuk
jarritako gai eta ariketei bota
zizkieten bertsoak; askotan,
gainera, hitanoan.

"Horixe zen helburua: batez
ere, Oñatiko hitanoa nabar-
mentzea. Saioaren aurretik
zalantza eta erreparatu asko ge-
nituen, baina gero, eurek asko
eskertu dute, ni oso gustura
egon naiz eta plaza ere epel
zegoen, jendea bero", kontatu
du Sagarzazuk.



*Zutaz arduratzen gara
Guk ere euskaraz!!*



Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona



UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

Eremu ez-formalak, euskarendako beharrezko

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira EAEko erakunde nagusiek adostutako adierazpen bateratua azpimarratzen den beharretako bat da. 'Euskara lanabes, aro berrirantz' leloarekin, euskal hiztunen lanari balioa eman nahi diote

Mireia Bikuña Madrid

Iazko etenaren ostean, Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkai-ko eta Gipuzkoako foru aldundiek, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalek, Eudelek eta Uemak bat egin dute Euskararen Nazioarteko Egunaren harira egin beharreko adierazpe-nean. "Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildoak eta sarea. Zenbaterainoko balioa eranstendion komunikazioak gure egunerokotasunari. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusieta-ko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta



Erakundeetako ordezkariak, talde argazkian. EUSKO JAURLARITZA

jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea", azaldu dute.

Adierazpena irakurtzeko egin-dako agerraldian, besteak beste, egon dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Miren Dobaran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berrintzasunerako Organoko zuzendari Miren Elgarresta, eta Uemako zuzendaritza batzordeko kide eta Aramaioko alkatea Lierni Altuna.

Gazteengan eragitea

Euskara lanabes, aro berrirantz leloarekin publikatu dute adierazpen bateratua, eta bereziki azpimarratu dute erabilera-eremu berrietan eta ez-formaletan euskarak izan behar duten garrantzia. "Euskararen bizi-indarra dugu jokoan; eremu formalez gainera, eremu ez-formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilera jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan,

euskararekiko bizipena", irakur daiteke. Eta, gazteengana heltzeko, aisialdi eta kirol eremuetan ipini gura dute fokua. "Nekez bilatuko genuke esparru egoikiagorik gazteengana heltzeko, euskararen erabilera ez-formalari bultzada emateko".

Euskal hiztunen garrantzia

Eta, erronka berriak bilatzeko eta gauzatzeko bide horretan, erakundeek ez dituzte ahaztu euskal hiztunak. "Eredugarria da euskal hiztunen komunitateak egin duen lana; besteak beste, erabilerekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikoek eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzaren publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar".

Testua bukatzeko, bidean parte hartuko dutenei eskua luzatzen diete, "bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko". "Euskarra prest dugu. Abia gaitzen. Guztion esku dago".

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917

Su euskararekin bat!

Euskararen taupadak!

ARRASATEKO UDALA

ABENDUAK 3**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA****Oñati 'Album' antzezlan**

Batxilergoko ikasleendako emanaldia izango da. Oostean, aktoreekin solasaldia egingo dute. Intza Alkain eta Mikel Ibarguren egongo dira oholatza gainean.

Santa Anan, 12:00etan.

Eskoriatza Euskarazko jostailuen erakusketa

2 urtetik gorakoendako euskarazko mahai-jolasak eta jostailuak egongo dira ikusgai, eta probatzeko moduan.

Ludotekan, 16:45ean.

Bergara 'Euskararen festa'

Haur Hezkuntzako laugarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeendako.

AIDAU Haurren Zerbitzuan, 17:00etan.

Oñati Euskal ginkana eta jolasak

Gaztelekuak, Txipistin zerbitzuak eta Txalokak elkarlanean. Irekia.

Gaztelekuan eta azokan, 17:00etan.

EGITARAUA



Juanito Saizar, bilobarekin, euskarari buruz berba egiten. GOIENA

Arrasate Bukaera festa

Helduendako jolasak, kantaldi kolektiboa, talde argazkia eta txokolate-jana egongo dira.

Biteriko estalpean, 17:30ean.

Eskoriatza Buruhandiak

BERTAN BEHERA GERATU DA

Antzuola Musikarekin girotuko dute herria

Egun osoan euskal musika.

Antzuolan, egun osoan.

Eskoriatza Gauargi taldea

BERTAN BEHERA GERATU DA

Antzuola 'Nora' filma

Lara Izagirrenen pelikula, Ane Pikaza eta Itziar Ituño aktoreekin.

Torresoroan, 18:00etan.

Oñati 'Album' antzezlan, herritarrendako

Eduene Azkaratek zuzendutako lana, Formol Laborategiaren eskutik. Sarrerak, zortzi euro.

Txokolateixan, *Oñati.eus*-en eta leihatila digitalean.

Santa Anan, 19:00etan.

Eskoriatza Bost Axola taldea

BERTAN BEHERA GERATU DA

ABENDUAK 9**Aramaio 'Miñan' liburuen aurkezpena**

Amets Arzallus eta Ibrahima egongo dira ekitaldian.

Solasaldia egingo dute.

Kultura etxean, 19:00etan.

ABENDUAK 17**Aramaio Bikoizketa lehiaketa**

Umeendako, nerabeendako eta helduendako.

Kultura etxean, 18:00etan.

ABENDUAK 18**Aramaio 'Eta kittorik ez' antzezlan**

Jason Guerraren lana. Ane Gebara eta Josune Velez de Mendizabal oholatza gainean.

Kultura etxean, 19:30etan.

Herri euskaldunetako herritarrak aitzindari eta eredu garelako euskararen normalizazioan

Lan munduan ere eman dezagun pausua



emun

Euskara eta berrikuntza soziala

gai sozialak kudeatzen lagunduko dizun aholkularitza gara

euskara · genero berdintasuna · gobernantza · gizarte erantzukizuna · berrikuntza plataformak www.emun.eus

Lan munduan euskarari bideak zabaltzen



"Gure munduek bat egingo dute Karrajun"

MAITE BARRAINKUA ETA MIKEL IRAZABAL BAOBEER GARAGARDOAK
Gaur zabalduko dute Karraju salmenta puntua Barrainkuak eta Irazabalek.
Artisau-garagardoek eta zeramika-lanek bat egingo dute Berraondokoako lokalean

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Interesatuak espazio berria eza-gutxera gonbidatuta daude, 19:00etan.

Zer dela-eta aukeratu duzue Karraju izena?

Bizkai aldean etxe barruetan dagoen harrera-gela edo korridorea da *karrajue*, eta atondu dugun espazio hau, azken finean, hori da: leku bat non bat egiten duten gure mundu guztiek –garagardoa, zeramika...-. Bidegurutze bat da.

Eta irekiera gaur da.

Ez dugu *inaugurazio* hitza erabili nahi, baina publikoki zabalduko dugun lehenengo eguna izango da. Hortik aurrerako gure ordutegia zein izango den ez dakigu, oraindik, ziur. Joango gara eguneroko ordutegia zehazten. Bihar, zapatua, eguerdi aldera egongo gara zabalik.

Zer egongo da Karrajun?

Baobeer garagardoekin batera estatu mailakoak diren beste artisau-garagardo asko egongo dira bertan. Gehienak Kataluniakoak dira, egia esan, eta Euskal Herrikoak ere badaude. Belgikako eta Alemaniako garagardoak ere izango ditugu. Horrekin batera zeramika-lanak ere izango dira: portzelanazko apaingarriak, belarritakoak... Oroigarriak, gehienbat. Artea-



Mikel Irazabal eta Maite Barrainkua, Karraju salmenta puntuan, eguaztenean. L.Z.L.

"SORTUTAKO AZKEN BI GARAGARDOEK JASO DUTE SARIA SITGESEN, ETA OSO POZIK GAUDE"

rekin lotutako portzelanazko plaketan egindako lanak ere izango dira, eta bertan egindakoak. Portzelana zeharrargia da eta erliebearekin egiten ditugu. Ikusgai egongo dira Karrajun. Pertsonalizatuak ere egingo di-

tugu erretratuekin, urteurrenetarako eta abar.

Aspaldi hartu duzue lokala zabalteko erabakia?

Berez, bagenbiltzan lokala erabiltzen, baina atondu barik. Garagardoaren munduan, ordea, salmenta zuzenerako puntua edukitzea oso garrantzitsua da. Ikusiko dugu jendea Elgetaraino igotzera animatzen den. Jarraituko dugu, orain moduan, Baobeer garagardoaren banaketarekin, baina gainerako produktuak eskuratzeko bertara etorri beharko da.

Energia proiektuen hurbiltasuna eta jasangarritasuna lehentasun

Elgetako jeltzaleek erabat gaitzetsi dute herriko lurrak zeharkatzeko asmoa duen goi-tentsioko linea berria

L.Z.L. ELGETA

Elgetako jeltzaleak arduratuta agertu dira irailaren 28ko BOEn argitaratutako informazioarekin. Aragoin 14,7 MWp-ko parke fotovoltaikoa egitea da asmoa, eta proiektuak eragina izango du, besteak beste, Elgetan. "Gure ustez, ez da onuragarria urruti, Aragoin, sortuko den energia batek Elgetako zati handi bat zeharkatzea, horrek ingurumenean duen eraginarekin, eta, gainera, Euskadiren energia gaitasuna baldintzatuz", esan du Aintzane Oiartzabek. EAJk

Udalari eskatu dio proiektu horri alegazioak aurkezteko, eta proposatu dute frontoiko teilatuan energia ekoizteko plakak aurreikusten dituen proiektu fotovoltaikoa aintzat hartzeko.

Elgetako EAJk adierazi du energia berriktarriari buruzko proiektuen hurbiltasuna defendatzen duela, eta udal edo eskualde mailako komunitateetatik neurtuak: "Elgetako frontoiaren teilatuan energia ekoizteko plakak dituen proiektu fotovoltaikoarekin proposatzen dugun bezala".

GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

Herriko kutxazain automatikoa, kaltetuta

Zapatua ezkerro hondatuta dago pantaila. Kutzazaina badabil, baina ikusi egin behar da nola! Txistua, apurtu duenarendako; eta baita ere konpontzeko presarik ez dutenendako.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.



Brontzezko bi domina Sitgesko lehiaketan

Lau urtez jarraian itzuli dira sariarekin La Fira del Poblenoun antolatutako sariketarik. Espainia mailako lehiaketa da, eta bi kategoriatan jaso dute saria. Kokaoo garagardoak *Spice, Herb or Vegetable Imperial Stout* kategorian jaso du saria eta Bide Gorri garagardoak, *Specialty IPA* kategorian. Gaur ospatuko dute, lokal berriaren irekieran.



Mikel Irazabal bi dominetako bat jasotzen, Sitgesen. BAOBEER

Elgetari eskaintzekoa zen 'Harira' saioa, bertan behera

Martitzenerako zegoen iragarritako Elgetari eskaintetako *Harira* saioa Iraitx Lazkano alkatearekin eta Elgetako jeltzaleen bozeramaile Aintzane Oiartzaberekin. Saio hori, ordea, atzeratu egin da. Goienak barkamenak eskatu nahi dizkie ikus-entzuleei, eta Iraitx Lazkano alkateari opa nahi dio lehenbailehen osatu dadila.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

NESKAK PALAN ETA MUTILAK ESKUZ

Naiara Cap-Irune Errasti/Maitena	
Mañarikua-Irune Diaz	17-18
Uxue Larrea-Miren Argi Zeziaga/Iratxe	
Bravo-Patricia Abella	18-7
O. Erostarbe-G. Arizmendiarrera/E.	
Zubiaurre-A. Elkorro	18-16
Iban Retolaza-Mikel Elkorro/Sergio	
Bouzas-Oskar Sarasua	18-14
M. Beretxinaga-D. Cantabrana/E.	
Garate-H. Gallastegi	18-8

Larramendi: eztabaida politikoa, fokuez kanpo

Larramendiko plantaz ez zen eztabaida politikorik izan asteleheneko osoko bilkuran, baina bai hurrengo egunetan, ohar bidez. EAJk uste du EH Bilduk "kudeaketa negargarria" egin duela, eta EH Bilduk hauxe erantzun die jeltzaleei: "Gezurak hanka motza du"

Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko plantaren proiektua lehen aldiz heldu zen osoko bilkurara, astelehenean; Bergarako Udalak Jaur-laritzara bidalitako alegazioen berri eman zen udalbatzaren aurrean. EH Bilduk Valogreene Paper BC enpresaren eskaera jaso zenetik orain arteko prozesuaren kontakizuna egin zuen, baina udalbatzan ez zen eztabaida politikorik izan EH Bilduren, EAJren eta PSE-EEren artean.

EAJren oharra bilkura ostean

Hala ere, EAJk martitzenean ohar bidez salatu zuen EH Bilduk "kudeaketa negargarria" egin duela gaiarekin: "Alkateak sinatu zuen hirigintzako baimena, eta enpresa Bergaran, zehazki Larramendin, kokatzeko balioa eman zion, guk horren berri izan gabe. Erabaki hori hartzeko orduan ere ez zen inolako azterketarik agindu, gerora hartu zuten. Bergaran ezarri nahi denaren antzeko planta batera ere egin zen bisita, eta bertatik bertara ezagutu zen zer jarduerara mota izango zuen plantak. Alkateak ez balu nahi izan industria-jarduera hori, Valogreene, gure udalerrira etortzea, enpresak ez zukeen inolako aukerarik izango, baina lizentzia



Larramendi gai-zerrendan egon arren, apenas izan zen eztabaidarik. JOKIN BEREZIARTUA

lortu zuten. Orain, EH Bilduren Gobernu hainbat eragileren presioengatik eta sortu den zarata mediatikoaren ondorioz noraezean dabil, ez daki nola atera atakatik".

Jeltzaleek eskaera zehatzak dituzte Udal Gobernuarendako: "Idatziz eskatu diogu alkateari informazio guztia, dauden eta prozesu osoan ezagutu ez ditugun txostenak, eta, batez ere, garrantasuna, era guztietako informazioak ezkutatu baitira. Bestalde, exijitu nahi diogu ez dezala beste alde batera begiratu,

ez dezala beste erakunderik egoeraren errudun egin. Alkateari ausardia eskatzen diogu autokritika egiteko eta erantzule bakarra bera dela onartzeko. Ekintzen ondorio juridikoen berri une oro izatea ere eskatzen diogu". Galdegin dute ea zer ondorio izango dituen baimena indargabetu izanak Bergarako Udalarentzat; alegia, emandako lizentzia bat baliogabetzeko dekretu bat sinatzeak, eta jakin nahi dute dute ea enpresak udal lizentzia baliogabetzeko erabakiari helegitea jarriko dion.

EH Bilduren erantzuna

EH Bilduren arabera, EAJ "azpijokoan eta gezurretan" ari da: "Prozedura tekniko-administratibo bati, hirigintza bateragarritasun ziurtagiriari, alegia, intentzionalitate politikoa eman nahian ari da, hori ez dela egia -ezta legala ere- jakinda. Valogreene Bergarara ekartzeko proiektuari bultzada politikoa EAJk agintzen duen Eusko Jaur-laritzak eman dio, Arantza Tapiak argi eta garbi azaro hasieran esan zuen moduan. Euren aurreikuspenetan zegoela eta babes osoa zuela adierazi zuen".

Bestalde, EAJk osoko bilkuran adierazpenik egin ez izana salatu du EH Bilduk: "Alegazioetan, ingurumen eta hirigintza bermerik ez dagoela jartzen da mahai gainean. Ekarpenik egin gabe eta alegazio guztiz teknikoak badira ere, EAJk horien aurka bozkatu zuen zegokion batzordean. Zergatik? Bergararron ongizatearen kontra izanda ere, Jaur-laritzako euren lagunak ez molestatzeko? Bestalde, azaroaren 29ko osoko bilkuran, gaiaz galdetuta, Bergarako EAJko bozeramaileak esan zuen proiektuaren inguruko balorazioa egitea Jaur-laritzari dagokiola. Eta horretan ados gaude gu ere; ingurumen eskumenak harenak dira eta hark tramitatzen du ingurumen baimen bateratua. Orain, ordean, ohar bidez, Udal Gobernuari botatzen diote ardura. Eusko Jaur-laritzatik deia jasoko zuten? Edo gezurak jendaurrean esaten ez ziren ausartu? Jendea ez da inozoa". Horrez gain, afera honetan EAJk informazio osoa izan duela diote: "Jaur-laritzarekin lotura zuzena baliatuz, Udalak berak baino lehenago ere jaso izan dute informazioa; alegazio epea luza-

tzearen albistea, esaterako. Informazio ona izan ahala partekatu egin dugu herritarrekin eta eragileekin, EAJrekin barne. Bilereaz gain, Elxeko planta pilotura egindako bisitara gonbidatu ziren ordezkari politikoak. EAJko ordezkari bat, korporazioko kide dena, bertan egon zen, teknikari eta auzo ordezkarietara zabandu zitzaizen gonbidapenari erantzunez. Gainera, oposizioari zorrotz eman zaie prozesuan sortzen ziren berrien eta Udala ematen ari zen pausoen berri; alkateak zuzenean, kasu askotan".

Amaitzeko, EH Bilduk "argi" adierazi nahi izan du ez duela Valogreeneren plantarik nahi: "Ez dira betetzen hirigintza eta ingurumen baldintzak, aipatutako alegazioetan azaltzen den bezala. Eta zuzenean galdetzen diogu Bergarako EAJri: Jaur-laritzako zuen lagunekin batera proiektua babesten duzue? Bergararrok merezi dugu zuen postura zein den jakitea".

PSE-EE, ikuspegi teknikotik

PSE-EEko Alberto Alonsok oraingo prozesua aspektu teknikotik aztertu behar dela esan dio GOIENARI: "Udalera heltzen diren espediente guztiak aztertu egin behar dira, bideragarritasun orokorra aztertu, ingurumen-bideragarritasuna bermatu... Gaia behar den moduan baloratzeko, espediente administratibo horren fase guztiak ezagutu beharrean gaude".

GAIARI "JARRAIPEN TEKNIKO, JURIDIKO ETA ADMINISTRATIBO ZORROTZA" EGINGO DIO UDAL GOBERNUAK



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Agur, eta besarkada bat

"Isildu, edo esan isiltzea baino hobea den zerbaite". Calderon de la Barca (1600/1681). Poeta eta idazle handia. Dударik gabe, gauzak hobeto joango zitzaizkigun hura kontuan hartu izan bagenu.

Orain, hain zuzen ere, egoera horretan nago, isilik hobeto nagoela uste baitut. Baina ez dut beti horrela jokatu *Nire*

ustez atalean kolaboratzaile izan naizen urteetan; gehienetan, Bergarako eta bergararren bertute ugariak nabarmendu ditut, eta "bertuterik ezak" ere salatu, horiek ere badaudelako. Baina ez dut horiek aldatzea lortu; hau da, ez dut arrakastarik izan.

Horrek pentsarazten dit zutabe honen jarraipena eskasa dela edo bertan egiten

diren iruzkinekiko desadostasuna dagoela. Bata edo bestea izan daiteke. Bestalde, komenigarria eta beharrezkoa iruditzen zait kolaboratzaile berriei lekua uztea, GOIENA aldizkarira hurbilduko diren esperantzan, Calderon de la Barcaren pentsamendu jakintsu eta filosofikoarekin... Guztion onerako. Agur, eta besarkada bat.

'Gogoan hartzeko izenak' erakusketa, gaurtik hilaren 12ra

Gaur hasi eta abenduaren 12ra arte *Gogoan hartzeko izenak* erakusketa egongo da ikusgai Aroztegin, ohiko ordutegian. Azken 50 urteetan errepresio polizialak eta estatu-terrorismoak eragindako ondorioak jorratzen ditu: "Ehundik gora pertsonaren historiak biltzen ditu; ez ditugu izen horiek historiaren gibelaldean geratzea nahi".

Hemezortzi proposamen 2022ko aurrekonturako

EAJk asteon aurkeztu du EH Bildurekin batera garatu nahi duen 2022ko udal aurrekonturako proposamena; kopuru handiena Boluko malda egonkortzera bideratu nahi dute, eta Seminarioko lur azpiko parkingerrako herri kontsulta bat nahiko lukete

Jokin Bereziartua BERGARA

Eguazten iluntzean egindako prentsaurrekoan, 2022rako udal aurrekonturako proposamenaren berri eman zuen EAJk. Hamazortzi proiektu hartzen ditu bere baitan jeltzaleek landu eta Udal Gobernuari helarazi dioten proposamenak; jeltzaleen esanetan, "EH Bildurekin elkarlanean" garatu nahi ditu proposamenak. Eguaztenean bilera izan zuten EAJk eta EH Bilduk, eta biltzen jarraitzeko asmoa agertu dute; Udal Gobernuaren aurreikuspena da aurrekontuak abenduaren 20ko osoko bilkuran onartzea.

"Herri kontsulta" parkingerrako

Jeltzaleen proposamenen artean, Seminarioko parkinga egin edo ez erabakitzeke herri kontsulta bat da lehena. "Herriari hitza eman eta herriak erabaki dezan lur azpiko parkinga behar dugun edo ez; 2022ko lehen sei hilabeteetan egin beharko litzateke". Horretarako, 40.000 euroko partida proposatzen dute.

Kopuruari dagokionez, esanguratsuenak diren proposamenen artean daude honako hauek: lur-jausia gertatu zen Boluko malda egonkortzeko proiektuaren lehen eta bigarren faseak exekutatzeko 400.000 euro proposatzen dituzte; "erabat" zaharkitua geratzen ari den Simon Arrieta plaza eraberritzeko eta bertan "irisgarritasun erreala" lortzeko proiekturako 300.000 euro; Martokoa berriro urbanizatzeko proiektua gauzatzen hasteko 200.000 euro; COVID-19aren ondorioak arintzen laguntzeko 200.000 euro; "energia berriagarrien aldeko apustua egin eta energetikoki burujabe izateko" bidean aurrerapausoak emateko 200.000 euro; umeendako parke estali baterako 100.000 euro; eta Arrizuriaga jauregia kultura jardueretarako eragile nagusia izan dadin *-Arrizuriaga factory*



Murgiondo, Etxaniz eta Galarraga, eguazteneko prentsaurrekoan. TXOMIN MADINA

IRUNE GALARRAGA: "UDAL GOBERNUAREN PROPOSAMENA ABERASTEA DA GURE HELBURUETAKO BAT"

moduan aurkezten dute jeltzaleek 80.000 euro.

"Aberastu eta egokitu"

Proposamen horietako aurretik onartu eta gauzatu ez direla diote jeltzaleek: "Proposamen batzuk aurreko agintaldian hasitako bideari jarraituz doaz, beste batzuk EH Bilduren agintaldi honetako aurreko bi urteetan egindako proposamenak dira eta besteak, azkenaldi honetan herritarrengan sortu diren kezka eta beharretara egokituak".

Hala, bost ardatzen bueltan egin dituzte proposamenok: partaidetza, ongizatea, Bergara, kultura eta Udala. "Gure ustez, Udal Gobernuaren aurrekontu proposamenak ez ditu aintzat hartzen herritarrek dituzten beste behar batzuk; horregatik, proposamen hori aberastea eta bizi dugun egoe-

rara egokitzea du helburu gure proposamenak", esan zuen prentsa agerraldian jeltzaleen bozeramaile Iruñe Galarragak.

Boluko malda eta COVID-19a

Esandako moduan, 2017ko urtarrilean behera etorri zen Boluko malda egonkortzeko proiektura bideratuko lukete jeltzaleek euren proposameneko diru kopuru handiena; askotan eskatu izan dute. "Premia handia dago malda hori behin betiko egonkortzeko. Proiektua 2019an bukatu zen, baina adjudikatzeke dago; gure ustez, 2022an exekutatu beharko litzateke", nabarmendu zuen Martin Etxaniz zinegotziak.

Etxanizek hamazortzi proposamenen artean nabarmendu duen beste bat izan zen COVID-19ak eragindako kalteei aurre egiteko laguntzarena: "Uste dugu partida zabalik mantendu behar dela, diru-poltsa esanguratsu batekin. Herritarrei, ostalariei, enpresei eta komertzioei, denei, Udalak duen indar guztiarekin lagundu beharko litzateke; gure proposamena da partida horretarako 200.000 euro bideratzea; betiere, poltsa zabalik".



Erretiratu batzuk lege-proiektuaren paperak sutara botatzen astelehenean. I.U.

Azken lege-proiektuaren aurka daudelako, proposamena sutara

Indarrean dauden murrizketak berresten dituela uste dute pentsiodunek; hurrengo protesta, hilaren 13an

J.B. BERGARA

Pentsioen eros-ahalmena bermatzeko lege-proiektua onartu zuen Espainiako Diputatuen Kongresuko Lan Gizarte, Gizarte Segurantzak eta Migrazioen Batzordeak azaroaren 22an. Pentsiodunek lege-proiektu horri uko egiten diotela irudikatzeko, paperak sutara bota zituzten asteleheneko elkarretaratzean, "pentsio publikoen eta duinen alde" daudela berresteko.

"Edonork gobernatuta ere"

Batzordean onartutako zuzenketen alderdi positiboak kontuan

hartuta ere indarrean dauden murrizketak berresten dituela adierazi dute: "Beste batzuei atea irekitzen die eta pentsio publikoen sistemaren pribatizazioa sustatzen du. Uko egiten diogu, pentsioen erosteko ahalmena mantentzea bermatzen ez duen lege-proiektua delako. Orain, urteko inflazioaren batez bestekoa aplikatu nahi da, %3 galduz". Pentsio publikoen eta duinen alde agertu dira, "edonork gobernatuta" ere. Elkarretaratzei dagokienez, etena egingo dute abenduaren 6an -zubia tarteko-, eta abenduaren 13an berrekingo diete protestei.

Gabonetako argiak: 20.825 euro, hilaren 7tik urtarrilaren 6ra

Abenduaren 7tik urtarrilaren 6ra arte -biak barne- piztuko dituzte Gabonetako argiak. Aurrekontua 20.825 eurokoa da; hasierakoari 1.585 euro gehitu zaizkio, auzotarrek eskatuta hiru puntu gehitu direlako: Simon Arrieta plaza, Boluko plaza eta Matxiategiko arbola bat. Honako kale hauek argizatuko dituzte: Barrenkalea, Bidekurutzeta, Artekalea, San Pedro, Ibargaraiko biribilgunea, Espoloia, Irala kalea, Fraiskozuri, Agorrosin kirolguneako sarrera, San Antonio eta San Lorentzoko biribilgunea, udaletxeko fatxada eta azokako sarrera. Bolurako eta Labegaraierako sarreretan ere jarriko dituzte argiak.

OHARRAK

Domeketan Familian

Domeketan Familian Gozatzen ekimenaren barruan, etzi, familiendako hizkuntza lantzeko jolasen tailer bat egingo da (11:00). Biharko eman behar da izena.

Erakusleiho lehiaketa

Hilaren 13ra arte eman daiteke izena: 943 76 10 16. Lau sari banatuko dituzte, herriko dendetan trukatzeko bonuetan. Hilaren 8rako erakusleihoa gertu izan behar da.

Pilota partiduak

Gipuzkoa txapelketaren barruan bost partidu jokatu dira gaur udal pilotalekuan (18:45). Bihar beste partidu bat jokatu da, 12:30ean.



Debagoieneko kadete mailako eskubaloia selekzioa osatzen duten jokalariek eta entrenatzaileak Labegaraletan. SORALUCE BKE

Hiru selekzio kantxan, Bergara Hiria irabazteko

Bergara Hiria kadete mailako eskubaloia txapelketa jokatu da bihar, abenduak 4, Labegaraletako kiroldegian (10:30); Debagoieneko, Gipuzkoako eta Errioxako selekzioek neurtuko dituzte indarrak, emakumeen kirolari balioa ematea helburu

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara Hiria eskubaloia txapelketa jokatu da bihar, abenduak 4, Labegaraletako kiroldegian. Kadete mailako hiru selekzio arituko dira nor baino nor gehiago: Debagoieneko selekzioa, Gipuzkoako selekzioa eta Errioxako selekzioa. Hiruko txapelketa moduan planteatu dute txapelketa antolatzaileek:

10:30ean, Debagoienak Gipuzkoaren aurka jokatu du; 11:30ean, Debagoienak Errioxaren aurka; eta, amaitzeko, 12:30ean, Gipuzkoak eta Errioxak neurtuko dituzte indarrak. Partidu bakoitzak 40 minutu iraungo du, 20 minutuko zati banarekin; partidu ofizialek 30 minutuko zati bana izan ohi dute, baina antolatzaileek erabaki

dute talde bakoitzak bi partidu jokatu duenez norgehiagoken iraupena murriztea.

Txapelketa, "erakusleio ona"

Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete zirela gogora ekartzeko urteurreneko ekitaldien barruan antolatu zen Bergara Hiria txapelketa, emakume kirolariak aintzat hartu eta euren

jardunari balioa emateko. Hain zuzen ere, helburu hori betetzen duela uste du Bergarako entrenatzaile Unai Alberdik: "Garrantzi handia ematen diogu emakumezkoek eskubaloiaz gozatzeko aukera emateari; Bergara Hiria txapelketa erakusleio ona izan daiteke horretarako". Kadete mailan bigarren urtez ari diren jokalariei lehentasuna emango diete, datorren urtean ezingo dutelako Bergara Hiria txapelketaz gozatu: "Helburua da ahalik eta jokalaria gehienek parte hartu ahal izatea".

Aurtengo selekzioa jokalariek

Azken hilabeteetan zehar, domeketan elkartu izan dira Debagoieneko selekzioa jokalariek, elkar ezagutzeko eta entrenatzeko. Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako eskubaloia klubetako jokalariek hautatu dituzte Debagoieneko selekzioarako, eta entrenamenduetan hiru klubetako entrenatzaileak egon izan dira; honako hauek osatzen dute aurtengo kadete mailako Debagoieneko selekzioa: Arrasateko Julene Idigoras, Garazi Cobos, Ane Avila eta Maider Martiarena; Oñatiko Maria Celaya, Maddi Urrestarazu, Uxue Mendarozketa, Maialen Altxelai, Valeria Garcia, Nahia Anduaga eta June Zabaleta; eta, azkenik, Bergarako Garazi Kortabarria, Alazne Iñarra, Irati Ziarsolo, Ihintz Diaz de Guereñu, Ane Kerexeta eta Miren Elorza.

Entrenamendu saioak "ederrak" izan direla dio Alberdik: "Polita da ikustea herri ezberdinetako jokalariek eskubaloia bueltan gozatzen. Txapelketaren eguna oso polita izan daiteke, kantxan gozatzeaz gain gero elkarrekin bazkaltzeko asmoa dugu eta. Kirolaren lehia-

ren ikuspegitik oso emankorra izan daiteke, baina baita aspektu emozionaletik ere".

Bergaran, erdiak neskak

Bergarako eskubaloia taldera etorrira, Alberdik azpimarratu du azken urteetan "neska pila bat" batu direla klubera: "Ez dakigu esaten zergatik, baina duela bost edo sei urtetik emakume asko etorri dira. Bereziki, aipagarria da Antzuolatik zenbat jokalaria etorri zaizkigun; horrek indar handia ematen digu talde moduan. Urtero lau edo bost neska Antzuolatik etortzea itzela da; aurtentzen, adibidez, entrenatzen dudan kadete mailan hamahiru jokalaria gara eta bost antzuolarrak dira. Oso pozik gaude antzuolarraren ekarpenarekin".

Gaur egun, lau talde ditu Bergarako klubak: bi talde infantil mailan, talde bat kadete mailan eta beste talde bat gazte mailan. Senior mailan ez dute talderik lortu, nahiz eta aspalditik hori dute helburu garrantzitsuena: "Saiatzen ari gara, baina ez dugu lortzen. Federaziotik abisatu ziguten senior mailan nesken taldea osatzea oso zaila izaten dela, eta ikusten ari gara horrela dela. Unibertsitateko ikasketak hasten dituztenean gehienek laga egiten dute; urtero ari gara saiatzen ikasketak amaitu ostean, 22-23 urte dituztenean, kantxara buelta daitezela. Oraingoz, ez dute talderik osatu, baina helburu horrekin jarraituko dugu".

ARRASATE, OÑATI ETA BERGARAKO KLUBETAKO JOKALARIEK OSATZEN DUTE DEBAGOIENA

Hiru klubak indarrak batu, jokalarien mesedetan

Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako klubetako jokalariek osatzen dute Debagoieneko selekzioa. Bergara Hiria txapelketaren bueltan elkartzea "oso positiboa" izaten da hirurendako, hiru kirol elkarrekin batuz indartsuagoak izango direla sinesten dute eta. Kadete mailan jokalaria asko dituzte, eta horren adibide da biharko txapelketa ez denez ofiziala izango ohikoak

baino jokalaria gehiago sartuko dituztela deialdian. Bi partidu jokatu dituzte eta ondoren batera joango dira bazkaltzera: "Entrenamenduak oso ondo joan dira, asko disfrutatu dute. Ea biharko txapelketa nola doan... Baina kantxan disfrutatzeko, helburuetako bat ere bada ondoren elkarrekin egon daitezela, elkar hobeto ezagutzeko; horregatik, denok

batera bazkalduko dugu txapelketa amaitu ondoren".

Hori bai, hiru klubak erronka handienetako bat da nesken taldea osatzea senior mailan. Gehienetan ikasketek eraginda, oso kasu gutxi izaten dira eskubaloia jokatzen jarraitu nahi edo ahal dutenak, eta, horregatik, Bergaran, behintzat, ez dute oraindik maila gorenean talde bat osatzea lortu.



Debagoieneko selekzioa jokalariek Unai Alberdiren azalpenak entzuten. I. SORIANO

Errealitatearen eta fikzioaren arteko parodia

Tartean teatro konpainiak 'Ez dok ero' antzeztuko du gaur Seminarixoan, 20:00etan. Patxo Telleria eta Mikel Martinez izango dira taula gainean; euskal kulturaren, antzerkiaren eta gizartearen irudi deformatu eta barregarria eskainiko dute

Jone Olabarria BERGARA

Belaunaldi berriek euren tokia okupatu, eta *Mikelote eta Pantxo* bikote artistikoak desegitea erabaki du. Haien formula komikoa gastatuta zegoen. Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa. Eszenatokietatik urruntzeko gogo zuen aspalditik, bizimodu lasai eta normalizatua desiratzen zuen. Mikelotek, ordea, ez du bukaera onartu nahi. Antzerkiaren pozoia sakon errotuta dago bere zainetan. Eta pozoi horrek burua galtzeraino eramango du.

Euskal antzerkiaren ispilu

Hala hasten da gaur iluntzean, Euskararen Egunarekin batera, Seminarixora iritsiko den *Ez dok ero* antzezlanak. Patxo Telleria eta Mikel Martinez protagonista dituen antzezlanak "euskal kulturaren, euskal antzerkiaren eta euskal gizartearen irudi deformatua, barregarria eta haluzinatua" eskaini gura du.

"Literatura unibertsaleko figurak oinarri" izan dituzte pertsonaiak sortzerakoan: "Mikelek On Kixoteren irudia ekarriko digu gogora, idealismo erabatekoaren, ongia egiteko gogo eutsiezinen, gloria erdiesteko grinaren eta errealitatearen interpretazio eszentrikoaz. Patxok Santxo Panza baten itxura hartuko du, bere pragmatikotasun erabatekoarekin, anbizioren eza ikaragarriarekin eta baldarkeriarekin".

"Ibilaldi fantastikoa"

Mikelote "antzerkilari andante estafalaria" Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euskal Herrian barna joateko, herriz herri antzeztera,

ED3 BIKOTEAREN LAN GUZTIAN BEZALA, IKUSKIZUNEAN ERE EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA DIRA NAGUSI

Euskal antzerkiak behar dituen ustearekin. Horrela, "ibilbide fantastiko bat" egingo dute Euskal Herrian zehar, "hamai-ka abentura ero biziz". Mikeleteren imajinazioak sorturiko pertsonaia harrigarriak eza-gutu eta egoera korapilatsuetan endredatuko dira.

Primerako lantaldea

Testuaren egilea Patxo Telleria da eta zuzendaritza lanetan Jokin Oregi aritu da. Aktoreak ED3 osatzen duten Mikel Martinez eta Patxo Telleria dira. Jatorrizko musika konposaketa Adrian Garcia de los Ojosen ardura izan da. Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek osatzen duten ED3 bikote artistikoaren lan guztietan bezala, ikuskizunean ere euskara eta euskal kultura dira protagonista nagusiak, beste behin.

Sarrerak aurrez Seminarixoko webgunearen bitartez edo egunean bertan leihatilan eskuratu daitezke, zortzi euroren truke.

'Esnatu naiz' kabareta bihar iritsiko da Seminarixora

40 emanaldi baino gehiago eskaini ostean, bihar egongo da ikusgai Bergaran, 20:00etan, Seminarixoan

J.O. BERGARA

LGBTI+ kolektibokoek oraindik gaur egun Euskal Herrian normaltasun osoz bizitzeko dituzten arazoei buruzko gogoeta eskaini nahi du lanak: "Trans bat lasai bizi daiteke Albizturren? Bi lesbiana gaztek euren arteko maitasuna modu irekian adieraz dezakete Arbizun? Eta bi gizon helduk bikote harreman arrunta izan dezakete Baigorriin?".

Elurren istorioa

"Nortasuna, generoa eta sexu-joe-za ezberdinak" lantzen ditu. Jatorri euskalduna duen baina Londresen bizi den trans artista bat du protagonista, Elur. Azken urteetan LGBTI+ kolektiboaren eskubideen aldeko lanean "urrats garrantzitsuak" egin diren arren, benetako berdintasuna lortu arte "bide luzea"



Esnatu naiz kabaretaren une bat. GOIENA

dago egiteko. Sarrerak Seminarixoko webgunean edo txarteldegian, 8 eurotan. Euskal Herriko antzerkizale Elkartek abiatutako Ikusle Klubak aukeratutako lanetako bat da *Esnatu naiz*. Parte hartzeko, idatzi dantzerkiplat@gmail.com-era.

Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzeko aukera

30. aldia du Amodiozko Gutunen Lehiaketak, eta seigarren aldiz antolatu dute esaldien arlokoa. Hain zuzen ere, urtarrilaren 6a da eskutitzak bidaltzeko azken eguna, eta urtarrilaren 14a esaldietarako. Bost sari banatuko dituzte, eta, urtero moduan eta egoerak ahalbidetzen badu, otsailaren 14an, San Valentín egunean, Irizar jauregian izan-

go da sari banaketa ekitaldia, 19:00etan.

2005ean edo lehenago jaiotakoek har dezakete parte, eta lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute; lanek gutun forma izan behar dute –DIN-A4 orrietan eskuz eta ordenagailuz idatzita aurkez daitezke-. Oinarriak jardun.eus atarian daude. Whatsappez edo mezuz bidal daitezke lanak, 605 71 24 69 zenbakira, amodiozkogutunak@gmail.com-era, edo egoitzara eramanda.

Soma Cult eta Tilde taldeak bihar gauean kartzela zaharrean

Abenduaren 4an, zapatua, Bartzelonatik datorren Tilde taldea ariko da zuzenean kartzela zaharrean, 22:00etan hasita. Emanaldian Soma Cult taldea ere ariko da; Beasaingoak dira. 2017 bukaeran sortutako taldeak grunge eta psikodelia influentziak ditu. Sarrerak bost eurotan eskuratu ahal izango dira zapatuan kartzela zaharrean bertan.

'Txomin. Aurrera bolie!' liburuaren aurkezpena

Txomin. Aurrera bolie! liburuaren aurkezpena eta solasaldia izango da hilaren 14an, Olaso dorrean, 19:00etan. Jokin Urainek idatzitako liburuak ETako kide eta buruzagi historiko arrasatearraren biografia batzen du, eta berarekin batera aritu ziren beste hainbat kideren ahotsak eta historiak biltzen dira bertan.



Patxo Telleria eta Mikel Martinez taula gainean, gaur Seminarixora iritsiko den *Ez dok ero* lanarekin. G.C.

Alegazioak erantzuteko fasean dago Aldundia

Urbietan baserriaren parean Aldundiak egin gura duen biribilgunearen kontrako sinadura bilketarekin jarraitzen dute baserriko bizilagunek, proiektu horrek euren bizi kalitatearen "galera nabarmena" ekarriko diela iritzita. 2.400 jaso dituzte dagoeneko

Oihana Elortza OÑATI

Herriko sarreran, Goribarren, Urbietan baserriaren parean, Gipuzkoako Foru Aldundiak egiteko asmoa duen biribilgunearen aurkako sinadurak batzen jarraitzen dute baserriko bizilagunek. 2.400 jaso dituzte egun gutxian, eta herriko hainbat denda, negozio zein elkartetan orriak utzi dituzte, gura duenak sinatu dezan. Bihar, zapatua, goizean, berdura plazan egongo dira. Proiektu horri jarritako alegazioak erantzuteko fasean dago Aldundia.

Arrazoiak

Foru Aldundiaren esanetan, bi arrazoi daude biribilgunea hor egiteko: Oñatiko mendebaldeko sarrera izatea eta San Pedroko lotuneak baino zirkulazio gehiago jasotzea, batetik, eta, bestetik, biribilgune horrekin aipatutako lotunea eta parean dagoen industrialdearen lotuneak antolatzea, San Pedron eginda Gori-barkoan ez lukeela eragingo

gehituz. Gaineratu du Udalak, duela urte batzuk, Kanpizelai baserriko sarrera parean egiteko aukera ere mahaigaineratu zuela, "baina aukera horrek herriko datorren bidea eskuinteko zelaietara desbideratzea zekarren, gaur egungo proiektuak baino askoz lur gehiago okupatu eta askoz afekzio handiagoa sortuz. Bestalde, Udalak bere kabuz San Pedroko bidegurutzean biribilgunea jartzeko azterketa ere egin zuen, eta nahikoa gaitasun ez zuela ondorioztatu". Proiektu honekin abiadura murriztu gura dute, batetik, eta ezkerreko birak kendu, bestetik, "Munazategiko biribilgunearekin batera bi gune horien arteko inkorporazio guztiak ordenatuz".

**10.000 IBILGAILU
PASA HARTZEN DITU
GI-2630 ERREPIDEAK,
%10 ASTUNAK,
ALDUNDIAK DIOENEZ**

Datuak aipatuta, proiektu honek 412 metro karratuko desjabetzea ekarriko du, bi partzela nagusitan banatuta, 500.000 euroko aurrekontua eta lau hilabeteko eraikitze epea.

Oñatiko Udalak asmoa zuen San Pedroraino oinezkoendako espaloia egiteko, eta autobus geltokia ere jartzeko errepidearen alde banatan. Eta horretan ari zela jakin zuen Aldundiak hor biribilgunea egiteko asmoa zuela. Horrek Udalaren asmoa eten egin zuen, eta biribilgunearekin batera egingo dituzte espaloia eta autobus geltokiak gero. Alkateak azaldutako moduan, proiektuan jasotakoa pixka bat mugitzea lortu dute, baserriko irteera hobe izateko. Aldundiak onartu du proiektuak afekzioa sortzen diola Urbietan baserriari, 250 metro koadroko partzela desjabetuz eta zirkulazioa baserrira hurbilduz, baina, aldi berean, dio asko hobetuko duela herriko irteera hori eta bide segurtasuna.



Udalbatza osatzen duten zinegotziak Migraziorako Euskal Ituna babesten. O.E.

Migraziorako itunarekin ados, ez interes publikoko figurarekin

EH Bilduren ustez, udalei autonomia kenduko die moldaketa horrek, eta EAJk dio hori ez dela horrela

O.E. OÑATI

Onartutako hirugarren adierazpen instituzionala, berriz, Migraziorako Euskal Itun Sozialari buruzko adierazpen instituzionala, aho batez onartu zuen Oñatiko udalbatzak azaroko osoko bilkuran, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunari begirako eta Euskararen Egunari begirako egindako moduan. Jaso gura luketena eskaintzea dela eginbeharrekoa adierazi zuten, migrazioa ez delako egoeraren araberrako fenomeno, munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat baizik.

EH Bilduk interes publiko goreneko proiektuen erregulazioari buruz aurkeztutako mozioaren bozketan, aurka bozkatu zuten jeltzaleek. EH Bilduren ustez, EAJk eta PSEk lurralde antolamenduko legerari egin gura dioten moldaketak autonomia ken-

duko die udalei, klima aldaketa zurrizteko egin dute eta, gainera, ez bide zuzenetik. "Gardentasunik eza dago, baina funtsezkoena da udalok dugun eskumen indartsuenetako baten, herritarrekin batera gauzatzen den HAPOaren gainetik geldituko dela hori, eta ez dugula zeresanik izango", adierazi zuen Izaro Elorza alkateak. EAJren iritziz, ordea, hori ez da horrela, aldaketa hori egin arren instituzio bakoitzak bere eskumenak mantendu egingo dituela. "HAPOak lege arautzen dira eta lege horrek, emendekin horren bitartez, behintzat, ez du eraginik izango horretan. Ez da egia HAPOren parte-hartzeak bertan behera geldituko direnik. Bestalde, legeak aurreikusten du zer den interes orokorra, inork ez du pentsatzen izugarrikeriarik egitea, jasangarriak izango dira", EAJko Mاريو Etxegoienek.

Errege Magoen ekitaldia antolatzeke deialdia, zabalik

Aurten ez da herritarrik aurkeztu Errege Magoen ekitaldia antolatzeke, eta Kultura Departamentuak horretarako interesa izan dezakeen edozein herritarren esku jarri ditu horretarako aurreikusita egoten diren baliabide materialak, espazialak zein ekonomikoak. Abenduaren 8a da izena emateko azken eguna: kultura.idazkaritza@onati.eus.

Hasi dira 100 euroko sariak lortzeko argazkiak jasotzen

Herriko dendetan salerosketak euskaraz egiteagatik 100 euroko saria lortzeko argazkiak bidaltzen hasi dira herritarrek. Udalak bat egin duen *Egin tratua euskaraz* ekimena da. Eroslea eta saltzailea, biak agertzen diren argazki bat bidali behar da WhatsApp bidez, eta zozketan parte hartu. Hauxe da telefono zenbakia: 688 62 11 42.



Goribar auzoan, Urbietan parean, egin gura duten biribilgunea kokatzen duten eremua. O.E.



Txuskos eta Frakas Bravas taldeko jokalarian partidua jokatzen Azkoagainen. KEPA IRIZAR

Formula aldatuta ari dira jokatzen beteranoak

Danek danen aurka jokatu beharrean, bi taldetan banatu dute lehen fasea eta bakoitzeko hiru onenek jokatuko dute, bigarrenen, ligako finala, eta kopakoa beste laurek. Hamar talde dira eta asteburuetan bi partidu jokatzen dituzte Azkoagainen

Oihana Elortza OÑATI

Hamar talde, azken denboraldian baino bat gehiago, dira lehen aurtengo beteranoen futbol ligan. Gainera, aldatu egin dute jokoa-ren formula: talde guztiek elkar-rran aurka jokatu beharrean, bi talde egin dituzte lehen fase-rako. Horko onenek liga jokatuko dute bigarrenen eta kopa, berriz, besteek.

Urritik apirilera

Lehenengo erara, jokatu behar zituzten partidu kopurua handiagoa zen, eta, askotan, jende, jokalar, faltan ibiltzen ziren taldeak. Eta hori ekiditeko hartu dute lehen fasea bi taldetan jokatzeke erabakia. "Modu honetara, partidu gutxiago izango ditugu, denboraldia ez da askorik luzatuko eta denok lasaia ibiltzeko moduan egongo gara. Gainerako funtzionamendua berdina da: astean talde batek izaten du asteburuko neurketak antolatzeke ardura; txandaka egingo da hori. Eta saiatzen gara

asteburu luzea edo jaiegunak datozenetan jai hartzen; asteburu honetan, esaterako, ez dugu jokatuko", dio zuzendaritzan dagoen Iker Jimenezek. Aloña Mendirekin berba egin eta adostuta, bi partidu jokatzen dituzte asteburuetan Azkoagainen: "Egun argiz, ahal dala". Lehen fasea urtarileko hirugarren asteburuan bukatuko da. Segidan, talde bakoitzeko lehen hiru sailkatuek ligako azken partiduak jokatuko dituzte eta beste laurek, kopakoak. Gauzak ondo bidean, apirilaren hasieran bukatuko dute aurtengo denboraldia.

1970eko hamarkada ezker

Gaztetxoek osatutako talde berri bat sartu da aurtengo txapelketa

BIRRITAN ETEN DA HISTORIAN: LARRAÑAKO OBRENGATIK ETA PANDEMIAGATIK

horretan, eta, hala, hamar talde ari dira lehian. Kopuru hori mantendu egin da, gutxi gorabehera, azken urte hauetan guztietan, baina hogeitik gora taldek jokatutako txapelketak ere jokatu dituzte. Anton Sierra beteranoak gogoratzen du, esaterako, 25 talde izan zirela 2002-2001 denboraldian; "2014a ezker, baina -hamasei talde ziren orduan- txikitzen, jaisten, joan da kopurua".

1970eko hamarkada amaiera edo 1980ko hasiera ezker jokatzen da Oñatin beteranoen futbol txapelketa. Harrezkero, birritan eten da: 1987-1988an, San Lorentzoko eta Larrañako obrenkatik; eta 2021-2020 denboraldian, pandemiagatik. Larrañako futbol zelaian jokatzen zituzten beteranoen partiduak hasieran. "Denek elkarren kontra jokatzen genuen orduan. 1991tik 2008ra bitartean, berriz, Ibarran izaten ziren partiduak, eta orduan, bi talde egiten ziren lehen fasera. Orduetik hona, Azkoagainen".

'Oñati.bonoak.eus' atarian opari txartelak eskuragai

Oñatiko Udalak berriz jarri du martxan *oñati.bonoak.eus* aplikazioa, "Gabonetako opariak herrian egiteko beste aukera bat eskainiz". Bonuak erosteko orain arteko pauso berak jarraitu behar dira: Internet bidez, aplikazioan sartuta eta *Eskuratu bonu txartela* aktibo daukaten komertzioetan, edo saltokira bertara joan eta zuzenean hantxe erosita.


Gaurtik, abenduak 3, egongo da aplikazioa erabilgarri. Eta, justu, gaur da azken eguna deskontu kanpainan hartutako txartelak erabiltzeko. Kanpaina horrek harrera ona izan du, eta pozik daude udal ordezkariak eta dendariak.

Abenturak, txokolatea eta lehoiak asteburuko planetan

Arrikrutzen lehoiaz gain beste zein animalia bizi izan ziren eta egun daudenak nolakoak diren jakiteko bisita bereziak egingo dituzte asteburu honetan. Unibertsitateko zutabeetan agertzen diren lehoien esanahia azaltzeko bisita eta eskulanak egiteko eskaintza ere egongo da Arrikrutzen eta Turismo Bulegoan. Unibertsitatea, gainera, kandelak argituta egongo da hiru egunez. Txokolateixan txokolate beroa eskainiko dute eta Potokalekun zalduak erakutsiko dituzte hurbiletik. Horrez gain, Arantzazuko altxorren bila eta espeleo-abentura eskaintzak ere prest dituzte familian, taldean edo bakarrik egiteko.

33 eragiletako 40 herritar izan dira 'Aulkiak' egitasmoan

Aulkiak egitasmoaren balorazio positiboa egin du Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Departamentuak. Diote hainbat kolektibotako 40 pertsonak hartu dutela parte, asko inplikatu direla parte hartzaileak, material ugari landu eta ekarpenak jaso zirela eta pozik daudela emaitzarekin. Hala, jarraitu peno izango du.



Topaketako une bat. GOIENA



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Euria

Udazkenaren egunetan murgildu garela eta nahiz eta askotan Euskal Herrian bizi garenok euria arrotza balitz bezala hitz egiten dugun, hostoek kolore deigarriak hartzen dituzten garai honek melankoliaren puntua dakarrela ezin ukatu. Ez da ez tristurarik ezta alaitasun faltarik ere.

Udazkeneko giroak nire baitan sartzeko naturak egiten digun gonbitea sentitzen dut: hotza, euriaz blai edo jariora kristalaren beste aldetik txotxolotua denbora pasatzen begira egotea, argi orduen murrizketa, garaiko fruituak dastatzea, sua piztea, sofán eserita egotea belaunen artean antzinako manta daukazula, txikien jolasen burrundara etxe barruan entzutea, kanpoko trumoiakin batera sentiaraztea, aterkia eskuetan eramatea, burua estaldu beharra... Gure ahuldadearen isla agertzen zait.

Kristautentzako *Abendualdiak* datoz, itxaropen eta agintzariz beteko garaia. Honela dio antzinatik sortua izan den eta aldi honetan abesten dugun kantak: *Et nubes pluunt iustum*.

Arantzazuko Bentaren historia, liburuxkan

Jose Ramon Arrazolak jaso du Arantzazuko Bentaren 500 urteko historia liburu horretan, eta egungo maiztegitarren familiara iritsi aurretiko historia eta istorioak batzen ditu. Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute, Goiko Benta, musikaz girotuta

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Aurreko liburuan Oñatiko teileriak aztertu zituen Jose Ramon Arrazolak, eta horiek aztertzen konturatu zen gaur egungo Arantzazuko Goiko Benta inguruan izan zela garai batean teileria bat. Hortik tiraka, Udal Artxiboan eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan Arantzazuko Bentaren inguruko hainbat dokumentu aurkitu zituen eta egungo ugazabei galdetu zien ea liburuxka batean jasoko zuen orain dela 500 urte sortutako bentaren historia. "Oso ondo iruditu zitzaien; izan ere, oso kurioa da, leku gutxitan gertatzen da, eta, historia handiko etxea denez, bazegoen zer kontatu", azaldu du Arrazolak.

Hiru garaitan banatuta

Arrazolak kontatu du Arantzazuko Benta bi gertakari garrantzitsuri lotuta dagoela: batetik, 1469an agertu zen Arantzazuko Ama Birjinaren irudiaren agerpena dago; eta, bestetik, 1490

inguruan Arantzazu ingurura joateko egin zen bidea. Horien ondorioz, errones geroz eta gehiago hasi ziren bertara joaten, baina ez zegoen estalperik, eta benta berri hori egin zuten XVI. mende hasieran.

Hiru garai bereizi ditu Arrazolak. Lehenengoan, Udala zen Arantzazuko Bentaren jabe, baita inguruko lurrena ere. Benta logelak eta jantokia izateaz gain, animalienak korta ere bazuten eta oinarrizko elikagaiak saltzen zituzten. Errentan ematen zuen Udalak, 1582 ingurura arte. Izan ere, orduan, Udalak zorrak zituen eta Miguel Elordui dirudunari mailegua eskatu zion, eta hura gelditu zen bentarekin. Baina hil zenean, hain-

bat traba tarteko, orduko epaitegiatarak jo behar izan zuten eta jabetza pribatuaren garaia iritsi zen 1641ean. Ordutik aurrera, hainbat jabetzatatik pasa izan zen. Eta 1912an sartu ziren hirugarren etapan, egun dauden maiztegitarren familiarekin. Orduko erreterero zen Facundo Maiztegi bentaren jabe egin zen; 20.000 pezetagatik erosi zituen hango eraikina eta lursailak.

Musikaz girotuta

Xabier Ugartek musikaz girotuko du gaur 19:00etan Goiko Benta egingo duten liburuxkaren aurkezpen ekitaldia. Hiruzpalau bertso eramango ditu inprimatuta, bertaratzen diren guztiek batera abes dezaten, doinu eza-gunek lagunduta. Horietako bertso bat, gainera, "berezia" izango da. Izan ere, Bitoriano Gandiaga fraide eta poetak 1982ko maiatzean bere lehen semearen jaiotzagatik Arantza Milikuari idatzitako Oñatiri buruzko bertsoa abestuko dute.



Konpainiako kide Mikel Ibaguren, Edurne Azkarate eta Intza Alkain. UNAI BELLAMY

'Album' antzezlan, Ikusle Klubari hasiera emateko

Gaur goizean, batxilergoko ikasleei zuzendutako saioa egingo dute eta 19:00etan, berriz, saio irekia

A.T. OÑATI

Formol konpainiak duela hiru aste estreinatutako *Album* antzezlan izango da gaur, egubakoitza, Santa Anan. Euskararen Egunaren baitan antolatu dute eta bi emanaldi egingo dituzte.

Emanaldi "bereziak"

Mikel Ibaguren aktoreak azaldu du 12:00etan batxilergoko ikasleei zuzendutako saiorako "urduritasun puntu batekin" daudela; izan ere, hauxe adierazi du: "Gaur egun milenialismoan jaiotako gazteek bizi dugun egoera ikusi ahal izango da antzezlanean. Taula gainean egongo gara Intza Alkain eta biok, eta saldu diguten gezur erraldoiari buruz hausnartuko dugu. Esan izan digute unibertsitatean ikasi, lan ona bilatu, etxea erosi... egingo dugula, baina adin batera iritsi eta konturatzen zara hori gezurra dela.

Beraz, *Album* izenak dioen moduan, argazki pila bat ikusi ahal izango ditugu eta antzerki garikidearen bitartez horri buruz hausnartu ahal izango dugu". Gainera, ostean, ikasleek aukera izango dute protagonistekin solasaldia izateko.

Arratsaldean, berriz, saio irekia egingo dute. Sarrerak salgai daude ohiko tokietan, eta Ikusle Kluba ere lehen aldiz jarriko da martxan antzezlanarekin. Interesa dutenek dantzerkiplat@gmail.com helbidean eman behar dute izena eta 17:30ean Santa Anan elkartzeko dira, antzerkia ikusi aurretik ikusiko dutenari buruzko hainbat gairi buruz hitz egiteko, eta, antzezlanaren ostean, ikusi dutenari buruzko hausnarketa egiteko aukera izango dute izena eman dutenek. Ekimen hori "txalogarria eta ereduagarria" dela zehaztu du Ibaguren aktoreak.



Jose Ramon Arrazola, *Arantzazuko Benta* liburuxkaren egilea, bere azken lana eskuetan duela. A.T.

'Deshumanizazioa' birako azken kontzertua Bizarrok

Gaur, egubakoitza, Antixeneko gaztetxean eskainiko du *Deshumanizazioa* birako azken zuzeneko Bizarro taldeak. Zortzi emanaldiko bira egin dute oñatiarrek; Arrasaten, Zornotzan, Donostian, Mutrikun, Bergaran, Tolosan eta Añorgan izan dira, eta azkena etxean egingo dute. Aitor Regueiro taldekidea "pozik" dago gaurko kontzerturako, eta

bira nola joan den azaldu du: "Bira honek balio izan digu musikalki baino gehiago alderdi humanoa lantzeko taldean; izan ere, denbora asko pasa dugu batera eta horrek mesede egin digu elkar gehiago ezagutzeko eta familia sentsazioa sendotzeko. Gainera, inguruko jendeaz babestuta egon gara".

Braulio taldea ere izango da taula gainean, eta 22:00etan hasiko da kontzertua. Sarrerak 5 eurotan egongo dira; langabeek 3 ordaindu beharko dute.

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kideak





Irati Guenetxea aretxabaletarra eta Haizea Osés arrasatearra. X.U.

"Emaitzetatik harago, ondo pasatzeko eskalatzen dugu"

IRATI GUENETXEA ETA HAIZEA OSES ESKALATZAILEAK

ESKALADA Asteburuan Lugon jokatu duten Espainiako Kopako azken probarekin agurtu dute denboraldi borobila. Espainiako txapeldun izan dira biak, modalitate ezberdinetan

Xabier Urzelai ARRASATE

Hemezortzi urtez aspiko kate-gorian lehiatu dira Irati Guenetxea aretxabaletarra (2005) eta Haizea Osés arrasatearra (2004), eta hor nabarmendu dira, nahiz eta denboraldi amaierako proba batzuetan euskal selekzioako bi kide hauek senior mailakoekin ere jardun duten. Lugotik itzuli berri, eta atsedean hartzeko desatzen, denboraldiaren errepasoa egin dute.

Espainiako Kopa amaitu berri duzue Lugon; zer moduz ibili zarete?

Haizea Osés: Beti bezala, euskal selekzioarekin kanpora joaten garen bakoitzean esperientzia ederra izaten da. Bestalde, emaitzari dagokionez, ni gustura geratu naiz; senior mailako eskalatzaileekin lehiatu ginen eta

"ESKALADA KIROL OLINPIARRA IZAN DA AURTEN, BAINA HEMEN INSTALAZIOAK FALTA DIRA"

finaletarako sailkatzea lortu nuen. Hortaz, ondo [seigarren sailkatu zen].

Irati Guenetxea: Nik zalantzak izan nituen; azken hilabeteotako entrenamendua abiadurako modalitatara bideratuta izan dut eta ez neukan garbi Galiziaraino joatea merezi ote zuen, bidaia luzea da eta. Baina selekzioarekin egiten dugun egonaldi bakoitza ederra izaten da, eta joatea erabaki nuen. Ederto ibili nintzen, nahiz eta txapelketa ez zen nahi modukoa izan.

Urteko helburuak, baina, soberan bete dituzue. Irati, duela hilabete lortu zenuen Espainiako txapeldun izatea abiadura modalitatean.

I.G.: Udan hasi nintzen bereziki abiadura entrenatzen. Urrian geneukan txapelketa Iruñeko Rocopolis-en eta banekien abiadurako modalitatean nituela aukera gehien, hor moldatzen naiz ondoen. Bada, zenbait hilabetez hor jarri nuen indarra, eguaztenero Iruñera joaten nintzen entrenatzera, eta lan horrek emaitza eman zuen gero. Txapelketaren bezperan oso urduri egon nintzen, baina merezi izan zuen.

Haizea, zuk zailtasun modalitatean poltsikoratu duzu Espainiako Kopa.

H.O.: Ni zailtasunean moldatzen naiz ondoen, eta modalitate horretako Espainiako Kopa udan jokatu genuen, Bartzelonan, Madrilen eta Zaragozan egin zituzten hiru txapelketetan. Hirugarren sailkatu nintzen Bartzelonan, bigarrena izan nintzen Madrilen eta, zorionez, Zaragozan garaipena lortu nuen. Niretako ametsa zen hori lortu nuen, egia esan.

Aipatu duzue atsedean hartzeko desatzen zaudetela; izan ere, luze joan da urtea.

I.G.: Otsailean hasi genuen denboraldia, eta ondoren, etenaldia egin behar izan genuen, pandemia tarteko txapelketak bertan behera utzi zituztelako. Horrek dezenteko aldaketak ekarri zituen prestakuntzan, eta ondoren etorri ziren modalitate ezberdinetara egokitu behar izatea, udatik hasita entrenamendu zorrotzak, udazkenean pilatu zaizkigun txapelketak... Askotan, ostiral arratsaldeko eskolak galduta egiten ditugu bidaiak, eta domeka gauean iristen gara etxera.

H.O.: Esaterako, azken bost asteburuetan etxea zapaldu ere ez dugu egin. Izugarri gozatzen dugu selekzioarekin batera eta bestera joaten, baina gustura hartuko dugu atsedean, bai.

Kirolariak etengabe esan behar diola bere buruari egiten duen horrekin gozatu egin behar duela...

"AZKEN BOST ASTEBURUETAN EZ GARA ETXEAN EGON; SAKRIFIZIOA DA, BAINA MEREZI DU"

H.O.: Argi eta garbi. Garbi dugu ezin zaitezkeela soilik txapelketako emaitzetan oinarritu, gozatu egin behar duzu egiten duzun horrekin, gozatu egin behar da entrenatzen. Bestela, txapelketa txar bat egiten den bakoitzean, horrenbeste lan egin izanaren zergatiaren bila hasten zara, ea merezi duen... Eta behera etor zaitezke. Garrantzitsua da jabetzea eskalada pasioz bizi duzula eta gustuko duzula egiten duzun hori.

I.G.: Azken batean, eskalada sakrifizio handiko kirol jarduer da. Eta emaitzek laguntzen ez dutenean... Egoerari buelta emateko, garbi izan behar duzu egiten duzun lanarekin gozatu egiten duzula.

H.O.: Esaterako, ni asko betetzen nau neure burua hobetu nahi izate horrek, egunero helburu berri bat jarri eta ikustea ea betetzeko kapaz naizen. Beti ez dut lortzen, noski, baina hori ere abenturaren parte da.

Aurten, eskalada lehenengoz izan da Olinpiar Jokoetan. Modan jarri den kirol jarduera da?

I.G.: Baliteke, bai; gazte mordoak dabil eskaladan, eta ikustekoa da gazteek zer-nolako maila duten, sekulakoa da. Rokodromoetan ere geroago eta jende gehiago ikusten dugu; lehen, jendea familian joaten zen harkaitzean eskalatzer, eta orain, rokodromoetan ikusten dugu hori.

H.O.: Bestalde, baliteke eskalada modan egotea, baina kirol instalazioen aldetik hemen ez da ezer aldatu. Adibidez, Espainiako Kopan izan dugun azken txapelketan berotze ariketak egiteko oso baldintza txarrak izan genituen. Eta jendea hasi da kexatzen, esanez nahiz eta Espainiako eskalatzaile batek urrezko domina bat irabazi hemen ez dela ezer aldatu behar...

I.G.: Izan ere, Madrilen eta Bartzelonan hasi ziren derrepentean rokodromoak egiten, baina Euskal Herriaren egoera bestelakoa da. Sokarekin ibiltzeko, esaterako, Iruñera joan behar dugu.

Joaten zarete harkaitzera eskalatzer?

H.O.: Nahi baino gutxiago; udan ibili naiz Araotzen apur bat.

I.G.: Hori da, nahi baino gutxiago, baina kirol eskalada egiteko beste modalitate batzuk alboratu egin behar dira. Ea orain neguan apur bat ibil gaitezkeen.

UDArI gutxi iraun dio lidergoak, oraingoz

FUTBOLA UDAK sendotasun handia erakutsi du hamabi aste hauetan, baina Eibarren kontrako domekako porrotak (1-3) lehenengo postutik laugarrenera jaitsarazi du. Mondra lau puntura dago; asteburu honek datorren asteko derbian eragin dezake

Xabier Urzelai ARRASATE Aretxabaleta (24 puntu) eta Mondra (20 puntu) aurrealdeko postuetara begira daude ligan. Hain zuzen, joan den asteburuan aretxabaletarrak lidergoan zeuden, besteak beste, ordura arte partidu bakarria zutelako galduta. Baina ligako beste oilarretako batek, Eibarrek, irabazi egin zien Ibarren (1-3), eta horrek ekarri du gain-gauean zituen Elgoibarrek (26), Touringek (24) eta Eibarrek berak (24) aurre hartzea. Lau talde horien artean dago orain momentuan lehia estua, eta bigarren taldetxo batean daude Hernani (21), Mondra (20) eta Zarautz (20), aurreko lau horiek noiz despistatuko zain.

Hala, Aretxabaletako entrenatzaile Unai Calzonek nabarmendu du astero-astero sailkapenean dagoen *dantza*: "Oraingo asteburuan bertan Elgoibarrek Hernaniren kontra jokatu du, guk Zarautzera joan behar dugu... Hemen bi astean gauzak asko aldatzen dira". Hala, aretxabaletarrak Touring eta Eibar ikusten ditu bereziki indartsu, eta gainontzekoen artean ez du inor baztertzeko: "Hernani talde ona da, Mondra ere badirudi indartsu dagoela... Baina ez horiek bakarrik, guk sarritan esaten dugu edonori irabazteko gauza



Bihar jokatu du Mondrak, etxean; argazkian, Xabi falta bat ateratzen. GOIENA

garela, baina, kontrara, edozein partidutan despistatuz gero, kórner bat gaizki defendatuz gero... Hemen, azkenaren kontra galtzeko ez da askorik behar". Hain zuzen, Aretxabaletak Mondraren kontra jokatu du abenduaren 12an, eta oraingo asteburuko emaitzek saltsa gehitu diezaiokete derbi horri: "Bihar Mondrak irabazi egiten badu eta guk Zarautzen galdu egiten badugu, ondoan egongo gara bi taldeak sailkapenean; derbiako saltsa gehiago. Eta halako partiduak gustukoak izaten ditugu".

Mondrak eta Aloñak, etxean Hain zuzen, arrasatearrek etxean jokatu dute bihar, Allerruren (12) kontra. Zuri-moreek orain arte partidu bakarria galdu dute Mojategin, indartsu daude etxean. Aloña Mendik (11) ere etxean jokatu du domekan; oñatiarrak bolada txarrean murgilduta daude –lau porrot jarraian– eta Mutriku (16) hartuko dute. Bi partidu jarraian irabazita arnasa hartu duen Bergarak (14) izango du, baina, kontrario gorrena; mahoneroek Eibarren kontra jokatu dute, Unben.

Leintz Arizmendi, gaur, Mojategin

Joan den asteburuan Bergararen kontrako derbia bertan behera utzi behar izan zuten, koronabirus positibo batengatik, baina Leintz Arizmendiko neskak berdegunera bueltatuko dira gaur, egubakoitza (20:00). Etxekoek Tolosa izango dute aurrean, sailkapenean 12. postuan dagoen taldea. Tolosarrek bi norgehiagoka baino ez dituzte irabazi.



Leintz Arizmendiko taldekideak gola ospatzen, artxibo irudian. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA O.ERREGION. GIZ. Mondra-Allerru Zap. 16:30. Mojate. Aloña Mendi-Mutriku Zap. 16:00. Azkoag. Eibar-Bergara Zap. 18:00. Unbe. Zarautz-Aretxab. Dom. 12:00. Asti. O. ERREGION. EMAK. Leintz Ariz.-Tolosa Egub. 20:00. Mojat. GORENGO MAILA Antzuola-Urki Zap. 11:00. Eztala. Mondra-Lagun Onak Zap. 13:00. Mojat. Aretx.UDA-Beasain Dom. 18:30. Ibarra. ARETO FUTBOLA MAILA NAZIONALA Afantxo-Eskoriatza Zap. 17:00. Pasaia. Mondrate-Santurtzi Zap.17:00. Musakola. EUSKADIKO TXAPELKE. Hegalarriak-Aretxab. Dom. 18:00. Ibarra.	ESKUBALOIA BERGARA HIRIA. Zapatua. 10:00etan hasita, hiruko torneoak: Errioxa, Gipuzkoa eta Debagoieneko selekzioa. SASKIBALOIA EBA MU-B.Venta de Baños Dom.18:30. Iturripe. PILOTA GIPUZKOAKO TXAPELK. OÑATI Egubakoitza. 18:30etan hasita bost partidu. Zapatuan, 16:30ean hasita lau partidu. ARETXABALETA Egubakoitza. 18:00etan hasita zortzi partidu.	ARRASATE Egubakoitza. 20:00etan hasita partidu bat. BERGARA Egubakoitza. 18:30ean hasita bost partidu. Zapatuan, 12:30ean hasita senior mailako partidu bat. ESKUZ BINAKAKOA Abenduak 8, Bergarako udal pilotalekuan (17:00), Eskuz Binako Txapelketa barruan: Ezkurdia eta Tolosa Irribarriaren eta Rezustaren kontra. KARATEA Zapatua. 10.00. Aretxabaletako Ibarra kiroldegian, Euskadiko Txapelketa.
---	---	---



Bergarako eskubaloia jokalaria Miren Elorza . I.S.



JOSUNE BLANCO

Jaialdi profesionala Bergaran

PILOTA Eskuz Binako Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu dute abenduaren 8an, eguaztena, Bergaran (17:00). Partidu nagusian, Ezkurdiak eta Tolosak Irribarriaren eta Rezustaren kontra jokatu dute. Sarrerak Internetez eros daitezke dagoeneko. Atzo, eguna, egin zuten pilota aukeraketa, udal pilotalekuan.

Eskualdeko sortzaileen uzta

Debagoieneko sortzaileek eta elkarteek argitaratutakoak edo eskualdeko gaiak eta pertsonaiak protagonista dituzten ekoizpen berri asko izango dira Durangoko Azokan. Aurten eskualdean lan gehiago argitaratu badira ere, hauek izango dira *kulturaren plaza*-n eta *Durangokoazoka.eus* atarian erosgai: lau poesia liburu –horietako bat, kantu-liburua–, saiakeratik gertu dauden hiru argitalpen, hiru komiki-liburu, bi eleberri eta askotariko musika estiloetako kantuak batzen dituzten hamaika disko berri.



(Titulu barik)

Screamers eta Odolkiak Ordainetan

Disko partekatua, autoekoiztua



Conspiracion en Gibola

Ane Odriozola

Circulo Rojo



Txomin. Aurrera Bolie!

Jokin Urain Larrañaga

Gara



Sua

Alex Tello eta Julen Ribas

Jo Ta Ke ekoizpenak



Poliedro Vol. I

Eñaut Zubizarreta Mendieta 'Trigger'

Forbidden Colours



Poliedro Vol. I

Eñaut Zubizarreta Mendieta 'Trigger'

Forbidden Colours



Haize beltzak

Hegazkin

Autoekoiztua



Bizirik

Kaleko Urdangak

Autoekoiztua



Leihotik mundura

Serge

Elkar argitaletxea



Ilun eta abar

Idoia Asurmendi

Autoekoiztua



Galdu dena azaldu dadila!

Garazi Kamio eta Julen Ribas

Ikaselar

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
"Urte zaila eta konplikatua izan da euskal sortzaileentzat, baina uzta oparoa utzi digute; horren erakusle da Durangoko Azokan eskura izango den eskaintza: 990 kultura lan berri izango dira 219 erakusmahaitan banatuta", dio Gerediaga elkartearen koordinatzaile Beñat Gaztelurrutiak, eta zera gaineratu du: "Osa-sun-neurri guztiak zorrotasunez beteko ditugu, eta gauza bera eskatu gura diegu kulturazaleei ere: arduraz eta erantzukizunez jokatzeko bai Azoka barruan eta baita Azokatik kanpo ere, herrigunean".

Gaur, egubakoitza, goizean abiatu dute *Durangokoazoka.eus* atarian, abenduaren 7ra bitartean, Azokako denda digitala. "Online dendako bidalketak aurrez aurreko Azoka amaitzerakoan egingo dira; hau da, abenduaren 9tik aurrera". Bihar, zapatua, hasi eta abenduaren 8ra bitartean izango da Azoka presentziala zabalik. 56. aldia da aurtengoa; *Bada!* da aukeratutako leloa eta Leire

Modu presentzialean eta online, Durangoko Azoka bi formatutan aurten

Gaur, egubakoitza, abiatuko dute Durangoko Azokaren online denda eta bihar zabalduko dituzte Landako guneko eta beste sei gunetako ateak; Plateruenara eta Landako Gunera sartzeko ezinbestekoa izango da alde zaurretik izena ematea

Urbeltz Iruñeko sortzaileak egin duen *Desipuindegia* lana da aurtengo irudia.

Izena eman behar bi gunetan

Szenatokia, Irudienea, Kabi@, Ahotsenea Literatura, Saguganbara, Talaia –areto nagusiaren lekukoa hartuko du–, Landako Gunea eta Plateruena –Ahotse-nea Musika– izeneko gunetan, dendaz gainera askotariko ekitaldiak izango dira. "Landako

Gunera eta Plateruenara sartzeko ezinbestekoa izango da alde zaurretik izena ematea erreserba-sistema baten bidez, *Durangokoazoka.eus* atarian. Ordu eta erdiko txanda izango dute bisitariak Landako Gunean egoteko, eta egunero bost txanda ezberdin sortu dira, 1.200 bisitarietakoak; beraz, gehienez 6000 bisita izango ditugu Landakon. Dagoeneko Landako Gunerako hainbat txanda bete dira eta Plateruenan

izango diren hainbat kontzertutako sarrerak ere agortu dira. Gainontzeko gunetarako ez da beharrezkoa alde zaurretik izena ematea".

Azoka telebista ere bai

Aipatutako guneez gainera, Azoka Telebista ere izango da aurten, eta Landako Gunean eta Plateruenan egingo dituzten ekitaldi guztiak *streaming* bidez eskainiko dituzte, bihurtik ha-

sita, *Goiena.eus* atarian izango diren bi kanalen bitartez. Emanaldi horiez gainera, eguneko protagonistak eta ekitaldien laburpena jasoko dituen *Bada!* saioa eskainiko dute, 22:00etan hasita, Goiena telebistan.

Debagoieneko sortzaileak

Estreinakoz Azokan izango dira Idoia Asurmendiren, Hegazkin taldearen, Ekiñe Casadoren, Klak!son taldearen eta Eñaut Zubizarreta *Trigger*-en diskoak erosgai, eta baita Itziar Ugarteren eta Oihana Aranaren poesia liburuak ere. Azokan eskarmen-tua duten Ruper Ordorikaren, Fermin Etxegoienaren, Julen Ribasen eta Ane Odriozolaren azken lanak ere hain izango dira. Odriozolak stand propioa izango du eta eskualdekoen beste lan gehienak dagokien argitale-txeen postuetan izango dira, baina badira Musikazuzenean eta Mukuru kolektiboaren sal-tokietan izango direnak ere. Arrasateko Mauka Musikagintzak ere askotariko lanak eramango ditu.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Oñatin etxea errentan hartzeko prest, erosteko aukerarekin. San Lorenzo, Olakua, Errekalde edo erdialdean. Beste auzoetan baloratuko nuke. 679 62 69 64 edo jontxu2009@hotmail.com

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Apartamentua ematen da errentan Oñatin, 60 metro koadrokoa. Logela bat du, egongela, sukalde eta bainugela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618 72 11 29

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Udalatz fruta dendan lan egiten dut eta errentan hartzeko etxe bila nabil. Bi logela izatea nahiko nuke. Telefonoa: 685 75 91 72

Bergara. Bergarako neska errentan hartzeko etxebizitza bila. Urgentea da. 690 75 61 18

Bergara. Bergaran etxebizitza bila nabil. Telefonoa: 645 72 92 87

Bergara. Kaixo, Bergarako neska gazte euskalduna naiz eta etxebizitza txiki baten bila nabil. Edozer gauza dela eta, jarri nirekin harremanetan. Eskerririk asko. Ane. 684 14 95 54

Oñati. 34 urteko langilea, Oñatin denbora luzerako etxebizitza bila. Ardurasua eta aurretik hainbat denboraz alokairuan egondakoa. 658 86 98 38

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Errentan hartzeko logela baten bati ari naiz. 648 00 86 55

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Uribe auzoan edo Polo Garaia inguruan garaje bat hartuko nuke errentan. 619 68 39 14

Bergara. Zubieta kale inguruan garajea edo lokala errentan hartuko nuke. Deitu zerbaki honetara: 629 06 93 60

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Errentan hartzeko lokal baten bila nabil, dagoeneko finkatutako eliza kristau baterako. 627 79 28 99

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Astebukaeratarako.

Bergaran astebukaeratan etxeko langilea behar dugu, etxean bertan bizi izaten adineko pertsona bati eguneroko gaietan laguntzeko. Ostiraleko 21:00etatik igandeko 21:00etara. Titulu soziosanitarioa kontutan hartuko da. Astean zehar egunez ordu solteak ere

OÑATI

Jatetxerako sukaldariak eta zerbitzariak behar dira. 688 81 85 00

bai (3 ordu arratsaldetan). 617 14 71 25

Debagoiena. Adineko pertsonekin lan egiteko soziosanitario titulua duen neska behar dugu. 660 46 34 93

Oñati. Emakume heldu bat zaindu eta garbiketa lanak maitasunez eta gustuz egingo dituen emakume baten bila gabilta. Orduetgia: 08:00-13:00. Lehenbailehen hasteko. 645 79 23 97

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut egunez, gauz edo asteburuetan. Kotxea daukat. Arrasaten bada, baita etxean bertan bizi izaten ere. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 602 80 15 38

Arrasate eta Bergara. Pertsona nagusiei eguneroko jardueretan laguntzeko prest nago; paseatu, erosketak egin, zaindu eta abar. Eskarmentu handia. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 615 40 61 66

Arrasate. Garbiketa lanak egingo nituzke goizetan. 602 68 40 89

Arrasate. Legezko agiriak eta esperientzia handia duen emakumea zaintza lanetarako gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 632 48 38 91

Bergara edo inguruan. Gurtzienez bi logelako etxebizitza behar dugu errentan. Familia bat gara, lanarekin. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 671 16 54 60

Bergara. Emakume prest astean zehar edo asteburuetan helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 641 60 18 20

Bergara. Esperientzia duen neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko edo zerbitzari moduan. Lanerako baimenarekin. Deitu telefono zerbaki honetara: 685 10 01 85

Bergara. Gizona gertu astean zehar edo asteburuetan helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 641 60 12 04

Debagoiena. Astean zehar edo asteburuetan

emakumea prest umeak edo helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 631 75 03 97

Debagoiena. Asteburuetan lanean jarduteko prest. Etxean bertan zainketa lanetan edota garbiketan. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 612 56 12 39

Debagoiena. Emakumea ebkerako lanetarako prest. Titulu soziosanitarioa eta papalak dituena. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. 643 73 62 83

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu orduka garbiketak edota zaintza lanak egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Eskarmentu handia daukat hainbat lanbidetan eta lanerako prest nago: garbiketa lanetan, jatetxeetan edota pertsona nagusien zaintzan. 642 95 00 04

Debagoiena. Esperientzia handia daukan neska bergararra nagusiak zaintzeko gertu. Titulazioa daukat. 618 03 65 02

Debagoiena. Esperientzia handia eta soziosanitario titulazioa daukan emakumea, baserriren baten zaintza lanak egiteko gertu. Autoarekin. Astean zehar, eta gauren bat egiteko aukerarekin. 637 52 89 83

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten nagusiak zainduko nituzke. 602 01 32 58

Debagoiena. Gauetan edo goizetan orduka zaintza lanak egiteko gertu nago. Soziosanitario titulazioarekin. 659 90 85 13

Debagoiena. Lan bila nabil. Garbiketa lanak egingo nituzke: atariak, lokalak, baserriak eta abar. 645 72 92 87

Debagoiena. Lehen laguntza eta soziosanitario titulua daukat, lan egin nahi dut eta erabateko prestutasuna daukat. Telefonoa: 653 36 85 80

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko eta denetarik garbiketak egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 98 39 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, orduka. Ordutegi arazo barik. Telefonoa: 631 11 87 57

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 666 80 48 11

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita egoizatik paseatzera laguntzeko ere. Autoa daukat. 631 37 49 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egingo nuke. Telefonoa: 632 39 87 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketetan, margoketan zein lan mekanizatuetan aritzeko gertu nago. 631 55 24 37

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak egunean zehar zaintzeko. Baita orduka ere. 677 14 64 27

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Deitu telefono zerbaki honetara: 677 14 64 29.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko zein garbiketa lanetarako. Deitu telefono zerbaki honetara: 632 12 42 42

Debagoiena. Nikaragua-ko 33 urteko mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen, eraikuntza laguntzaile edo sukalde laguntzaile. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 687 35 06 37

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketetan edo nagusiak zaintzen. Baita gauetan ere. Soziosanitario titulazioa eta autoa. 631 48 33 08

Debagoiena. Prest nago pertsona nagusiak zaintzeko arratsalde, gau edo asteburuetan. Kotxea daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa duen neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko zein garbiketa lanetarako. Telefonoa: 662 54 79 50

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Edo egunean zehar edo gau solteak. Telefonoa: 696 84 19 51

Debaogiena. Kafetegian edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan egin nahi dut. Erabateko prestutasuna daukat. Telefonoa: 677 14 64 29

Lan bila. Edozein lan mota egiteko prest:

umeak zaindu, tabernan, enpresan eta abar. Telefonoa: 656 79 28 37

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Batxilergoko lehen mailan dabilen multiko batentzat matematika eskola partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilta. 695 70 58 33

Bergara. LH6. mailan dagoen ikasle bati etxean eskola partikularrak emango dizkion norbait behar ditut. Euskara beharrezkoa. 679 43 32 55

8. DENETARIK

807. AURKITU

Giltzak Aretxabaletan. Aretxabaletako Orly tabernan etxeko giltza batzuk aurkitu nituen. Golmar etxeko giltzako beltz bat dauka. Arrasateko BAZ bulegoan utziko ditut.

OROIGARRIA

Federico Echeverria Azconaga

(Eskolako irakasle baten aita)

2021eko azaroaren 27an hil zen.

Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.



Eskoriatzan, 2021eko abenduaren 3an.

OROIGARRIA

Jose Felix Gardoki Galdos

'Txofe'

2021eko azaroaren 30ean hil zen, Lanzaroten.

*Euskal Herrixen jaixua,
Lanzaroten beste aberri eta familixa bat topau zeuen.
Zure urrezko bihotzakin geraketan gare
Arrasateko zure lagunak be.*

Arrasaten, 2021eko abenduaren 3an.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

BADA!: DURANGOKO AZOKAREN GAINEKOAK

'Bereziak' Abenduaren 4tik 8ra, 22:00



GOIENA

AUDIENCE TALDEAREN KONTZERTUA

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
[goiena.eus/
televista](http://goiena.eus/televista)
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

OROIGARRIA

Karmelo Olabe Zuazua



*Zure kantuak eta kontuak goguen...
Bakarrik gero arte,
sutonduen alkartuko baikare.
Beti eta betiko
gure tio Karmelo.*

Zure ilobak: Julen, Jon, Edurne, Olatz, Alaitz eta Beñat.
Aretxabaletan, 2021eko abenduaren 3an.

ESKER ONA

Bittor Ezkurra Aranguren



2021eko azaroaren 26an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2021eko abenduaren 3an.

ESKER ONA

Bixente Murgoitio Gabilondo



2021eko azaroaren 24an hil zen, 102 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko abenduaren 3an.

OROIGARRIA

Leizuri Nuñez Eraña



2021eko abenduaren 1ean hil zen.

Zure irrifarra beti izango dugu gogoan.

Erañatar familia.
Aretxabaletan, 2021eko abenduaren 3an.

ESKER ONA

Felisa Garitano Elkoroiribe



2021eko azaroaren 27an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko abenduaren 3an.

ESKER ONA

Nati Gabilondo Garitano



Pedro Inzaren alarguna
2021eko azaroaren 24an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko abenduaren 3an.

OROIGARRIA

Felipe Larrañaga Elorza



2021eko azaroaren 29an hil zen, 77 urte zituela.

Gantzako haitzen azpian elkartuko gara



Izpizte elkarte
Aramaion (Gantzaga), 2021eko abenduaren 3an.

ESKER ONA

Juan Alday Elorza



2021eko azaroaren 30ean hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko abenduaren 3an.

ESKER ONA

Andoni Landaluze Lacalle



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko abenduaren 3an.

OROIGARRIA

Maria Leceta Unzueta



Fernando Leteren alarguna
2021eko azaroaren 26an hil zen, 91 urte zituela.

*Ama, amama maitea,
zu izan zara
gure iturri etengabea,
ikur eta langilea,
zoaz lasai
aitak zabalduko dizu
zeruko atea.*

Seme-alabak eta bilobak.
Antzuolan, 2021eko abenduaren 3an.

URTEURRENA

Bizente Errasti Ortueta



2020ko abenduaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 5ean, 13:00etan, Aramaioko Azkoaga auzoko elizan.

—
Beti gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aramaion, 2021eko abenduaren 3an.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gukan izan duzuen konfiantzagaririk eta maitasunagaririk.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1. Frontenis txapelkunak

Edurne eta Danel Sagasta anai-arrebek irabazi dute Aretxabaletako bikote mistoen txapelketa, Zigor Medina eta Amaia Ariznabarreta menderatuta (22-12).

2. Bibotedunak, bibote barik

Movember mugimenduarekin bat egin duten bergararrek aurreko asteburuan moztu zituzten biboteak. Talde argazkia egiteko aprobetxatu zuten ekitaldia.

3. Omenaldia odol-emaileei

Bergarako odol-emaileen elkarteak herriko 33 odol-emaile omendu zituen aurrekoan. Zilarrezko eta urrezko diplomak eta emaile-handien plakak jaso zituzten San Joxepen.

4. Dantzari onenak

Lezoko Ane Jaunarenak eta Endika Oseselek irabazi zuten Bergarako dantza txapelketa. Bigarren izan zen Aizpuru-Zabala bikotea eta hirugarren, Azkue-Esnaola.

5. Kudoken topaketa

Bergaran egindako Winter Camp topaketan jatorri askotariko kudokak batu ziren: euskaldunak, katalanak, valentziarrak, kantabriarrak... Guztira, 60.

6. 50 urte ezkontuta

Manolo Alberdi bergararrak eta Lucia Lizarraga etxarriaranaztarrak urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "Besarkada handi bana. Ederki pasako dugu Zelai Zabalen".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.


Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ONATI
Maier Urteaga
Abenduaren 9an, 6 urte. Zorionak, Maier, 6 urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta jarraitu gure bizitzak pozez beteten.



BERGARA
Alaitz Garai Zenitagoia
Abenduaren 8an, 10 urte. Zorionak, Alaitz! Bete dituzu azkenean 10 urte! Besarkada eta patxo handi-handi bat etxekoan partetik.



ONATI
Izaro Markuleta Kortajarena
Abenduaren 7an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo, familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu.



ESKORIATZA
Mikel Aramendi Kortazar
Abenduaren 6an, 38 urte. Zorionak, Mikel. Oso ondo pasatu eguna eta besarkada handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Maddi Elexpuru Gonzalez
Abenduaren 4an, 5 urte. Zorionak, politx hori! Bost urte! Ondo pasatu zure eguna! Asko maite zaitugu! Patxo erraldi bat!



ONATI
Enara Arrazola
Abenduaren 3an, 7 urte. Zorionak eta muxu pottolo bat etxekuen partetik. Elkarrekin disfrutatuko dogu eguna!



ONATI
Markel Biain Cortabarria
Abenduaren 3an, 4 urte. Zorionak gure etxeko txikinari! Primeran pasatu zure egunean, Markel! Patxo pottolo bat famelixa danaren partetik!



BERGARA
Peru Larrañaga Barrenetxea
Abenduaren 2an, 8 urte. Peru! Heldu da zure eguna! Zorionak! Asko-asko maitxe zaitzugu.



ONATI
Iraia Marquez Gomez
Abenduaren 1ean, 10 urte. Zorionak, printzesa. Patxo pottoloak etxekoan partetik!



BERGARA
Ainara Revilla Urrutia
Abenduaren 1ean, 12 urte. Zorionak, maitia! Aurtengoa desberdina izan arren, topera ospatuko dugu. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Eñaut Arkauz Vitoriano
Azaroaren 30ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat danon partetik.



BERGARA
Asier Sanchez Gonzalez
Azaroaren 27an, 5 urte. Zorionak, Asier! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Asko maite zaitugu, laztana! Zorionak zure familiaren partetik. Muxuak.



ARRASATE
Xabier Agorria Lumbreras
Azaroaren 26an, 6 urte. Zorionak, Xabi! Ondo pasatu zure urtebetetzian! Muxu pila bat zure dinosaurio guztien partetik!



ARRASATE
Aimar Hernandez Lopez
Azaroaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Aimartxo! Ondo-ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzian! Besarkada handi bat etxekoan partetik.



ONATI
Naroa eta Maddi Iñarra Agirre
Naroak 6 urte azaroaren 24an, eta Maddik 8, abenduaren 2an. Zorionak! Ondo pasatu eta disfrutatu familixan eta lagunekin.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3

OÑATI 'Unibertsitatea, kandela argitan' ikuskizuna
Irekia.

Sancti Spiritus unibertsitatean, 17:30etan.

BERGARA 'Euskal memoria: gogoan hartzeko izenak' erakusketa

Gaur zabaldu dute erakusketa. Ikusgai egongo da hilaren 12ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ELGETA Baobeer garagardoaren salmenta

Berraondokua poligonoko lokalean egongo dira. *Elgetan, 19:00etan.*

OÑATI 'Arantzazuko Benta' liburuaren aurkezpena

Jose Ramon Arrazola egilea egongo da ekitaldian eta musikarekin girotuko dute. *Goiko Benta ostatuan, 19:00etan.*

BERGARA 'Ez dok ero' antzezlan

Tartean Teatro taldearen lana. Patxo Telleria eta Mikel Martinez oholtzan. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

OÑATI Bizarro taldea

Deshumanizazioa biraren azken kontzertua. Sarrerak, bost euro – langabeek, hiru–. Ondarroako Braulio taldea izango da gonbidatua. *Gaztetxean, 22:00etan.*

BERGARA Serge musikaria

Leihotik mundura diskoa aurkeztuko du, afari-musikatuan. *Zumelaga jatetxean, 22:00etan.*

ZAPATUA 4

BERGARA Emakumezkoen Bergara Hiria txapelketa

Debagoieneko eta Gipuzkoako selekzioak eta Errioxa lehian. *Labegariaietan, 09:00etan.*

ARRASATE Odol-ateratzea

Gabonei begira egin dute deialdia. *Jose Maria Arizmendiarieta plazan, 09:45ean.*

ARRASATE Jolas parkea

Puzgarri erako txirrista, puzgarri jauzilaria, bola zoroak eta abentura zirkuitua tirolinarekin. Orduetgia: 11:30-14:00 eta 17:30-20:00. *Biteri plazan.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

ARRASATE 'Mozorro king-queen'

Gaztetxoendako. *San Andresko gazte txokoan, 17:30etan.*

OÑATI Espeleotxiki, familiendako

Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00. *Arrikutzen, 15:00etan.*

ARAMAIO 'Kulunka' musika emanaldia umeendako

Haziaraba in the mapping jaialdiaren baitan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Esnatu naiz' kabareta

Andoni Mutiloaren lana. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

DOMEKA 5

BERGARA Ohe elastikoak

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

OÑATI 'Arantzazu inguruko paisaiak' bisita gidatua

Izenak emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*. *Parketxean, 11:30etan.*

ARRASATE Jolas parkea

Puzgarriak, bola zoroak eta abentura zirkuitua. Orduetgia: 11:30-14:00 eta 17:30-20:00. *Biteri plazan.*

OÑATI Hika triki-poteoa

Hikaldixa egitasmoaren barruan. *Boga tabernan, 12:00etan.*

ARETXABALETA Radu Ratoi akordeoilariaren emanaldia

2019ko Arrasateko akordeoi lehiaketaren irabazlea. *Zaraia aretoan, 12:30etan.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

ARRASATE 'Alivi misterioa argitzen'

Gaztetxoendako. *San Andresko gazte txokoan, 17:30etan.*

OÑATI 'Unibertsitatea, kandela argitan' ikuskizuna

Irekia. *Sancti Spiritus unibertsitatean, 17:30etan.*

ARAMAIO 'Leihoak' ikuskizuna

Haziaraba in the Mapping jaialdiaren baitan, 3 eta 5 urte arteko umeendako. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ASTELEHENA 6

OÑATI 'Altxorren bila', familiendako

Ibilbide irisgarrian. Izenak emateko: *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* edo 943-78 28 94. *Parketxean, 11:00etan.*

BERGARA Ohe-elastikoak, umeendako

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

OÑATI 'Txokolatea gustuko' bisita gidatua

Debalde, baina aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63. *Txokolateixan, 12:00etan.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*



KULUNKA

ARAMAIO 'Kulunka' musika emanaldia

Haziaraba in the mapping ekimenaren baitan egingo dute umeendako emanaldia Sergio Lopez de Landachek, Laura Marcosek eta Koldo Uriartek. Debalde, edukiera mugatuarekin. *Bihar, zapatua, kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE Arrasateko Akordeoi Lehiaketak

Azken ekitaldia eta sari banaketa egingo dituzte. *Amaia antzokian, 20:00etan.*

MARTITZENA 7

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

BERGARA Ohe elastikoak

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

EGUAZTENA 8

BERGARA Ohe elastikoak

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

OÑATI 'Lehoiak Oñatin' tailerra

Arrikutzen aurkitu zuten lehoiaren hezurduraren gaineko bi saio egongo dira: 12:00etan Arrikutzen eta 16:30etan Turismo Bulegoan. *Oñatin.*

OÑATI 'Txokolatea gustuko' bisita gidatua

Debalde, baina aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63. *Txokolateixan, 12:00etan.*

OÑATI Bisita gidatua Arantzazun

Basilika eta kript barrutik ezagutzeko aukera. *Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

BERGARA Profesional mailako pilota partiduak

Ezkurdia-Tolosa eta Irribarria-Rezusta, nor baino nor gehiago, Eskuz Binakako Txapelketan. Hiru partidu jokatu dira jaialdian. *Pilotalekuan, 17:00etan.*

EGUENA 9

BERGARA Ohe elastikoak, umeendako

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

ARETXABALETA 'Hijas de Cynisca' dokumentala

Emakume kirolariak eta emakume kazetariak protagonista dituen lana. *Arkupen, 19:00etan.*

OÑATI 'La ruleta de la fortuna y la fantasía' filma

Ryusuke Hamaguchi zuzendariaren lana, jatorrizko bertsioan eta zineklubean. Sarrerak, bost euro. *Kultura etxean, 20:00etan.*



GLU GLU

ARRASATE 'Perez sagutxoa' antzezlan
Izen bereko ipuin klasikoan oinarritutako lana, umeendako, Glu Glu taldearen eskutik. Belaunaldi guztiak gainditu dituen sagutxoa izango da protagonista. Sarrerak, bost euro.
Abenduaren 11n, Amaia antzokian, 17:00etan.

EGUBAKOITZA 10

OÑATI Odol-ateratzea
Urteko azkena egingo dute. Aurrez hartu behar da odola emateko ordua, 943-00 78 84 telefonoan.
Enpresagintzan, 16:30ean.

BERGARA Ohe elastikoak, umeendako
Bedelkarren eskutik. Ordutegia: 17:00-20:00.
Munibe plazan.

ARRASATE Jostailu truke merkatua
Jostailuak entregatzeko aukera, gaur.
Seber Altuben, 17:00etatik 18:30era.

ARRASATE Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua
Gabonetako emanaldia.
Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala
Iñaki Peñak zuzendutako lana.
Kultura etxean, 18:30ean.

ZAPATUA 11

ARRASATE 'Arrasateko udaletxea' bisita gidatua
10:30etan euskaraz eta 11:30etan gazteleraz. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Herriko Plazan.

BERGARA Ohe elastikoak, umeendako
Bedelkarren eskutik. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Munibe plazan.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Laboratoriumen.

ARRASATE 'Zirkun zirko' ikuskizuna
Malabaristak, orekariak, akrobatak...
Herriko kaleetan, 12:00etatik 14:00etara.

OÑATI 'Bizi zaldia
Pottokalekun. Trostan, familian!' bisita gidatua
Debalde, baina erreserba egin behar da, 943-79 64 63 telefonoan.
Pottokalekun, 15:30ean.

ARRASATE 'Perez sagutxoa' antzezlan
Izen bereko ipuin klasikoan oinarritutako lana, umeendako, Glu Glu taldearekin. Belaunaldi guztiak gainditu dituen sagutxoa izango da protagonista. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Hurrengo geltokia' ikus-entzunezkoa
Mondragon Unibertsitateko laugarren mailako ikus-entzunezko komunikazioko ikasleek egindako film laburra...
Zaldibarren, 18:00etan.

ZINEMA

BERGARA SEMINARIXOA El espía inglés Domeka eta astelehena: 19:30. El lobo y el leon Domeka: 17:00. OÑATI KULTURA ETXEA Way down Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehenetik eguaztenera: 19:30. Una familia feliz Zapatua eta domeka: 17:00. ARETXABALETA ARKUPE Way down Egubakoitza: 22:00. Zapatua eta domeka: 19:30. Astelehena: 16:00. Ron da error Zapatua eta domeka: 17:00. EIBAR COLISEO La casa Gucci Zapatua: 19:30, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 17:00, 20:30. La hija Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00.	Astelehena: 17:00, 20:30. ANTZOKIA Cazafantasmas Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 17:00, 20:30. GASTEIZ BOULEVARD Clifford, el gran perro rojo Egunero, zapatua izan ezik: 17:00. Egunero, zapatua eta eguena izan ezik: 16:00, 18:00, 20:00. Zapatua: 15:45, 16:15, 18:00, 20:00. Eguena: 18:00. La familia perfecta Zapatutik eguaztenera: 16:00, 18:30, 20:30, 23:00. Egubakoitza eta eguena: 17:00, 19:30, 22:00. Cazafantasmas Egunero, martitzena izan ezik: 15:45, 18:15, 21:00. Egunero: 17:00, 19:45, 22:30. Resident evil Egubakoitza: 17:30, 23:30. Zapatua: 18:10, 22:00, 23:30. Eguena: 17:00. Egunero: 22:00. La casa Gucci Zapatua, domeka, astelehena eta	eguaztena: 15:45, 18:50, 21:55. Martitzena: 15:45, 21:55. Eguena: 17:00, 21:30. Encanto Zapatua eta domeka: 15:45. Egunero: 18:20, 21:00. Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:35. Way down Egubakoitza: 19:30, 22:00. Egubakoitza, martitzena eta eguena: 15:45, 18:15, 20:45, 23:15. Martitzena: 18:15, 20:45. Eguena: 20:00, 22:30. Eternals Egunero, zapatua izan ezik: 22:00. Zapatua: 22:20. El buen patron Zapatua izan ezik: 22:20. Zapatua: 22:45. El refugio Zapatua eta domeka: 16:00. Venom: habrá matanza Egubakoitzetik eguaztenera: 18:00. Eguena: 17:30. La hija Egunero, zapatua izan ezik: 22:00. GORBEIA Maixabel Egubakoitzetik martitzenera: 22:00 Eguaztena: 19:40. Eguena: 20:00.	El ultimo duelo Domeka, astelehena, martitzena eta eguaztena: 11:30. El lobo y el leon Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domekatik eguaztenera: 12:00, 17:00. Eguena: 19:40. Eternals Egubakoitza eta zapatua: 21.45. Domekatik martitzenera: 11:30, 21:45. Eguaztena: 11:30. Eguena: 19:40. Way down Egubakoitzetik egueaztenera: 17:20. Eguena: 17:30. Encanto Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 18:25, 19:40. Domekatik martitzenera: 12:00, 17:00, 18:25, 19:40. Eguaztena: 12:00, 17:00, 18:25. Eguena: 17:30. El refugio Domekatik eguaztenera: 12:00. La casa Gucci Egubakoitzetik martitzenera: 16:30, 21:30. Eguaztena: 16:30. Eguena: 19:30. Clifford, el gran perro rojo Egubakoitza eta zapatua: 16:30,	19:15, 20:40. Domekatik eguaztenera: 12:00, 16:30, 19:15, 20:40. Eguena: 17:30. Cazafantasmas Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:50, 21:10. Domeka: 12:00, 16:30, 18:50, 21:10. Eguaztena: 12:00, 16:30, 18:50. Eguena: 17:30. La familia perfecta Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00. Domekatik martitzenera: 12:00, 17:30 19:45, 22:00. Eguaztena: 12:00, 18:30, 19:45. Eguena: 17:30. Black box Egubakoitzetik martitzenera: 19:00, 21:30. Eguaztena: 12:00, 17:30, 19:45. Eguena: 17:30. Nido de viboras Egubakoitzetik martitzenera: 17:20, 19:30. Eguaztena: 17:20. Eguena: 17:30. Matrix Egubakoitzetik martitzenera: 21:40. Eguaztena: 19:30. Eguena: 19:35. El buen patron Egubakoitzetik eguaztenera: 19:30. Eguena: 20:00.	FLORIDA El buen patron Egubakoitzetik eguaztenera: 22:25. Eguena: 20:00. Pan de limon con semillas de amapola Egubakoitzetik eguaztenera: 21:50. Eguena: 20:00. Encanto Egubakoitza: 16:30, 18:25, 19:35. Zapatua, domeka, astelehena eta eguaztena: 12:00, 16:30, 18:25, 19:35. Martitzena: 12:00, 18:25, 19:35. Eguena: 17:30. La hija Egubakoitzetik eguaztenera: 21:20. Eguena: 20:00. Seis dias corrientes Egubakoitzetik eguaztenera: 16:40, 20:40. Eguena: 17:30. El amor en su lugar Egubakoitza: 18:25, 20:30, 22:30. Zapatutik eguaztenera: 12:00, 18:25, 20:30, 22:30. Eguena: 17:30, 19:45.
--	---	--	---	--	---

KRITIKA

La hija
Zuz.: Manuel Martin Cuenca. **Herr.:** Espainia (2021). **Iraupena:** 122 minutu. ★★★★★

Obsesio baten istorioa

ANTONIO ZABALA
La hija filmaren hasieran, haurrik eduki ezin duen bikote batek tratu bat egingo du haurdun dagoen 15 urteko neskatila batekin. Neskak erreformatoretik ihes egingo du, bikotekidearen laguntzarekin, eta haurra izan arte eurekin biziko da, mendian duten etxean. Laguntzaren eta diruaren ordez bikotea jaioko den haurrarekin geratuko da. Hasiera horrekin, ikusleak badu susmoa pertsona bat desagertzen denean ez dela hain erraza horren arrastoa ezabatzea. Baina, istorioaren bikotea obsesionaturik dago guraso izateko gogoarekin, eta edozer gauza egiteko kapaz dira helburua lortzeko. Normala denez, gauzak okertzen joango dira, bai kanpotik egiten diren ikerketarengatik, eta baita egindako akordioan gertatuko diren aldaketengatik ere. Manuel Martin Cuenca oso esku onez murgiltzen gaitu egoeran eta pertsonaien psikologian. Erritmoak geldoa dirudi, baina eszenak bata besteren atzetik lotzen ditu. Filmaren tentsioak eta ikuslearen jakin-minak, pixkanaka, baina etengabe, gorantz egiten dute. Alde batetik, ikusteko nola bikoteak saihesten dituen kanpoan eta barruan sortzen diren zailtasunak, eta, bestetik, pertsonaien portaera psikologikoan eta obsesioan gertatzen diren aldaketak jarraitzeko. Ikusleak ere biziko ditu aldaketak, pertsonaiekiko duen ikuspegian. Zuzendariak bikain bideratzen gaitu hasierako plan zentzugabekotik gertatzen den bukaera aztoratzailerara arte.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Altxorra ez

Euskararen Eguna (ere) aproposa da hitzekin jolasean aritzeko. Hitz-joko diferentek egin daitezke, batzuetan arauak urratuz. Zailena izaten da, estetikarekin batera, produktuak esanahia izatea. Jarraian datorren testua, komatxoaren artean, bi modutan irakur daiteke: lerroz lerro edo soilik lerro bakoitiak hartuta (1, 3, 5...).

"Euskara altxorra dela esaten da sarritan. Bere balioa itzela da, baina ez du zentzurik per-lak lez kaxan gordetzeak, per-tsonek ez erabiltzeak, gure bi-zitzan lekua ez izateak eta al-dean ez eramateak. Kontuz, bazter hauetan eta urrunago, euskara estimatzen ez duten herritar xume eta intelektual askok ere altxortzat dute, mu-seo batean irten ezinik obli-gatuta egoteko.

Hizkuntza ez da altxorra, ez. Euskarak behar du beti mu-ga barik ibiltzea eta lekuak ar-gitzea, hau eta hori ukitzea.

Oraindik indar faltan daukagu. Estuialdiari aurre egiteko, kul-pa ez ezker-eskuin bilatu, ohi-tura aldatzen saiatu: gakoa da goizetik gauera, toki guztietan, euskara baliatzea. Horregatik, ez bakarrik abenduaren 3an, erabili eta erabili eta ez izan inozoa, euskara ez da al-txorra!".

GOIENA OKM GIDA

"Egunero lan ezberdinak egiteko aukera dut"

JULEN URIBEETXEBERRIA TXANTXIKU ELEKTRIZITATEA

Gaztetan, udako oporrak aprobetxatuta, hasi zen etxeko negozioan laguntzen, eta, obretako makineriak betidanik erakarri duen arren, pozik aritzen da elektrizitatean

Jone Olabarria OÑATI

Aitona-amonek jarri zuen mar-txan negozioa, eta, gurasoen-gandik pasa ostean, Julen Uri-beetxeberriaren ardura da Oña-tiko etxeetan elektrizitate kon-ponketak eta berritze lanak egitea egun. Familiatik datorkion arren, gustuko duen lana da, eta, onerako zein txarrerako, egunero askotariko lanak egi-teko aukera baloratzen du.

Gazte-gaztetan hasi zinen arlo ho-netan lanean...

Ikasketak egin aurretik, udetan laguntzen nuen, aitarekin. 20 bat urte nituela hasi nintzen buru-belarri lanean. Familia-en-presa izan da hau betidanik; aitonak jarri zuen martxan; gero, nire gurasoek hartu zuten: ama dendan eta aita kanpoko lanak egiten. Orain, amak eta biok daramagu.

Zer da lanbide honek duen onena? Eta okerreana?

Egunero zerbait ezberdina egi-teko aukera duzu, askotariko lan eta arazoei egin behar diezu aurre. Esango nuke hori dela onena, baina baita okerreana ere.

Ba al da gorrotatzen duzun lanik? Edo bereziki astuna egiten denik...

Oñargirekin lan egiten genuenean, esaterako, linea jartzera



Julen Uribeetxeberria, Oñatiko Kale Barrian duten dendan. M.ARRAYAGO.

Kablea, zuhaitzak harrapatuta

"Behin, Narria auzoko hainbat baserritan argindarrak gabe zeudela-eta, abisua jaso genuen. Hara joan eta ez genuen ezer arraroa topatu, ez genekien non zegoen matxura. Orduan, kablea jarraitzen hasi ginen, punturen batean apurtuta ote zegoen ikusteko; halako batean, hantxe topatu genuen arazoa: zuhaitz baten gainetik botata zegoen kablea zuen arbolak erdi-erdian, eta, hazten joan zen heinean, han geratu zen harrapatuta".

joan behar izaten genuen, eta klabeak oso pisutsuak ziren. Lan gogorra izaten zen hori. Bestela ere, Agustindarretako instalazio osoaren berritzea egin genueneko ere bereziki astun gogoratzen dut.

Familiarengandik etorri zitzaizun negozio hau; baina, bestela, zertan lan egin nahiko zenuke?

Egia esanda, ez dut inoiz pen-tsatu. Betidanik asko gustatu izan zaizkit kamioiak, hondea-makinak eta halako makineria. Fabrikara lanera joan aurretik, esango nuke horretako zerbai-tekin lan egin nahiko nukeela.

Dendan gutxi ibiltzen zara, baina zerk du arrakasta handien zuenean?

Normalean, abisuak jaso eta konpontzera joaten naiz ni, eta ama egoten da dendan. Baina asko saltzen ditugu ile-lehorgai-luak, hotzak garbitzeko eskuila elektrikoak eta kafetera italia-rrak, betikoak. Gezurra dirudien arren, horiek dira arrakasta-tsuenak.

Gure kontura egiten al ditugu lan asko? Profesionalen laguntza barik...

Askotan etortzen da jendea etxean zaharberritzeren bat egiten da-bilela eta material bila. Asmoa bai, baina gero, ez dute jakiten ondo nola egin, eta laguntza eske etortzen dira.

Oñatiarra izanda, zer baloratzen duzu gehien herritik?

Asko gustatzen zait mendi in-guruaz eta natura parajeez go-zatzea. Hemen Oñatin aukera paregabea dugu horretarako, eta, askotan, ez dugu baloratzen gurean duguna.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

BADA!

GOIENA TELEBISTA
DURANGOKO AZOKAREN GAIKEKO SAIOA
ABENDUAREN 4TIK 8RA, 22:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

